

Código Civil

TÍTULO PRELIMINAR DE LAS NORMAS JURÍDICAS, SU APLICACIÓN Y EFICACIA

CAPÍTULO I Fuentes del Derecho

Artículo 1

1. Las fuentes del ordenamiento jurídico español son la ley, la costumbre y los principios generales del derecho.
2. Carecerán de validez las disposiciones que contradigan otra de rango superior.
3. La costumbre sólo regirá en defecto de ley aplicable, siempre que no sea contraria a la moral o al orden público y que resulte probada.
Los usos jurídicos que no sean meramente interpretativos de una declaración de voluntad tendrán la consideración de costumbre.
4. Los principios generales del derecho se aplicarán en defecto de ley o costumbre, sin perjuicio de su carácter informador del ordenamiento jurídico.
5. Las normas jurídicas contenidas en los tratados internacionales no serán de aplicación directa en España en tanto no hayan pasado a formar parte del ordenamiento interno mediante su publicación íntegra en el «Boletín Oficial del Estado».
6. La jurisprudencia complementará el ordenamiento jurídico con la doctrina que, de modo reiterado, establezca el Tribunal Supremo al interpretar y aplicar la ley, la costumbre y los principios generales del derecho.
7. Los Jueces y Tribunales tienen el deber inexcusable de resolver en todo caso los

Kode Zibila

ATARIKO TITULUA ARAU JURIDIKOAK, HORIEN APLIKAZIOA ETA ERAGINGARRITASUNA

I. KAPITULUA Zuzenbidearen iturriak

1. artikulua

1. Espainiako antolamendu juridikoaren iturriak dira legea, ohitura eta zuzenbidearen printzipio orokorrak.
2. Ez dute baliorik izango goragoko lerruneko xedapenen bat urratzen duten xedapenek.
3. Ohiturak lege aplikagarriak izan ezean bakarrik eraenduko du, betiere moralaren nahiz ordena publikoaren aurkakoa izan ez eta ohitura hori frogatuz gero.
Usadio juridikoak borondate-aitorpenaren interpretazio hutsak ez badira, ohituratzat hartuko dira.
4. Zuzenbidearen printzipio orokorrak legerik edo ohiturarik izan ezean aplikatuko dira, printzipio horiek antolamendu juridikoa eratzeko duten izaerari kalterik egin gabe.
5. Nazioarteko itunetan jasotako arau juridikoak ez dira Espainian zuzenean aplikatuko barne antolamenduaren osagai bihurtu arte, arauok «Estatuko Aldizkari Ofizial»ean oso-osorik argitaratuz.
6. Jurisprudentziak antolamendu juridikoa osatuko du, Auzitegi Gorenak legea, ohitura eta zuzenbidearen printzipio orokorrak interpretatu nahiz aplikatzean, behin eta berriz ezartzen duen doktrinaren bidez.
7. Epaille eta auzitegiek egin behar desenkusaezina dute, kasu orotan, euren

asuntos de que conozcan, ateniéndose al sistema de fuentes establecido.

Artículo 2

1. Las leyes entrarán en vigor a los veinte días de su completa publicación en el «Boletín Oficial del Estado», si en ellas no se dispone otra cosa.

2. Las leyes sólo se derogan por otras posteriores. La derogación tendrá el alcance que expresamente se disponga y se extenderá siempre a todo aquello que en la ley nueva, sobre la misma materia, sea incompatible con la anterior.

Por la simple derogación de una ley no recobran vigencia las que ésta hubiere derogado.

3. Las leyes no tendrán efecto retroactivo, si no dispusieren lo contrario.

CAPÍTULO II Aplicación de las normas jurídicas

Artículo 3

1. Las normas se interpretarán según el sentido propio de sus palabras, en relación con el contexto, los antecedentes históricos y legislativos, y la realidad social del tiempo en que han de ser aplicadas, atendiendo fundamentalmente al espíritu y finalidad de aquellas.

2. La equidad habrá de ponderarse en la aplicación de las normas, si bien las resoluciones de los Tribunales sólo podrán descansar de manera exclusiva en ella cuando la ley expresamente lo permita.

Artículo 4

1. Procederá la aplicación analógica de las normas cuando éstas no contemplen un supuesto específico, pero regulen otro semejante entre los que se aprecie identidad de razón.

2. Las leyes penales, las excepcionales y

eskumeneko gaiak ebazteko, ezarritako iturri-sistemari helduz.

2. artikulua

1. Legeak indarrean jarriko dira «Estatuko Aldizkari Ofizial»ean oso-osorik argitaratu eta hogeigarren egunean, legeetan euretan besterik xedatu ez bada.

2. Geroko legeek bakarrik indargabetzen dituzte indarreko legeak. Indargabetzearen norainokoa beren beregi xedatuko da, eta indargabetze hori hedatuko da lege berriari gai berberari buruz aurrekoarekin bat ez datorren guztira.

Lege bat indargabetze hutsagatik ez dira indarrean jartzen lege horrek indarrik gabe utzi zituenak.

3. Legeek ez dute atzera-eraginezko ondorerik izango, eurek aurkakoa xedatzen dutenean izan ezik.

II. KAPITULUA Arau juridikoen aplikazioa

3. artikulua

1. Arauak euren hitzez-hitzezko esanguraren arabera interpretatuko dira, betiere, testuinguruari, aurrekari historikoei eta legegintzazko aurrekariari, eta arau horiek aplikatu behar diren garaiko gizarte-errealitateari lotuta, eta, batik bat, arauen espiritua eta xedea kontuan hartuta.

2. Ekitatea balioestekoa izango da arauak aplikatzean; hala ere, auzitegiek emandako ebazpenen oinarri eksklusiboa ekitatea izan dadin, legeak beren beregi ahalbidetu behar du hori.

4. artikulua

1. Arauen aplikazio analogikoa bidezkoa izango da, arauok kasu zehatza arautu ez arren, horren antzeko beste bat arautzen dutenean, bi kasuon oinarria berbera dela.

2. Zigor-legeak, salbuespenekoak eta aldi

las de ámbito temporal no se aplicarán a supuestos ni en momentos distintos de los comprendidos expresamente en ellas.

3. Las disposiciones de este Código se aplicarán como supletorias en las materias regidas por otras leyes.

Artículo 5

1. Siempre que no se establezca otra cosa, en los plazos señalados por días, a contar de uno determinado, quedará éste excluido del cómputo, el cual deberá empezar en el día siguiente; y si los plazos estuviesen fijados por meses o años, se computarán de fecha a fecha.

Cuando en el mes del vencimiento no hubiera día equivalente al inicial del cómputo, se entenderá que el plazo expira el último del mes.

2. En el cómputo civil de los plazos no se excluyen los días inhábiles.

CAPÍTULO III Eficacia general de las normas jurídicas

Artículo 6

1. La ignorancia de las leyes no excusa de su cumplimiento.

El error de derecho producirá únicamente aquellos efectos que las leyes determinen.

2. La exclusión voluntaria de la ley aplicable y la renuncia a los derechos en ella reconocidos sólo serán válidas cuando no contraríen el interés o el orden público ni perjudiquen a terceros.

3. Los actos contrarios a las normas imperativas y a las prohibitivas son nulos de pleno derecho, salvo que en ellas se establezca un efecto distinto para el caso de contravención.

4. Los actos realizados al amparo del texto de una norma que persigan un resultado prohibido por el ordenamiento jurídico, o contrario a él, se considerarán ejecutados

baterakoak ez dira aplikatuko, eurok beren beregi jasotako kasuetan eta uneetan baino.

3. Kode honetako xedapenak ordezko moduan aplikatuko dira beste lege batzuek araututako gaietan.

5. artikulua

1. Besterik ezarri ezean, epeak egunetan finkatu badira zenbaketa egun zehatz batetik hasita, egun hori zenbaketatik kanpo geratu eta zenbaketa biharamunean hasiko da; epeak hilabeteetan edo urteetan finkaturik badaude, epeak datatik datara zenbatuko dira.

Muga-hilabeteen zenbaketaren hasierako egunaren parekorik ez dagoenean, epea hilaren azken egunean agortzen dela ulertuko da.

2. Epeen zenbaketa zibilean ez dira egun baliogabeak baztertzen.

III. KAPITULUA Arau juridikoen eragingarritasun orokorra

6. artikulua

1. Legeak ez ezagutzeak ez du legeok ez betetzetik desenkusutzen.

Zuzenbideko okerrak legeek zehaztutako ondoreak besterik ez ditu izango.

2. Lege aplikagarria hala nahita baztertzea eta lege horretan aitortutako eskubideei uko egitea baliozkoak izango dira, bakarrik, interes edo ordena publikoa hautsi ez eta ez dietenean hirugarrenei kalterik egiten.

3. Aginduzko eta debekuzko arauen aurkako egintzak zuzenbide osoz deusezak dira, salbu eta arauotan urratze-kasuetarako bestelako ondorea ezarri denean.

4. Arau baten testuaren babespean burututako egintzak legeari maula eginez gauzatu direla ulertuko da, baldin eta egintzon helburua bada antolamendu

en fraude de ley y no impedirán la debida aplicación de la norma que se hubiere tratado de eludir.

Artículo 7

1. Los derechos deberán ejercitarse conforme a las exigencias de la buena fe.
2. La ley no ampara el abuso del derecho o el ejercicio antisocial del mismo.

Todo acto u omisión que por la intención de su autor, por su objeto o por las circunstancias en que se realice sobrepase manifiestamente los límites normales del ejercicio de un derecho, con daño para tercero, dará lugar a la correspondiente indemnización y a la adopción de las medidas judiciales o administrativas que impidan la persistencia en el abuso.

CAPÍTULO IV Normas de Derecho Internacional Privado

Artículo 8

1. Las leyes penales, las de policía y las de seguridad pública obligan a todos los que se hallen en territorio español.

2. Suprimido por la Ley 1/2000, de 7 de enero, de Enjuiciamiento Civil.

Artículo 9

1. La ley personal correspondiente a las personas físicas es la determinada por su nacionalidad.

Dicha ley regirá la capacidad y el estado civil, los derechos y deberes de familia y la sucesión por causa de muerte.

El cambio de ley personal no afectará a la mayoría de edad adquirida de conformidad con la ley personal anterior.

juridikoak debekatzen duen edo antolamendu juridikoaren aurkakoa den emaitza lortzea; egintza horiek ez dute eragotziko saihestu nahi zen araua aplikatu beharra.

7. artikulua

1. Eskubideak onustearen eskakizunekin bat etorri egikaritu beharko dira.
2. Legeak ez du babesten eskubideaz abusatzea, ezta eskubidea gizartearen aurka egikaritzea ere.

Egite edo ez-egite orok, egilearen asmoarengatik, egite edo ez-egitearen helburuarengatik edo berori burutzeko inguruabarrengatik, begi-bistan gainditzen baditu eskubidea egikaritzeko muga arruntak, hirugarrenari kalte eginez, orduan, kalte-ordain egokia eman beharra dakar, eta abusuak jarraitzea eragotziko duten administrazio- neurriak nahiz neurri judizialak hartu beharko dira.

IV. KAPITULUA Nazioarteko zuzenbide pribatuaren arauak

8. artikulua

1. Zigor-legeak, polizia-legeak eta herri-segurtasuneko legeak bete beharrekoak dira Espainiako lurraldean dauden pertsona guztientzat.
2. Ezabatua, Prozedura Zibilari buruzko urtarrilaren 7ko 1/2000 Legearen ondorioz.

9. artikulua

1. Pertsona fisikoen naziokotasunak eratoritzen du haiei dagokien lege pertsonala.

Lege horrek arautuko ditu gaitasuna eta egoera zibila, familiaren eskubideak eta eginbeharrak, eta heriotzaren ondoriozko oinordetza.

Lege pertsonala aldatzeak ez du eraginik izango aurreko lege pertsonalarekin bat etorri eskuraturiko adinnagutasunean.

2. Los efectos del matrimonio se registrarán por la ley personal común de los cónyuges al tiempo de contraerlo; en defecto de esta ley, por la ley personal o de la residencia habitual de cualquiera de ellos, elegida por ambos en documento auténtico otorgado antes de la celebración del matrimonio; a falta de esta elección, por la ley de la residencia habitual común inmediatamente posterior a la celebración, y, a falta de dicha residencia, por la del lugar de celebración del matrimonio.

La nulidad, la separación y el divorcio se registrarán por la ley que determina el artículo 107.

3. Los pactos o capitulaciones por los que se estipule, modifique o sustituya el régimen económico del matrimonio serán válidos cuando sean conformes bien a la ley que rija los efectos del matrimonio, bien a la ley de la nacionalidad o de la residencia habitual de cualquiera de las partes al tiempo del otorgamiento.

4. El carácter y contenido de la filiación, incluida la adoptiva y las relaciones paterno-filiales, se registrarán por la Ley personal del hijo y si no pudiera determinarse ésta, se estará a la de la residencia habitual del hijo.

5. La adopción constituida por Juez español se registrará, en cuanto a los requisitos, por lo dispuesto en la Ley española.

No obstante, deberá observarse la Ley nacional del adoptando en lo que se refiere a su capacidad y consentimiento necesarios:

1) Si tuviera su residencia habitual fuera de España.

2. Ezkontideek, ezkontza egitean, lege pertsonal erkidea badute, lege horrek arautuko ditu ezkontzaren ondoreak; halako legerik izan ezean, ezkontideetatik edozeinen lege pertsonalak edo horren ohiko bizilekuari dagokion legeak arautuko ditu horiek, baldin eta ezkontideek lege hori aukeratu badute, ezkontzaren aurretik egindako agiri kautoan; eta, ezkontideek ez badute aukerarik egin, ezkondu osteko bizileku ohikoari dagokion legeak arautuko ditu haiek, eta, horrelako bizilekurik izan ezean, ezkontza non egin eta toki horretako legeak.

107. artikuluan zehazturiko legeak arautuko ditu deuseztasuna, banantzea eta dibortzioa.

3. Ezkontzaren ondasun-eraentza hizpatu, aldarazi eta ordezteko, hitzarmen edo itunak egiten badira, horiek baliozkoak izango dira, ezkontzaren ondoreak arautzen dituen legearekin bat datozenean, edo itunok egitean alderdietatik edozeinek zein naziokotasun edo ohiko bizileku izan, eta naziokotasun edo bizileku horri dagokion legearekin bat datozenean.

4. Semearen edo alabaren lege pertsonalak, edo, hori ezin bada zehaztu, semearen edo alabaren ohiko bizilekuari dagokion legeak arautuko ditu, bai seme-alabatasunaren izaera eta edukia, adopzio bidezkoa barne, bai eta gurasoen eta seme-alaben arteko harremanak ere.

5. Betekizunei dagokienez, Espainiako legean xedatutakoak arautuko du Espainiako epaileek eraturiko adopzioa.

Hala ere, adopziogaiaren gaitasunari eta beharrezkoak diren adostasunei dagokienez, adopziogai horren nazioko legea bete beharko da:

1) Adopziogaiak bere ohiko bizilekua Espainiatik kanpo duenean.

2) Aunque resida en España, si no adquiere, en virtud de la adopción la nacionalidad española.

A petición del adoptante o del Ministerio Fiscal, el Juez, en interés del adoptando, podrá exigir, además, los consentimientos, audiencias o autorizaciones requeridas por la Ley nacional o por la Ley de la residencia habitual del adoptante o del adoptando.

Para la constitución de la adopción, los Cónsules españoles tendrán las mismas atribuciones que el Juez, siempre que el adoptante sea español y el adoptando esté domiciliado en la demarcación consular. La propuesta previa será formulada por la entidad pública correspondiente al último lugar de residencia del adoptante en España.

Si el adoptante no tuvo residencia en España en los dos últimos años, no será necesaria propuesta previa, pero el Cónsul recabará de las autoridades del lugar de residencia de aquél informes suficientes para valorar su idoneidad.

En la adopción constituida por la competente autoridad extranjera, la Ley del adoptando regirá en cuanto a capacidad y consentimientos necesarios.

Los consentimientos exigidos por tal Ley podrán prestarse ante una autoridad del país en que se inició la constitución o, posteriormente, ante cualquier otra autoridad competente. En su caso, para la adopción de un español será necesario el consentimiento de la entidad pública correspondiente a la última residencia del adoptando en España.

No será reconocida en España como adopción la constituida en el extranjero por adoptante español, si los efectos de aquélla

2) Bizilekua Espainian izan arren, adopzioaren bidez Espainiako naziokotasuna eskuratu ez duenean.

Adopzio-hartzaileak edo Fiskaltzak hala eskaturik, eta adopziogaiaren intereserako, epaileak agindu ditzake, orobat, adopzio-hartzailearen edo adopziogaiaren nazioko legeetan edo horren ohiko bizilekuari dagokion legean agindutako adostasun, entzunaldi nahiz baimenak.

Adopzioa eratzeko, Espainiako kontsulek eta epaileak eskumen berberak izango dituzte, baldin eta, adopzio-hartzailea espainiarra izanik, adopziogaiak kontsularen mugapean badu bere egoitza. Adopzio-hartzaileak azken bizilekua Espainian non izan eta toki horretako herri-erakundeak egin beharko du aurretiazko proposamena.

Azken bi urteetan adopzio-hartzaileak ez badu Espainian bizilekurik izan, ez da beharrezkoa izango aurretiazko proposamena; baina kontsulak adopzio-hartzailearen bizilekuko agintarien eskutik bilduko ditu adopzio-hartzaile horren egokitasuna balioesteko beste txostenak.

Adopziogaiaren legeak arautuko du agintari atzeritar eskudunak eratutako adopzioa, gaitasunari eta beharrezkoak diren adostasunei dagokienez.

Lege horretan agindutako adostasunak eman daitezke adopzioaren eraketa zein herritan hasi eta herri horretako agintaritzaren aurrean; edo, geroago, beste edozein agintaritzaren aurrean. Espainiar bat adoptatzeko, hala denean, nahitaezkoa izango da adopziogaiak Espainian azken bizilekua non izan eta bizileku horri dagokion herri-erakundearen adostasuna.

Espainian ez da adopzio gisa aitortuko adopzio-hartzaile espainiarrak atzerrian eraturikoa, baldin eta horren ondoreak ez

no se corresponden con los previstos por la legislación española.

Tampoco lo será, mientras la entidad pública competente no haya declarado la idoneidad del adoptante, si éste fuera español y estuviera domiciliado en España al tiempo de la adopción.

La atribución por la ley extranjera de un derecho de revocación de la adopción no impedirá el reconocimiento de ésta, si se renuncia a tal derecho en documento público o por comparecencia ante el encargado del Registro Civil.

6. La tutela y las demás instituciones de protección del incapaz se regularán por la Ley nacional de éste. Sin embargo, las medidas provisionales o urgentes de protección se regirán por la Ley de su residencia habitual.

Las formalidades de constitución de la tutela y demás instituciones de protección en que intervengan autoridades judiciales o administrativas españolas se sustanciarán, en todo caso, con arreglo a la ley española.

Será aplicable la ley española para tomar las medidas de carácter protector y educativo respecto de los menores o incapaces abandonados que se hallen en territorio español.

7. El derecho a la prestación de alimentos entre parientes habrá de regularse por la Ley nacional común del alimentista y del alimentante. No obstante se aplicará la Ley de la residencia habitual de la persona que los reclame cuando ésta no pueda obtenerlos de acuerdo con la Ley nacional común.

En defecto de ambas leyes, o cuando ninguna de ellas permita la obtención de alimentos, se aplicará la ley interna de la

badatoz bat Espainiako legerian ezarritakoekin.

Era berean, herri-erakunde eskudunak adopzio-hartzailearen egokitasuna adierazten ez duen bitartean, halakoa ez da adopzio moduan aitortuko, adopzio-hartzaile hori espainiarra bada eta horrek Espainian badu bere egoitza adopzio-unean.

Atzerriko legeak adopzioa ezeztatzeko eskubidea eratziki arren, eratzikipen horrek ez du eragotziko adopzioa aitortzea, baldin eta eskubide horri uko egiten bazaio agiri publikoaren bidez edo Erregistro Zibileko arduradunaren aurrean agerraldia eginez.

6. Ezgaiaren nazioko legeak arautuko ditu ezgaiaren tutoretza eta hura babesteko gainerako erakundeak. Hala ere, ezgaiaren ohiko bizilekuari dagokion legeak arautuko ditu behin-behineko edo presako babes-neurriak.

Espainiako agintari judizialek edo administrazio-agintariek esku hartzen badute tutoretza eta gainerako babes-erakundeak eratzeko formalitateetan, formalitate horiek Espainiako legearen arabera gauzatu beharko dira beti.

Espainiako legea aplikatuko da bertan behera utzitako adingabe edo ezgaien gainean babes- eta hezkuntza-neurriak hartzeko, baldin eta adingabeok edo ezgaituok Espainiako lurraldean badaude.

7. Mantenu-emailearen eta mantenu-hartzailearen nazioko lege erkideak arautuko du ahaideek elkarri mantenua emateko duten eskubidea. Edonola ere, mantenua eskatzen duen pertsonak ezin duenean mantenu hori lortu nazioko lege erkidearen arabera, pertsona horren ohiko bizilekuari dagokion legea aplikatuko da.

Bi lege horiek izan ezean, edo bietatik batek ere ez badu ahalbidetzen mantenua jasotzea, mantenuaren erreklamazioa zein

autoridad que conoce de la reclamación.

En caso de cambio de la nacionalidad común o de la residencia habitual del alimentista, la nueva ley se aplicará a partir del momento del cambio.

8. La sucesión por causa de muerte se regirá por la Ley nacional del causante en el momento de su fallecimiento, cualesquiera que sean la naturaleza de los bienes y el país dónde se encuentren.

Sin embargo, las disposiciones hechas en testamento y los pactos sucesorios ordenados conforme a la Ley nacional del testador o del disponente en el momento de su otorgamiento conservarán su validez, aunque sea otra la ley que rija la sucesión, si bien las legítimas se ajustarán, en su caso, a esta última.

Los derechos que por ministerio de la ley se atribuyan al cónyuge superviviente se regirán por la misma ley que regule los efectos del matrimonio, a salvo siempre las legítimas de los descendientes.

9. A los efectos de este capítulo, respecto de las situaciones de doble nacionalidad previstas en las leyes españolas se estará a lo que determinen los tratados internacionales, y, si nada estableciesen, será preferida la nacionalidad coincidente con la última residencia habitual y, en su defecto, la última adquirida.

Prevalecerá en todo caso la nacionalidad española del que ostente además otra no prevista en nuestras leyes o en los tratados internacionales. Si ostentare dos o más nacionalidades y ninguna de ellas fuera la española, se estará a lo que establece el

agintaritzaren eskumenekoa izan eta agintaritzaren horren barne legea aplikatuko da.

Naziokotasun erkidea aldatuz gero edo mantenu-hartzailearen ohiko bizilekua aldatuz gero, lege berria aplikatuko da aldaketa-UNETIK aurrera.

8. Kausatzaileak heriotza-unean zein naziokotasun izan eta naziokotasun horri dagokion legeak arautuko du heriotzaren ondoriozko oinordetza, ondasunen izaera zein den eta ondasunok zein herritan dauden kontuan hartu gabe.

Hala ere, testamentuan xedapenak egin eta oinordetza-itunak ordenatu badira, egilespen- unean testamentugilearen edo xedatzailearen nazioko legea zein izan eta lege horrekin bat etorri, orduan, xedapen eta itun horiek euren baliozkotasunari eutsiko diote, nahiz eta oinordetza arautzen duen legea beste bat izan; edozein kasutan ere, seniparteak azken horri egokituko zaizkio.

Ezkontzaren ondoreak zein legek arautu eta lege berberak arautuko ditu lege-aginduz alargunari eratzkitzen zaizkion eskubideak, betiere ondorengoen seniparteei kalterik egin gabe.

9. Kapitulu honen ondoretarako, Espainiako legeek jasotako naziokotasun bikoitzen egoerei dagokienez, nazioarteko itunek zehazturikoa bete beharko da; eta, itunok ez badute ezer ezarri, lehenespena izango du azken bizileku ohikoarekin bat datorren naziokotasunak, eta, halakorik izan ezean, eskuratutako azken naziokotasunak.

Espainiako naziokotasunaz gain, norbaitek beste naziokotasun bat badu, eta naziokotasun hori ez badago Espainiako legeetan edo nazioarteko itunetan jasota, Espainiakoak izango du lehentasuna beti. Bi naziokotasun edo gehiago izanik,

apartado siguiente.

10. Se considera como ley personal de los que carecieren de nacionalidad o la tuvieren indeterminada, la ley del lugar de su residencia habitual.

11. La ley personal correspondiente a las personas jurídicas es la determinada por su nacionalidad y regirá en todo lo relativo a capacidad, constitución, representación, funcionamiento, transformación, disolución y extinción.

En la fusión de sociedades de distinta nacionalidad se tendrán en cuenta las respectivas leyes personales.

Artículo 10

1. La posesión, la propiedad y los demás derechos sobre bienes inmuebles, así como su publicidad, se regirán por la ley del lugar donde se hallen.

La misma ley será aplicable a los bienes muebles.

A los efectos de la constitución o cesión de derechos sobre bienes en tránsito, éstos se considerarán situados en el lugar de su expedición, salvo que el remitente y el destinatario hayan convenido, expresa o tácitamente, que se consideren situados en el lugar de destino.

2. Los buques, las aeronaves y los medios de transporte por ferrocarril, así como todos los derechos que se constituyan sobre ellos, quedarán sometidos a la ley del lugar de su abanderamiento, matrícula o registro. Los automóviles y otros medios de transporte por carretera quedarán sometidos a la ley del lugar donde se hallen.

3. La emisión de los títulos-valores se atenderá a la ley del lugar en que se

horietatik bat ere ez bada Espainiakoa, hurrengo paragrafoan ezarritakoa bete beharko da.

10. Ohiko bizilekuari dagokion legea izango da naziokotasunik ez dutenen edo zehaztu gabeko naziokotasuna dutenen lege pertsonala.

11. Pertsona juridikoen naziokotasunak eratortzen du eurei dagokien lege pertsonala, eta horrexek arautuko ditu gaitasun, eraketa, ordezkaritza, jardunbide, transformazio, desegite eta azkentzeari dagozkien guztiak.

Naziokotasun desberdineko sozietateek bat egiten dutenean, kontuan izan beharko dira bakoitzari dagozkion lege pertsonalak.

10. artikulua

1. Ondasun higiezinaren gaineko edukitza, jabetza eta beste eskubideak, bai eta horien publizitatea ere, ondasunak non egon eta toki horretako legeak arautuko ditu.

Lege berbera aplikatuko zaie ondasun higigarriari.

Igarobide-ondasunen gaineko eskubideak eratu edo lagatzeari dagokionez, ondasunok nondik igorri eta bertan daudela ulertuko da, salbu eta igortzaileak eta jasotzaileak esanbidez edo isilbidez hitzartu dutenean ondasunok helmugan daudela ulertzea.

2. Ontziak, aireontziak eta burdinbideko garraioak, bai eta euren gain eraturako eskubide guztiak ere, zein tokitako banderapean jarri, matrikula hartu edo erregistroan inskribatu eta toki horretako legearen menpe geratuko dira. Automobilak nahiz errepideko beste garraioak non egon eta toki horretako legearen menpe geratuko dira.

3. Balore-tituluen jaulkipena non gertatu eta toki horretako legeari egokituko zaio

produzka.

4. Los derechos de propiedad intelectual e industrial se protegerán dentro del territorio español de acuerdo con la ley española, sin perjuicio de los establecido por los convenios y tratados internacionales en los que España sea parte.

5. Se aplicará a las obligaciones contractuales la ley a que las partes se hayan sometido expresamente, siempre que tenga alguna conexión con el negocio de que se trate; en su defecto, la ley nacional común a las partes; a falta de ella, la ley de residencia habitual común y, en último término, la ley del lugar de celebración del contrato.

No obstante lo dispuesto en el párrafo anterior, a falta de sometimiento expreso, se aplicará a los contratos relativos a bienes inmuebles la ley del lugar donde estén sitos, y a las compraventas de muebles corporales realizadas en establecimientos mercantiles, la ley del lugar en que éstos radiquen.

6. A las obligaciones derivadas del contrato de trabajo, en defecto de sometimiento expreso de las partes y sin perjuicio de lo dispuesto en el apartado 1 del artículo 8, les será de aplicación la ley del lugar donde se presten los servicios.

7. Las donaciones se registrarán, en todo caso, por la ley nacional del donante.

8. Serán válidos, a efectos del ordenamiento jurídico español, los contratos onerosos celebrados en España por extranjero incapaz según su ley nacional, si la causa de la incapacidad no estuviere reconocida en la legislación española. Esta regla no se aplicará a los

jaulkipen hori.

4. Espainiako lurraldearen barruan, Espainiako legearen arabera babestuko dira jabetza intelektualaren eta industria-jabetzaren eskubideak, nazioarteko hitzarmenetan eta itunetan ezarritakoari kalterik egin gabe, Espainia hitzarmen eta itun horien kide den heinean.

5. Kontratu-betebeharrei alderdiek beren beregi aukeraturiko legea aplikatuko zaie, lege horrek zerikusia baldin badu kasuan kasuko negozioarekin; hori gertatu ezean, alderdien nazioko lege erkidea aplikatuko da; lege erkiderik izan ezean, ohiko bizileku erkideari dagokion legea; eta, azken buruan, kontratua non egin eta toki horretako legea.

Aurreko lerrokadan xedatutakoa gorabehera, eta alderdiek beren beregi legerik aukeratu ezean, ondasun higiezinaren gaineko kontratuei aplikatuko zaie ondasunok non egon eta toki horretako legea; ondasun higigarri gorpuzdunen salerosketak merkataritzako establezimenduetan egiten badira, salerosketa horiei aplikatuko zaie establezimenduak non egon eta toki horretako legea.

6. Alderdiek beren beregi legerik aukeratu ezean, eta 8. artikuluan 1. paragrafoan xedaturikoari kalterik egin gabe, lan-kontratuak eratorritako betebeharrei aplikatuko zaie zerbitzuak non egin eta toki horretako legea.

7. Dohaintza-emailearen nazioko legeak arautuko ditu beti dohaintzak.

8. Espainiako antolamendu juridikoaren ondoretarako, Espainian kostu bidezko kontratuak egiten baditu bere nazioko legearen arabera ezgaia den atzerritarrak, kontratuok baliozkoak izango dira, ezgaitasun-arrazoi hori ez dagoenean Espainiako legerian aitortuta. Erregela hori

contratos relativos a inmuebles situados en el extranjero.

9. Las obligaciones no contractuales se regirán por la ley del lugar donde hubiere ocurrido el hecho de que deriven.

La gestión de negocios se regulará por la ley del lugar donde el gestor realice la principal actividad.

En el enriquecimiento sin causa se aplicará la ley en virtud de la cual se produjo la transferencia del valor patrimonial en favor del enriquecido.

10. La ley reguladora de una obligación se extiende a los requisitos del cumplimiento y a las consecuencias del incumplimiento, así como a su extinción.

Sin embargo, se aplicará la ley del lugar de cumplimiento a las modalidades de ejecución que requieran intervención judicial o administrativa.

11. A la representación legal se aplicará la ley reguladora de la relación jurídica de la que nacen las facultades del representante, y a la voluntaria, de no mediar sometimiento expreso, la ley del país en donde se ejerciten las facultades conferidas.

Artículo 11

1. Las formas y solemnidades de los contratos, testamentos y demás actos jurídicos se regirán por la ley del país en que se otorguen. No obstante, serán también válidos los celebrados con las formas y solemnidades exigidas por la ley aplicable a su contenido, así como los celebrados conforme a la ley personal del disponente o la común de los otorgantes. Igualmente serán válidos los actos y contratos relativos a bienes inmuebles

ez da aplikatuko atzerrian dauden ondasun higiezinei buruzko kontratuetan.

9. Egitate batek kontratutik kanpoko betebeharrak eratortzen baditu, egitate hori non gertatu eta toki horretako legeak arautuko ditu halako betebeharrak.

Kudeatzaileak jarduera nagusia non gauzatu eta toki horretako legeak arautuko du negozioen kudeaketa.

Arrazoirik gabeko aberasteari aplikatuko zaio aberastuari ondare-balioa transferitzea eragin duen legea.

10. Betebeharra arautzen duen legea hedatzen zaie betetzearen betekizunei, ez betetzearen ondorioei, bai eta betebeharraren azkentzeari ere.

Dena den, epailearen edo Administrazioaren esku-hartzea behar duten betearazpen-modalitateei aplikatuko zaie betetzea non gertatu eta toki horretako legea.

11. Legezko ordezkariari aplikatuko zaio ordezkariaren ahalmenak zein harreman juridikotatik sortu eta harreman horiek arautzen dituen legea; alderdiek beren beregi legerik aukeratu ezean, borondatezko ordezkariari aplikatuko zaio emandako ahalmenak zein herritan egikaritu eta herri horretako legea.

11. artikulua

1. Kontratuak, testamentuak eta gainerako egintza juridikoak zein herritan egin eta herri horretako legeak arautuko ditu haien forma eta solemnitateak. Hala ere, horrelakoak egin badira euren edukiari aplikatu beharreko legeak agindutako forma eta solemnitateekin, edota xedatzailearen lege pertsonalarekin nahiz egileen lege erkidearekin bat, orduan ere baliozkoak izango dira. Era berean, ondasun higiezinen gaineko egintza eta

otorgados con arreglo a las formas y solemnidades del lugar en que éstos radiquen.

Si tales actos fueren otorgados a bordo de buques o aeronaves durante su navegación, se entenderán celebrados en el país de su abanderamiento, matrícula o registro. Los navíos y las aeronaves militares se consideran como parte del territorio del Estado al que pertenezcan.

2. Si la ley reguladora del contenido de los actos y contratos exigiere para su validez una determinada forma o solemnidad, será siempre aplicada, incluso en el caso de otorgarse aquéllos en el extranjero.

3. Será de aplicación la ley española a los contratos, testamentos y demás actos jurídicos autorizados por funcionarios diplomáticos o consulares de España en el extranjero.

Artículo 12

1. La calificación para determinar la norma de conflicto aplicable se hará siempre con arreglo a la ley española.

2. La remisión al derecho extranjero se entenderá hecha a su ley material, sin tener en cuenta el reenvío que sus normas de conflicto puedan hacer a otra ley que no sea la española.

3. En ningún caso tendrá aplicación la ley extranjera cuando resulte contraria al orden público.

4. Se considerará como fraude de ley la utilización de una norma de conflicto con el fin de eludir una ley imperativa española.

5. Cuando una norma de conflicto remita a la legislación de un Estado en el que coexistan diferentes sistemas legislativos,

kontratuak baliozkoak izango dira, horiek egin badira ondasunok non egon eta toki horretako forma eta solemnitateen arabera.

Egintzok ontziaren edo aireontziaren barruan egin badira hori nabigatzen ari den artean, ulertuko da ontzia zein herritako banderapean jarri, matrikula hartu edo erregistroan inskribatu eta egintzok herri horretan egin direla. Ontzi eta aireontzi militarrek euren estatuko lurraldearen zatitzat hartzen dira.

2. Legeak, egintza eta kontratuen edukia arautzean, forma edo solemnitate zehatz bat ezartzen badu haien baliozkoak izan daitezkeen, forma edo solemnitate hori beti aplikatuko da, baita egintza eta kontratuok atzerrian egin direnean ere.

3. Espainiako legea aplikatuko zaie kontratuei, testamentuei eta gainerako egintza juridikoei, baldin eta halakoak eskuetsi badituzte Espainiak atzerrian dituen diplomazia eta kontsulatueta funtzionarioek.

12. artikulua

1. Espainiako legearen arabera egingo da beti gatazka-arau aplikagarria zehazteko kalifikazioa.

2. Atzerriko zuzenbidera igorpena egiten denean, igorpen hori atzerriko lege materialera egin dela ulertuko da, eta ez da kontuan hartuko atzerriko zuzenbidearen gatazka-arauak Espainiakoaz besteko legeetara egin dezaketenean igorpena.

3. Atzerriko legea ez da inoiz aplikagarria izango ordena publikoaren aurkakoa denean.

4. Lege-maulatzat hartuko da gatazka-araua erabiltzea Espainiako aginduzko lege bati itzuri egiteko.

5. Gatazka-arauak igorpena egiten duenean sistema legegile desberdinak dituen estatu bateko legeriara, estatu

la determinación del que sea aplicable entre ellos se hará conforme a la legislación de dicho Estado.

6. Los Tribunales y autoridades aplicarán de oficio las normas de conflicto del derecho español.

CAPÍTULO V Ámbito de aplicación de los regímenes jurídicos civiles coexistentes en el territorio nacional

Artículo 13

1. Las disposiciones de este título preliminar, en cuanto determinan los efectos de las leyes y las reglas generales para su aplicación, así como las del título IV del libro I, con excepción de las normas de este último relativas al régimen económico matrimonial, tendrán aplicación general y directa en toda España.

2. En lo demás, y con pleno respeto a los derechos especiales o forales de las provincias o territorios en que están vigentes, regirá el Código Civil como derecho supletorio, en defecto del que lo sea en cada una de aquéllas, según sus normas especiales.

Artículo 14

1. La sujeción al derecho civil común o al especial o foral se determina por la vecindad civil.

2. Tienen vecindad civil en territorio de derecho común, o en uno de los de derecho especial o foral, los nacidos de padres que tengan tal vecindad.

Por la adopción, el adoptado no emancipado adquiere la vecindad civil de los adoptantes.

3. Si al nacer el hijo, o al ser adoptado, los padres tuvieren distinta vecindad civil, el hijo tendrá la que corresponda a aquél de

horretako legeriarekin bat etorri zehaztuko da sistema horietatik zein aplikatu behar den.

6. Auzitegi eta agintariak ofizios aplikatuko dituzte Espainiako zuzenbidearen gatazka-arauak.

V. KAPITULUA Nazioko lurraldean aldi berean indarrean dauden araubide zibilen aplikazio-eremua

13. artikulua

1. Espainian aplikazio orokor eta zuzenkoa izango dute atariko titulu honen xedapenek, legeen ondoreak eta legeen aplikaziorako erregela orokorrak zehazten dituzten neurrian, bai eta 1. liburuaren IV. tituluko xedapenek ere, azken titulu horretan ezkontzaren ondasun-eraentzari buruzkoak direnek izan ezik.

2. Gainerakoan, eta probintzietan nahiz lurraldeetan indarrean dauden zuzenbide bereziak edo foru-zuzenbideak oso-osorik errespetatuz, Kode Zibila ordeztu zuzenbide moduan aplikatuko da, baldin eta ez badago probintzia nahiz lurralde horietako arau berezien arabera aplikatu beharreko ordeztu zuzenbiderik.

14. artikulua

1. Auzotartasun zibilak eratortzen du zuzenbide zibil erkidearen edo zuzenbide bereziaren nahiz foru-zuzenbidearen menpe egotea.

2. Jaiotakoek auzotartasun zibila izango dute zuzenbide erkideko lurraldean edo zuzenbide bereziko nahiz foru-zuzenbideko lurraldean, gurasoen auzotartasuna ere bertakoa bada.

Adopzioaren bidez, adopzio-hartzaileen auzotartasun zibila eskuratzen du adoptatu emantzipatugabeak.

3. Semea edo alaba jaio edo adoptatzean, gurasoek auzotartasun zibil desberdina badute, semearen edo alabaren

los dos respecto del cual la filiación haya sido determinada antes; en su defecto, tendrá la del lugar del nacimiento y, en último término, la vecindad de derecho común.

Sin embargo, los padres, o el que de ellos ejerza o le haya sido atribuida la patria potestad, podrán atribuir al hijo la vecindad civil de cualquiera de ellos en tanto no transcurran los seis meses siguientes al nacimiento o a la adopción.

La privación o suspensión en el ejercicio de la patria potestad, o el cambio de vecindad de los padres, no afectarán a la vecindad civil de los hijos.

En todo caso el hijo desde que cumpla catorce años y hasta que transcurra un año después de su emancipación podrá optar bien por la vecindad civil del lugar de su nacimiento, bien por la última vecindad de cualquiera de sus padres. Si no estuviera emancipado, habrá de ser asistido en la opción por el representante legal.

4. El matrimonio no altera la vecindad civil. No obstante, cualquiera de los cónyuges no separados, ya sea legalmente o de hecho, podrá, en todo momento, optar por la vecindad civil del otro.

5. La vecindad civil se adquiere:

1) Por residencia continuada durante dos años, siempre que el interesado manifieste ser esa su voluntad.

2) Por residencia continuada de diez años, sin declaración en contrario durante este plazo.

Ambas declaraciones se harán constar en

auzotartasuna izango da horren semealabatasuna lehenengoz bi gurasoetatik zeini begira zehaztu eta guraso horri dagokiona; halakorik izan ezean, jaiotza- tokiari dagokiona; eta, azken buruan, zuzenbide erkideko auzotartasuna.

Hala ere, bi gurasoek, bietatik guraso-ahala egikaritzen duenak edo eratzikipenaren bidez ahal hori jaso duenak, semeari edo alabari ezar diezaioke bataren edo bestearen auzotartasun zibila, baldin eta ez badira sei hilabete igaro jaiotza edo adopzioa gertatu denetik.

Guraso-ahalaren egikaritza kendu nahiz eteteak edo gurasoen auzotartasuna aldatzeak ez du eraginik seme-alaben auzotartasun zibilaren gain.

Edonola ere, semeak edo alabak, hamalau urte betetzen dituenetik emantzipazioaren osteko urtea igaro arte, aukeratu ahal du, bai bere jaiotzatokiari dagokion auzotartasun zibila, bai bere gurasoetatik edozeinen azkeneko auzotartasuna. Semea edo alaba ez badago emantzipaturik, legezko ordezkariaren laguntza beharko du aukera egitean.

4. Ezkontzak ez du aldatzen auzotartasun zibila. Hala ere, legez edo egitez bananduta ez dagoen ezkontideak beste ezkontidearen auzotartasun zibila aukera dezake edozein unetan.

5. Auzotartasun zibila eskuratzen da:

1) Jarraika eta bi urtetan zehar, toki batean bizilekua izatearekin, baldin eta interesdunak adierazten badu bere borondatea hori dela.

2) Jarraika eta hamar urtetan zehar, toki batean bizilekua izatearekin, epe horretan aurkako adierazpenik egin gabe.

Bi adierazpenok Erregistro Zibilean

el Registro Civil y no necesitan ser reiteradas.

6. En caso de duda prevalecerá la vecindad civil que corresponda al lugar de nacimiento.

Artículo 15

1. El extranjero que adquiera la nacionalidad española deberá optar, al inscribir la adquisición de la nacionalidad, por cualquiera de las vecindades siguientes:

- a) La correspondiente al lugar de residencia.
- b) La del lugar del nacimiento.
- c) La última vecindad de cualquiera de sus progenitores o adoptantes.
- d) La del cónyuge.

Esta declaración de opción se formulará, atendiendo a la capacidad del interesado para adquirir la nacionalidad, por el propio optante, por sí o asistido de su representante legal, o por este último.

Cuando la adquisición de la nacionalidad se haga por declaración o a petición del representante legal, la autorización necesaria deberá determinar la vecindad civil por la que se ha de optar.

2. El extranjero que adquiera la nacionalidad por carta de naturaleza tendrá la vecindad civil que el Real Decreto de concesión determine, teniendo en cuenta la opción de aquél, de acuerdo con lo que dispone el apartado anterior u otras circunstancias que concurran en el peticionario.

3. La recuperación de la nacionalidad española lleva consigo la de aquella

agerrarazi behar dira, eta ez dira errepikatu behar.

6. Zalantzak izanez gero, lehentasuna izango du jaiotza-tokiari dagokion auzotartasunak.

15. artikulua

1. Atzerritarrak Espainiako naziokotasuna eskuratzen badu, hurrengo auzotartasunetatik bat aukeratu beharko du naziokotasun horren eskuraketa inskribatzean:

- a) Bizilekuaren tokiari dagokiona.
- b) Jaiotza-tokikoa.
- c) Guraso edo adopzio-hartzaileetatik edozeinen azkeneko auzotartasuna.
- d) Ezkontidearena.

Interesdunak naziokotasuna eskuratzeko duen gaitasuna kontuan harturik, aukeraren inguruko adierazpen hori egin dezake, bai aukeratzailleak, bere kabuz edo bere legezko ordezkariaren laguntzarekin, bai azken horrek bakarrik.

Naziokotasuna eskuratzen denean adierazpenaren bidez edo legezko ordezkariak egindako eskariaren bidez, horretarako beharrezkoa den baimenak zehaztuko du zein den aukeratu beharreko auzotartasun zibila.

2. Atzerritarrak herritartze-agiriaren bidez eskuratzen badu naziokotasuna, naziokotasuna emateko errege-dekretuak zein auzotartasun zibil zehaztu eta auzotartasun zibil hori izango du atzerritarrak; auzotartasun hori zehazteko kontuan hartuko da atzerritarrak berak eginiko aukera, aurreko paragrafoan xedatutakoaren arabera edo eskaera egiten duenarengan diren beste inguruabar batzuen arabera.

3. Espainiako naziokotasuna berreskuratzeak berarekin dakar

vecindad civil que ostentara el interesado al tiempo de su pérdida.

4. La dependencia personal respecto a una comarca o localidad con especialidad civil propia o distinta, dentro de la legislación especial o foral del territorio correspondiente, se regirá por las disposiciones de este artículo y las del anterior.

Artículo 16

1. Los conflictos de leyes que puedan surgir por la coexistencia de distintas legislaciones civiles en el territorio nacional se resolverán según las normas contenidas en el capítulo IV con las siguientes particularidades:

- 1) Será ley personal la determinada por la vecindad civil.
- 2) No será aplicable lo dispuesto en los apartados 1, 2 y 3 del artículo 12 sobre calificación, remisión y orden público.

2. El derecho de viudedad regulado en la Compilación aragonesa corresponde a los cónyuges sometidos al régimen económico matrimonial de dicha Compilación, aunque después cambie su vecindad civil, con exclusión en este caso de la legítima que establezca la ley sucesoria.

El derecho expectante de viudedad no podrá oponerse al adquirente a título oneroso y de buena fe de los bienes que no radiquen en territorio donde se reconozca tal derecho, si el contrato se hubiera celebrado fuera de dicho territorio, sin haber hecho constar el régimen económico matrimonial del transmitente.

El usufructo viudal corresponde también al

interesdunak naziokotasuna galtzean zuen auzotartasun zibila berreskuratzea.

4. Kasuan kasuko lurraldeak legeria berezia edo foru-legeria badu, eta, legeria horren barruan, lurralde horretako eskualde edo herri batek espezialitate zibil berezkoa edo berezia baldin badu, artikuluko honetako eta aurreko artikuluko xedapenek arautuko dute eskualde edo toki horrekiko mendetasun pertsonala.

16. artikulua

1. Nazioko lurraldean legeria zibil desberdinak izateagatik lege-gatazkak sortzen badira, gatazka horiek IV. kapituluan jasotako arauekin bat etorritik konponduko dira, hurrengo ñabardurekin:

- 1) Auzotartasun zibilak eratorritiko du lege pertsonala.
- 2) Ez da aplikagarria izango kalifikazio, igorpen eta ordena publikoari buruz 12. artikulua 1, 2 eta 3. paragrafoetan xedatutakoa.

2. Aragoiko Konpilazioan araututako alarguntasun-eskubidea dagokie nortzuei eta konpilazio horretako ezkontzaren ondasun-eraentza duten ezkontideei, nahiz eta gerogarrenean euren auzotartasun zibila aldatu; dena den, kasu horretan, bazter utzi behar da oinordetza-legeak ezarritako senipartea.

Norbaitek, onustez eta kostu bidez, ondasunak eskuratzen baditu, eta ondasun horiek ez badaude kokaturik alarguntasunaren ondoriozko eskubide-igurikimena aitortzen den lurraldean, eskubide hori ezin izango da eskuratzailaren aurka jarri, kontratua lurralde horretatik kanpo egin denean, eskualdatzailaren ezkontzako ondasun-eraentza zein den agerrarazi gabe.

Alargunak, halaber, alarguntasun-

cónyuge superviviente cuando el premuerto tuviese vecindad civil aragonesa en el momento de su muerte.

3. Los efectos del matrimonio entre españoles se regularán por la ley española que resulte aplicable según los criterios del artículo 9 y, en su defecto, por el Código civil.

En este último caso se aplicará el régimen de separación de bienes del Código Civil si conforme a una y otra ley personal de los contrayentes hubiera de regir un sistema de separación.

LIBRO I DE LAS PERSONAS

TÍTULO I DE LOS ESPAÑOLES Y EXTRANJEROS

Artículo 17

1. Son españoles de origen:

a) Los nacidos de padre o madre españoles.

b) Los nacidos en España de padres extranjeros si, al menos, uno de ellos hubiera nacido también en España. Se exceptúan los hijos de funcionario diplomático o consular acreditado en España.

c) Los nacidos en España de padres extranjeros, si ambos carecieren de nacionalidad o si la legislación de ninguno de ellos atribuye al hijo una nacionalidad.

d) Los nacidos en España cuya filiación no resulte determinada. A estos efectos, se presumen nacidos en territorio español los menores de edad cuyo primer lugar conocido de estancia sea territorio español.

2. La filiación o el nacimiento en España, cuya determinación se produzca después

gozamina izango du, aurrez hildakoak Aragoiko auzotartasun zibila duenean bere heriotza-unean.

3. Bederatzigarren artikuluko irizpideen arabera, eta, halakorik izan ezean, Kode Zibilaren arabera, Espainiako legeen artean aplikagarria zein izan eta lege horrek arautuko ditu espainiarren arteko ezkontzak dituen ondoreak.

Azken kasu horretan, Kode Zibilak ondasunen banantze-erantzari buruz araututakoa aplikatuko da, baldin eta, ezkongaien lege pertsonalekin bat etorriz, banantze-sistemak eraendu behar badu ezkontza hori.

I. LIBURUA PERTSONAK

I. TITULUA ESPAINIARRAK ETA ATZERRITARRAK

17. artikulua

1. Jatorrizko espainiarrak dira:

a) Aita edo ama espainiarrarengandik jaiotakoak.

b) Espainian jaio baina guraso atzerritarrak dituztenak, baldin eta gurasoetatik bat, behintzat, Espainian jaio bada. Salbuespen gisa har daitezke Espainian egiazaturiko diplomazia eta kontsulatu-tako funtzionarioen seme-alabak.

c) Espainian jaio baina guraso atzerritarrak dituztenak, baldin eta bi gurasook naziootasunik ez badute, edo bataren nahiz bestearen legeriek ez badiote seme-ari edo alabari naziootasunik eratzkitzen.

d) Espainian jaio baina seme-alabatasuna zehaztu gabe dutenak. Ondore horietarako, adingabeen lehenengo egonaldi ezaguna Espainiako lurraldean izan bada, adingabe horiek Espainiako lurraldean jaio direla uste da.

2. Espainian izandako jaiotza edo seme-alabatasuna zehaztu bada hemezortzi urte

de los dieciocho años de edad, no son por sí solos causa de adquisición de la nacionalidad española.

El interesado tiene entonces derecho a optar por la nacionalidad española de origen en el plazo de dos años a contar desde aquella determinación.

Artículo 18

La posesión y utilización continuada de la nacionalidad española durante diez años, con buena fe y basada en un título inscrito en el Registro Civil, es causa de consolidación de la nacionalidad, aunque se anule el título que la originó.

Artículo 19

1. El extranjero menor de dieciocho años adoptado por un español adquiere, desde la adopción, la nacionalidad española de origen.

2. Si el adoptado es mayor de dieciocho años, podrá optar por la nacionalidad española de origen en el plazo de dos años a partir de la constitución de la adopción.

Artículo 20

1. Tienen derecho a optar por la nacionalidad española:

a) Las personas que estén o hayan estado sujetas a la patria potestad de un español.
b) Aquellos cuyo padre o madre hubiera sido originariamente español y nacido en España.

c) Las que se hallen comprendidas en el último apartado de los artículos 17 y 19.

2. La declaración de opción se formulará:

a) Por el representante legal del optante, menor de catorce años o incapacitado. En este caso, la opción requiere autorización

Las resoluciones dictadas por los Tribunales eclesiásticos sobre nulidad de matrimonio canónico o las decisiones pontificias sobre matrimonio rato y no consumado tendrán eficacia en el orden civil, a solicitud de cualquiera de las partes, si se declaran ajustados al Derecho del Estado en resolución dictada por el Juez civil competente conforme a las condiciones a las que se refiere el artículo 954 de la Ley de Enjuiciamiento Civil.

CAPÍTULO VII De la separación

Artículo 81

Se decretará judicialmente la separación, cualquiera que sea la forma de celebración del matrimonio:

1.º A petición de ambos cónyuges o de uno con el consentimiento del otro, una vez transcurridos tres meses desde la celebración del matrimonio.

A la demanda se acompañará una propuesta de convenio regulador redactada conforme al artículo 90 de este Código.

2.º A petición de uno solo de los cónyuges, una vez transcurridos tres meses desde la celebración del matrimonio. No será preciso el transcurso de este plazo para la interposición de la demanda cuando se acredite la existencia de un riesgo para la vida, la integridad física, la libertad, la integridad moral o libertad e indemnidad sexual del cónyuge demandante o de los hijos de ambos o de cualquiera de los miembros del matrimonio.

A la demanda se acompañará propuesta fundada de las medidas que hayan de

Onustea badela uste da.

80. artikulua

Alderdietatik edozeinek hala eskatuz gero, ordena zibilean eragingarriak izango dira Elizaren auzitegiek ezkontza kanonikoaren deuseztasunari buruz emandako ebazpenak, edo ezkontza rato eta gauzatugabeari buruzko erabaki pontifizioak, baldin eta, Prozedura Zibilar buruzko Legearen 954. artikuluan aipaturiko baldintzekin bat etorritz, epaile zibil eskudunak ebazpena ematen badu, eta ebazpen horretan adierazten bada halako ebazpen nahiz erabakiak estatuaren zuzenbidearen araberrakoak direla.

VII. KAPITULUA Banantzea

81. artikulua

Banantzea epaiketaren bidez dekretatuko da, ezkontza egiteko forma edozein izanda ere:

1) Bi ezkontideek batera, edo, batek bakarrik, bestearen adostasunarekin, hori eskatzen badu, ezkontza egin denetik hiru hilabete igaro eta gero.

Demandarekin batera, hitzarmen arauemaileari buruzko proposamena aurkeztu beharko da, kode honen 90. artikuluaaren arabera idatzita.

2) Ezkontide batek bakarrik hori eskatzen badu, ezkontza egin denetik hiru hilabete igaro eta gero. Demanda jartzeko ez da beharrezkoa izango epe hori igarotzea, egiaztatzen bada arriskua dagoela ezkontide demandatzailearen, bi-bion seme-alaben edo ezkontza horretako kideetatik edozeinen bizitza, osotasun fisiko, askatasun, osotasun moral edo sexu-ukigabetasunarentzat.

Demandarekin batera, neurriei buruzko proposamen oinarriiduna aurkeztu beharko

regular los efectos derivados de la separación.

Artículo 82

Sin contenido.

Artículo 83

La sentencia de separación produce la suspensión de la vida común de los casados, y cesa la posibilidad de vincular bienes del otro cónyuge en el ejercicio de la potestad doméstica.

Artículo 84

La reconciliación pone término al procedimiento de separación y deja sin efecto ulterior lo resuelto en él, pero ambos cónyuges separadamente deberán ponerlo en conocimiento del Juez que entienda o haya entendido en el litigio.

Ello no obstante, mediante resolución judicial, serán mantenidas o modificadas las medidas adoptadas en relación a los hijos, cuando exista causa que lo justifique.

CAPÍTULO VIII De la disolución del matrimonio

Artículo 85

El matrimonio se disuelve, sea cual fuere la forma y el tiempo de su celebración, por la muerte o la declaración de fallecimiento de uno de los cónyuges y por el divorcio.

Artículo 86

Se decretará judicialmente el divorcio, cualquiera que sea la forma de celebración del matrimonio, a petición de uno solo de los cónyuges, de ambos o de uno con el consentimiento del otro, cuando concurren los requisitos y circunstancias exigidos en el artículo 81.

Artículo 87

da, neurri horiek arau ditzaten banantzeak eratorzen dituen ondoreak.

82. artikulua

Edukirik gabe.

83. artikulua

Banantze-epaiak ezkontideen arteko elkarbizitza etetea dakar, eta horrekin amaitu egiten da etxeko ahala egikaritzean ezkontide batek bestearen ondasunak lotzeko duen aukera.

84. artikulua

Berradiskidetzeak amaiera ematen dio banantze-prozedurari, eta gerogarreneko ondorerik gabe uzten du prozedura horretan erabakitakoa; baina bi ezkontideek, bakoitza bere aldetik, berradiskidetze horren berri eman beharko diote auzia erabakitzen ari den edo erabaki duen epaileari.

Hori gorabehera, epaileak emandako ebazpenaren bidez, seme-alabei begira hartutako neurriak iraunaraz edo aldaraz daitezke, hori egitea justifikatzen duen arrazoia dagoenean.

VIII. KAPITULUA Ezkontza desagitea

85. artikulua

Ezkontza egiteko forma eta garaia edozein izanda ere, ezkontza desagiten da, ezkontide baten heriotza edo heriotza-adierazpenaren ondorioz, eta dibortzioaren ondorioz.

86. artikulua

Dibortzioa epaiketa bidez dekretatuko da, ezkontzaren forma edozein izanik ere, hori eskatzen badu ezkontide batek bakarrik, bi ezkontideek edo batek bestearen adostasunarekin, 81. artikuluan ezarritako betekizun eta inguruabarrak gertatuta.

87. artikulua

Sin contenido.

Artículo 88

La acción de divorcio se extingue por la muerte de cualquiera de los cónyuges y por su reconciliación, que deberá ser expresa cuando se produzca después de interpuesta la demanda.

La reconciliación posterior al divorcio no produce efectos legales, si bien los divorciados podrán contraer entre sí nuevo matrimonio.

Artículo 89

La disolución del matrimonio por divorcio sólo podrá tener lugar por sentencia que así lo declare y producirá efectos a partir de su firmeza. No perjudicará a terceros de buena fe sino a partir de su inscripción en el Registro Civil.

CAPÍTULO IX De los efectos comunes a la nulidad, separación y divorcio

Artículo 90

El convenio regulador a que se refieren los artículos 81 y 86 de este Código deberá contener, al menos, los siguientes extremos:

a) El cuidado de los hijos sujetos a la patria potestad de ambos, el ejercicio de ésta y, en su caso, el régimen de comunicación y estancia de los hijos con el progenitor que no viva habitualmente con ellos.

B) Si se considera necesario, el régimen de visitas y comunicación de los nietos con sus abuelos, teniendo en cuenta, siempre, el interés de aquéllos.

C) La atribución del uso de la vivienda y ajuar familiar.

Edukirik gabe.

88. artikulua

Dibortzio-akzioa azkentzen da, ezkontideetatik edozein hiltzeagatik edo ezkontideak berradiskidetzeagatik; berradiskidetze hori esanbidezkoa izan behar da, demanda jarri ondoren gertatzen bada.

Dibortzioaren osteko berradiskidetzeak ez du legezko ondorerik sortzen, baina dibortziatuak elkarrekin ezkon daitezke berriro.

89. artikulua

Ezkontza dibortzioaren bidez desegingo da, hori adierazten duen epaia ematen denean bakarrik, eta dibortzio horrek ondoreak sortuko ditu epaia irmoa den unetik. Dibortzioak ez die hirugarren onustedunei kalterik egingo, Erregistro Zibilean inskribatu arte.

IX. KAPITULUA Deuseztasunak, banantzeak eta dibortzioak sortzen dituzten ondore berberak

90. artikulua

Kode honen 81 eta 86. artikuluetan aipaturiko hitzarmen arau-emaileak barnean hartu behar ditu, gutxienez, hurrengo kontuak:

a) Bi gurasoen ahalpeko seme-alaben zaintza eta zaintza hori egikaritzako modua zehaztu behar dira, eta, hala denean, seme-alabekin bizi ohi den ezkontideaz bestekoak zein araubide bete behar duen seme-alabekin harremanak izan eta eurekin egoteko.

B) Beharrezkotzat joz gero, aitona-amonek euren lobak bisitatzeko eta eurokin komunikatzeko araubidea ezarriko da, betiere loben interesa kontuan hartuta.

C) Familiaren etxebizitza eta ostilamenduaren erabilera eratxiki behar da.

D) La contribución a las cargas del matrimonio y alimentos, así como sus bases de actualización y garantías en su caso.

E) La liquidación, cuando proceda, del régimen económico del matrimonio.

F) La pensión que conforme al artículo 97 correspondiere satisfacer, en su caso, a uno de los cónyuges.

Los acuerdos de los cónyuges, adoptados para regular las consecuencias de la nulidad, separación o divorcio serán aprobados por el Juez, salvo si son dañosos para los hijos o gravemente perjudiciales para uno de los cónyuges. Si las partes proponen un régimen de visitas y comunicación de los nietos con los abuelos, el juez podrá aprobarlo previa audiencia de los abuelos en la que éstos presten su consentimiento. La denegación de los acuerdos habrá de hacerse mediante resolución motivada y en este caso los cónyuges deben someter a la consideración del juez nueva propuesta para su aprobación, si procede. Desde la aprobación judicial, podrán hacerse efectivos por la vía de apremio.

Las medidas que el Juez adopte en defecto de acuerdo, o las convenidas por los cónyuges, podrán ser modificadas judicialmente o por nuevo convenio cuando se alteren sustancialmente las circunstancias.

El Juez podrá establecer las garantías reales o personales que requiera el cumplimiento del convenio.

Artículo 91

En las sentencias de nulidad, separación o divorcio, o en ejecución de las mismas, el Juez, en defecto de acuerdo de los

D) Ezkontzaren zametan eta mantenuan izan beharreko partaidetza zehaztu behar da, eta, era berean, partaidetza horiek eguneratzeko oinarriak eta euron bermeak finkatu behar dira, hala denean.

E) Ezkontzaren ondasun-eraentza likidatu behar da, hori bidezkoa denean.

F) Hala denean, ezkontide batek 97. artikuluekin bat etorri ordaindu behar duen pentsioa zehaztu behar da.

Ezkontideek akordioak egin badituzte deuseztasun, banantze edo dibortzioaren ondorioak arautzeko, epaileak akordio horiek onetsiko ditu, salbu eta seme-alabentzat kaltegarri direnean edo ezkontide batentzat kalte astunak dakartzatenean. Alderdiek araubide bat proposatzen badute aitona-amonek euren lobak bisita eta eurokin komunika daitezten, epaileak araubide hori onetsi ahal izango du, aurretiaz aitona-amonei entzun eta horiek adostasuna emanaz gero. Akordioei ezezkoa emateko, epaileak ebazpen zioduna eman behar du, eta, kasu horretan, ezkontideek beste proposamen bat aurkeztu behar diote epaileari, horrek onetsi dezan, bidezkoa izanez gero. Epaileak akordioak onesten dituenetik, akordio horiek premiamendu-bidean betearaz daitezke.

Epaiketa bidez edo beste hitzarmen baten bidez aldaraz daitezke ezkontideen arteko hitzarmenik izan ezean epaileak hartutako neurriak edo ezkontideek eurek hitzartutakoak, inguruabarretan aldaketa garrantzitsuak gertatu direnean.

Epaileak ezar ditzake hitzarmena betetzeko beharrezkoak diren berme erreal nahiz pertsonalak.

91. artikulua

Deuseztasun, banantze nahiz dibortzioari buruzko epaietan, edo horiek betearaztean, ez badago ezkontideen arteko akordiorik

cónyuges o en caso de no aprobación del mismo, determinará conforme a lo establecido en los artículos siguientes las medidas que hayan de sustituir a las ya adoptadas con anterioridad en relación con los hijos, la vivienda familiar, las cargas del matrimonio, liquidación del régimen económico y las cautelas o garantías respectivas, estableciendo las que procedan si para alguno de estos conceptos no se hubiera adoptado ninguna. Estas medidas podrán ser modificadas cuando se alteren sustancialmente las circunstancias.

Artículo 92

1. La separación, la nulidad y el divorcio no eximen a los padres de sus obligaciones para con los hijos.

2. El Juez, cuando deba adoptar cualquier medida sobre la custodia, el cuidado y la educación de los hijos menores, velará por el cumplimiento de su derecho a ser oídos.

3. En la sentencia se acordará la privación de la patria potestad cuando en el proceso se revele causa para ello.

4. Los padres podrán acordar en el convenio regulador o el Juez podrá decidir, en beneficio de los hijos, que la patria potestad sea ejercida total o parcialmente por unos de los cónyuges.

5. Se acordará el ejercicio compartido de la guarda y custodia de los hijos cuando así lo soliciten los padres en la propuesta de convenio regulador o cuando ambos lleguen a este acuerdo en el transcurso del procedimiento. El Juez, al acordar la guarda conjunta y tras fundamentar su resolución, adoptará las cautelas procedentes para el eficaz cumplimiento del régimen de guarda establecido, procurando no separar a los hermanos.

edo lortutako akordioa ez bada onetsi, epaileak neurri batzuk erabakiko ditu aurreko artikuluekin bat etorritz, eta neurri horiek ordeztuko dituzte aldez aurretik seme-alabei, familiaren etxebizitzari, ezkontzaren zamei, ondasun-eraentzaren likidazioari eta kasuan kasuko kautela nahiz bermeei buruz harturikoak; eta, kontzeptu horietatik baten gain, ez badira oraindik kautela edo bermeak hartu, epaileak bidezkoak direnak ezarriko ditu. Neurri horiek aldaraz daitezke, inguruabarretan aldaketa garrantzitsuak gertatzen direnean.

92. artikulua

1. Banantzeak, deuseztasunak eta dibortzioak ez dituzte gurasoak askatzen, gurasook euren seme-alabei begira dituzten betebeharratik.

2. Epaileak edozein neurri hartu behar duenean seme-alaba adingabeen jagoletza, zaintza eta hezkuntzari buruz, seme-alabon eskubidea betetzea zainduko du, horiek esan beharrekoa entzunez.

3. Epai bidez guraso-ahala kentzea erabakiko da, prozesuan horretarako arrazoa azaldu denean.

4. Gurasoek hitzarmen arau-emailean, edo epaileak berak, erabaki dezakete, seme-alaben onurarako, gurasoahala oso-osorik nahiz zati batez gurasoetatik batek egikaritzea.

5. Seme-alaben gaineko jagoletza eta zaintzaren egikaritzea elkarrekin banatzea erabakiko da, gurasoek hori eskatzen dutenean hitzarmen arauemailearen proposamenean, edo prozeduran zehar bi-biok horretan ados jartzen direnean. Epaileak, baterako jagoletza erabakitzean, eta bere ebazpenaren arrazoiak azaldu eta gero, kautela egokiak hartuko ditu, ezarritako jagoletza-araubidea eragingarritasunez bete dadin; ahal den

6. En todo caso, antes de acordar el régimen de guarda y custodia, el Juez deberá recabar informe del Ministerio Fiscal, y oír a los menores que tengan suficiente juicio cuando se estime necesario de oficio o a petición del Fiscal, partes o miembros del Equipo Técnico Judicial, o del propio menor, valorar las alegaciones de las partes vertidas en la comparecencia y la prueba practicada en ella, y la relación que los padres mantengan entre sí y con sus hijos para determinar su idoneidad con el régimen de guarda.

7. No procederá la guarda conjunta cuando cualquiera de los padres esté incurso en un proceso penal iniciado por atacar contra la vida, la integridad física, la libertad, la integridad moral o la libertad e indemnidad sexual del otro cónyuge o de los hijos que convivan con ambos. Tampoco procederá cuando el Juez advierta, de las alegaciones de las partes y las pruebas practicadas, la existencia de indicios fundados de violencia doméstica.

8. Excepcionalmente, aun cuando no se den los supuestos del apartado cinco de este artículo, el Juez, a instancia de una de las partes, con informe favorable del Ministerio Fiscal, podrá acordar la guarda y custodia compartida fundamentándola en que sólo de esta forma se protege adecuadamente el interés superior del menor.

9. El Juez, antes de adoptar alguna de las decisiones a que se refieren los apartados anteriores, de oficio o a instancia de parte, podrá recabar dictamen de especialistas debidamente cualificados, relativo a la

neurrian, neba-arrebak ez dira elkarrengandik bananduko.

6. Edozein kasutan ere, jagoletza eta zaintzaren araubidea erabaki aurretik, epaileak txostena eskatuko dio Fiskaltzari, eta adingabeek esan beharrekoa entzungo du, horiek behar besteko zentzutasuna badute eta horiei entzutea beharrezkotzat jotzen bada ofizioz edo fiskalak, alderdiek, talde judicial teknikoak edo adingabeak berak hala eskatuta; baloratuko ditu, orobat, alderdiek agerraldian egindako alegazioak eta agerraldi horretan egindako frogak, bai eta gurasoek euren artean eta gurasoek seme-alabekin dituzten harremanak ere, horiek guztiak bat etor daitezten jagoletza- araubidearekin.

7. Baterako jagoletza ez da bidezkoa izango, gurasoetatik edozeinen aurka zigor-prozesua hasi denean, guraso horrek beste ezkontidearen edo bi-biokin bizi diren seme-alaben bizitza, osotasun fisiko, askatasun, osotasun moral edo sexu-askatasun nahiz -ukigabetasunaren aurka atentatzeagatik. Jagoletza hori ez da bidezkoa izango, halaber, epaileak etxeko indarkeriaren zantzu oinarriturik atzematen dituen, alderdien alegazioak eta egindako frogak kontuan hartuta.

8. Salbuespenez, nahiz eta artikulua honen bosgarren paragrafoa kasuak gertatu ez, epaileak, alderdietatik batek hala eskatuta, eta Fiskaltzak horren aldeko txostena eginda, gurasoek elkarrekin banatutako jagoletza eta zaintza erabaki dezake; erabaki horren oinarria izan daiteke beste modurik ez egotea adingabearen interes gorenarekin egoki babesteko.

9. Epaileak, aurreko paragrafoek aipatzen dituzten erabakietatik edozein hartu aurretik, guraso-ahala egikaritzeko modua eta adingabeak zaintzeko araubidea egokiak diren jakiteko, irizpena eskatu ahal

idoneidad del modo

de ejercicio de la patria potestad y del régimen de custodia de los menores.

Artículo 93

El Juez, en todo caso, determinará la contribución de cada progenitor para satisfacer los alimentos y adoptará las medidas convenientes para asegurar la efectividad y acomodación de las prestaciones a las circunstancias económicas y necesidades de los hijos en cada momento.

Si convivieran en el domicilio familiar hijos mayores de edad o emancipados que carecieran de ingresos propios, el Juez, en la misma resolución, fijará los alimentos que sean debidos conforme a los artículos 142 y siguientes de este Código.

Artículo 94

El progenitor que no tenga consigo a los hijos menores o incapacitados gozará del derecho de visitarlos, comunicar con ellos y tenerlos en su compañía.

El Juez determinará el tiempo, modo y lugar del ejercicio de este derecho, que podrá limitar o suspender si se dieran graves circunstancias que así lo aconsejen o se incumplieren grave o reiteradamente los deberes impuestos por la resolución judicial.

Igualmente podrá determinar, previa audiencia de los padres y de los abuelos, que deberán prestar su consentimiento, el derecho de comunicación y visita de los nietos con los abuelos, conforme al artículo 160 de este Código, teniendo siempre presente el interés del menor.

Artículo 95

La sentencia firme producirá, respecto de

izango die, ofizioz

edo alderdiak hala eskatuta, behar bezalako kualifikazioa duten espezialistei.

93. artikulua

Edozein kasutan ere, epaileak zehaztuko du guraso bakoitzak zein partaidetza izan behar duen mantenua emateko unean, eta neurri egokiak hartuko ditu, gurasoek prestazioak ordain ditzaten eta prestazio horiek molda daitezten, unean-unean seme-alabek dituzten inguruabar ekonomikoetara eta beharrizanetara.

Familiaren egoitzan bizi badira seme-alaba adin nagusiko edo emantzipatuak, eta ez badute berezko dirusarrerarik, epaileak ebazpenean bertan finkatuko du kode honen 142. artikuluekin eta ondorengoekin bat etorritz seme-alaboi zor zaien mantenua.

94. artikulua

Gurasoak, seme-alaba adingabeekin edo ezgaituekin bizi ez arren, eskubidea du seme-alabok bisitatu, horiekin harremanak izan eta eurekin egoteko.

Epaileak zehaztuko du noiz, nola eta non egikarituko den eskubide hori; eta eskubidea muga edo eten dezake, inguruabar larriak gertatzen badira eta horien arabera hori komenigarria bada, edo ez-betetze astun edo errepikatua burutu bada epailearen ebazpenean ezarritako eginbeharren aurka.

Era berean, alde zurretik guraso eta aitona-amonei entzun eta horiek adostasuna emanaz gero, epaileak zehaztu dezake kode honen 160. artikulua araberak aitona-amonek euren lobak bisitatzeko eta eurokin komunikatzeko duten eskubidea, betiere adingabearen interesa kontuan hartuta.

95. artikulua

Epai irmoak ezkontzaren ondasun-

los bienes del matrimonio, la disolución del régimen económico matrimonial.

Si la sentencia de nulidad declara la mala fe de uno sólo de los cónyuges, el que hubiere obrado de buena fe podrá optar por aplicar en la liquidación del régimen económico matrimonial las disposiciones relativas al régimen de participación y el de mala fe no tendrá derecho a participar en las ganancias obtenidas por su consorte.

Artículo 96

En defecto de acuerdo de los cónyuges aprobado por el Juez, el uso de la vivienda familiar y de los objetos de uso ordinario en ella corresponde a los hijos y al cónyuge en cuya compañía queden.

Cuando algunos de los hijos queden en la compañía de uno y los restantes en la del otro, el Juez resolverá lo procedente.

No habiendo hijos, podrá acordarse que el uso de tales bienes, por el tiempo que prudencialmente se fije, corresponda al cónyuge no titular, siempre que, atendidas las circunstancias, lo hicieran aconsejable y su interés fuera el más necesitado de protección.

Para disponer de la vivienda y bienes indicados cuyo uso corresponda al cónyuge no titular se requerirá el consentimiento de ambas partes o, en su caso, autorización judicial.

Artículo 97

El cónyuge al que la separación o el divorcio produzca un desequilibrio económico en relación con la posición del otro, que implique un empeoramiento en su situación anterior en el matrimonio, tendrá derecho a una compensación que podrá consistir en una pensión temporal o por

eraentza desegingo du, ezkontzaren ondasunei dagokienez.

Deuseztasun-epaiak ezkontide baten gaitzuste adierazten badu, onustez jardun duenak partaidetza-eraentzari buruzko xedapenak aplika ditzake ezkontzaren ondasun-eraentza likidatzean, eta gaitzustedun ezkontideak ez du eskubiderik izango bere ezkontideak lortu dituen irabazietan parte hartzeko.

96. artikulua

Ezkontideek egin eta epaileak onetsitako akordiorik izan ezean, seme-alabei eta eurekin geratzen den ezkontideari dagokie familiaren etxebizitza eta etxebizitza horretan egunero erabiltzen diren objektuak erabiltzea.

Seme-alaba batzuk ezkontide batekin geratzen direnean, eta besteak, bestearekin, epaileak bidezkoena erabakiko du.

Semerik edo alabarik izan ezean, erabaki daiteke ondasun horien erabilera euren titular ez den ezkontideari ematea, zuhurtziara finkaturiko epean zehar, baldin eta, inguruabarrak kontuan hartuta, hori komenigarri bada, eta ezkontide horren interesa bada babes handiena merezi duena.

Etxebizitza eta ondasunon erabilera euren titular ez den ezkontideari dagokionean, bi alderdien adostasuna, edo, hala denean, epailearen baimena, behar da horiek xedatzeko.

97. artikulua

Banantzeak edo dibortzioak ezkontide bati desoreka ekonomikoa ekarri badio beste ezkontidearen egoerari begira, eta, horren ondorioz, ezkontza bitartean izan zuen egoerak txarrera egin badu, ezkontide horrek konpentsazioa jasotzeko eskubidea izango du; konpentsazio hori aldi baterako

tiempo indefinido, o en una prestación única, según se determine en el convenio regulador o en la sentencia.

A falta de acuerdo de los cónyuges, el Juez, en sentencia, determinará su importe teniendo en cuenta las siguientes circunstancias:

- 1.^a Los acuerdos a que hubieran llegado los cónyuges.
- 2.^a La edad y el estado de salud.
- 3.^a La cualificación profesional y las probabilidades de acceso a un empleo.
- 4.^a La dedicación pasada y futura a la familia.
- 5.^a La colaboración con su trabajo en las actividades mercantiles, industriales o profesionales del otro cónyuge.
- 6.^a La duración del matrimonio y de la convivencia conyugal.
- 7.^a La pérdida eventual de un derecho de pensión.
- 8.^a El caudal y los medios económicos y las necesidades de uno y otro cónyuge.
- 9.^a Cualquier otra circunstancia relevante.

En la resolución judicial se fijarán las bases para actualizar la pensión y las garantías para su efectividad.

Artículo 98

El cónyuge de buena fe cuyo matrimonio haya sido declarado nulo tendrá derecho a una indemnización si ha existido convivencia conyugal, atendidas las circunstancias previstas en el artículo 97.

Artículo 99

En cualquier momento podrá convenirse la sustitución de la pensión fijada

edo denbora- mugarik gabeko pentsioa izan daiteke, hitzarmen arau-emaileak edo epaiak kasuan-kasuan zehaztutakoaren arabera.

Ezkontideen artean adostasunik izan ezean, epaileak, epaian bertan, horren zenbatekoa zehaztuko du, eta, horretarako, hurrengo inguruabarrak izango ditu kontuan:

- 1) Ezkontideen artean egindako akordioak.
- 2) Ezkontideen adina eta osasun-egoera.
- 3) Ezkontideek lanbiderako duten kualifikazioa eta lanpostua lortzeko aukera.
- 4) Familiari begira ezkontideek izan duten eta izango duten ardura.
- 5) Ezkontide batek bere lanarekin bestearen merkataritza-, industria- edo lanbide-jardueretan eman duen laguntza.
- 6) Ezkontzaren eta ezkontideen arteko elkarbizitzaren iraupena.
- 7) Ezkontide batek pentsio-eskubidea izan eta hori galtzeko duen arriskua.
- 8) Ezkontide batek eta besteak dituzten ondasun, baliabide ekonomiko eta beharrianak.
- 9) Garrantzitsu gerta daitezkeen inguruabarretatik beste edozein.

Epailearen ebazpenean finkatuko dira pentsioa eguneratu eta horren ordainketa ziurtatzeko oinarriak.

98. artikulua

Ezkontzaren deuseztasuna adieraziz gero, ezkontide onustedunak kalte-ordaina eskuratzeko eskubidea izango du, ezkontideen artean elkarbizitza izan bada, 97. artikuluan agindutako inguruabarrak kontuan izanik.

99. artikulua

97. artikuluaaren arabera, epaileak finkatu duen pentsioaren orde, edozein unetan

judicialmente conforme al artículo 97 por la constitución de una renta vitalicia, el usufructo de determinados bienes o la entrega de un capital en bienes o en dinero.

Artículo 100

Fijada la pensión y las bases de su actualización en la sentencia de separación o de divorcio, sólo podrá ser modificada por alteraciones sustanciales en la fortuna de uno u otro cónyuge.

Artículo 101

El derecho a la pensión se extingue por el cese de la causa que lo motivó, por contraer el acreedor nuevo matrimonio o por vivir maritalmente con otra persona.

El derecho a la pensión no se extingue por el solo hecho de la muerte del deudor. No obstante, los herederos de éste podrán solicitar del Juez la reducción o supresión de aquélla, si el caudal hereditario no pudiera satisfacer las necesidades de la deuda o afectara a sus derechos en la legítima.

CAPÍTULO X De las medidas provisionales por demanda de nulidad, separación y divorcio

Artículo 102

Admitida la demanda de nulidad, separación o divorcio, se producen, por ministerio de la Ley, los efectos siguientes:

- 1) Los cónyuges podrán vivir separados y cesa la presunción de convivencia conyugal.
- 2) Quedan revocados los consentimientos y poderes que cualquiera de los cónyuges hubiera otorgado al otro.

Asimismo, salvo pacto en contrario, cesa la posibilidad de vincular los bienes privativos del otro cónyuge en el ejercicio de la

hitzar daiteke bizi arteko errenta bat, ondasun zehatz batzuen gaineko gozamina edo ondasunez nahiz diruz kapital jakin bat ematea.

100. artikulua

Banantze- edo dibortzio-epaietan, pentsioa eta hori eguneratzeko oinarriak finkatu eta gero, pentsio hori aldaraz daiteke, soilik, aldaketa garrantzitsuak gertatu direnean ezkontide baten edo bestearen aberastasunean.

101. artikulua

Pentsio-eskubidea azkentzen da, eskubide hori sorrarazi zuen arrazoia amaitzeagatik, edo pentsioaren hartzekoduna berriz ezkontzeagatik edo beste norbaitekin ezkondu-bizimodua egiteagatik.

Pentsio-eskubidea ez da azkentzen zorduna hiltzeagatik. Hala ere, horren jaraunsleek epaileari eska diezaiokete pentsioa urritu edo kentzeko, baldin eta jarauntsiko ondasunak behar beste ez badira zorraren beharrianak asetzeko, edo pentsioak eragina badu euren seniparte-eskubideen gain.

X. KAPITULUA Deuseztasun-, banantzeeta dibortzio-demanden ondoriozko behin-behineko neurriak

102. artikulua

Deuseztasun-, banantze- edo dibortzio-demanda onartuz gero, lege-aginduz sortzen dira hurrengo ondoreak:

- 1) Ezkontideak elkarrengandik bananduta bizi daitezke, eta elkarrekin bizi direlako presuntzioa amaitzen da.
- 2) Ezeztatuta geratzen dira ezkontideek elkarri emandako adostasun eta ahalordeak.

Era berean, eta aurkako itunik izan ezean, amaitu egiten da etxeko ahala egikaritzean ezkontide batek bestearen ondasun

potestad doméstica.

A estos efectos, cualquiera de las partes podrá instar la oportuna anotación en el Registro Civil y, en su caso, en los de la Propiedad y Mercantil.

Artículo 103

Admitida la demanda, el Juez, a falta de acuerdo de ambos cónyuges aprobado judicialmente, adoptará, con audiencia de éstos, las medidas siguientes:

1.ª Determinar, en interés de los hijos, con cuál de los cónyuges han de quedar los sujetos a la patria potestad de ambos y tomar las disposiciones apropiadas de acuerdo con lo establecido en este Código y, en particular, la forma en que el cónyuge que no ejerza la guarda y custodia de los hijos podrá cumplir el deber de velar por éstos y el tiempo, modo y lugar en que podrá comunicar con ellos y tenerlos en su compañía.

Excepcionalmente, los hijos podrán ser encomendados a los abuelos, parientes u otras personas que así lo consintieren y, de no haberlos, a una institución idónea, confiriéndoseles las funciones tutelares que ejercerán bajo la autoridad del Juez.

Cuando exista riesgo de sustracción del menor por alguno de los cónyuges o por terceras personas podrán adoptarse las medidas necesarias y, en particular, las siguientes:

a) Prohibición de salida del territorio nacional, salvo autorización judicial previa.

privatiboak lotzeko duen aukera.

Ondore horietarako, alderdietatik edozeinek eragin dezake idatzohar egokia egitea Erregistro Zibilean, eta, hala denean, Jabetza Erregistroan eta Merkataritzako Erregistroan ere.

103. artikulua

Behin demanda onartu eta gero, eta ezkontideek egin eta epaileak onetsitako akordiorik izan ezean, epaileak hurrengo neurriak hartuko ditu, ezkontideek esan beharrekoa entzunez:

1. Bi gurasoen ahalaren mendeko seme-alabak zein ezkontiderekin geratu behar diren erabakiko du seme-alaben intereserako; eta, Kode Zibilak ezarritakoaren arabera, neurri egokiak hartuko ditu, batik bat, seme-alaben gaineko jagoletza eta zaintza egikaritzen ez duen ezkontideak nola bete behar duen semealabok jagoteko eginbeharra, eta ezkontide horrek zein baldintza bete behar duen, denbora, modu eta lekuaren aldetik, seme-alaba horiekin harremanak izan eta eurokin egoteko.

Salbuespenez, seme-alabak jar daitezke aitona-amonen, ahaideen edo beste pertsona batzuen ardurapean, horiek adostasuna emanaz gero, eta, halako pertsonarik ez badago, erakunde egokiaren ardurapean; batari edo besteari zaintza-eginkizunak emango zaizkio, epailearen agintepean eginkizun horiek bete ditzaten.

Ezkontideetatik edozeinek edo hirugarrenek adingabea berekin eramango dutelako arriskua dagoenean, beharrezkoak diren neurriak hartu ahal izango dira, eta, bereziki, hurrengoak:

a) Adingabea nazioko lurraldetik atera dadin debekatzea, aurretiaz epaileak horretarako baimena ematen duenean izan ezik.

b) Prohibición de expedición del pasaporte al menor o retirada del mismo si ya se hubiere expedido.

c) Sometimiento a autorización judicial previa de cualquier cambio de domicilio del menor.

2. Determinar, teniendo en cuenta el interés familiar más necesitado de protección, cuál de los cónyuges ha de continuar en el uso de la vivienda familiar y asimismo, previo inventario, los bienes y objetos del ajuar que continúan en ésta y los que se ha de llevar el otro cónyuge, así como también las medidas cautelares convenientes para conservar el derecho de cada uno.

3. Fijar la contribución de cada cónyuge a las cargas del matrimonio, incluidas si procede las «litis expensas», establecer las bases para la actualización de cantidades y disponer las garantías, depósitos, retenciones u otras medidas cautelares convenientes, a fin de asegurar la efectividad de lo que por estos conceptos un cónyuge haya de abonar al otro.

Se considerará contribución a dichas cargas el trabajo que uno de los cónyuges dedicará a la atención de los hijos comunes sujetos a patria potestad.

4. Señalar, atendidas las circunstancias, los bienes gananciales o comunes que, previo inventario, se hayan de entregar a uno u otro cónyuge y las reglas que deban observar en la administración y disposición, así como en la obligatoria rendición de cuentas sobre los bienes comunes o parte de ellos que reciban y los que adquieran en lo sucesivo.

b) Adingabeari pasaportea luza dakion debekatzea, edo, jadanik luzatuta badago, hori kentzea.

c) Aurretiaz epailearen baimena behar izatea, adingabearen egoitza lekuz aldatzeko.

2. Familiaren interesetatik babes handiena behar duena kontuan hartuta, epaileak erabakiko du zein ezkontidek eutsiko dion familiaren etxebizitza erabiltzeari, eta, era berean, inbentarioa egin eta gero, ostilamenduaren ondasun eta objektuetatik zeintzuk geratu behar diren familiaren etxebizitzan eta zeintzuk eramango dituen beste ezkontideak; halaber, komenigarri diren kautela- neurriak hartuko ditu epaileak, ezkontide bakoitzaren eskubidea iraunarazteko.

3. Epaileak finkatuko du ezkontide bakoitzak ezkontzaren zametan izan behar duen partaidetza, «litis expensas» deiturikoetan duena barne, hori bidezkoa izanez gero; epaileak ezarriko ditu kopuruak eguneratzeko oinarriak; eta, kontzeptu horien guztien ondorioz, ezkontide batek besteari zor dizkion kopuruak ordainketa ziurtatzeko, bermeak, gordailuak, atxikipenak edo kautelazko beste edozein neurri egoki hartuko du.

Ezkontide batek guraso-ahalaren menpe dauden eta bi ezkontideenak diren seme-alabak zaintzeko lan egiten badu, lan hori ezkontzaren zametan parte hartzeko bide gisa hartuko da.

4. Inguruabarrak kontuan hartuta, eta aurretiaz inbentarioa eginez, epaileak erabakiko du irabazpidezko ondasunetatik edo ondasun erkideetatik zeintzuk eman behar zaizkion ezkontide bati eta zeintzuk besteari; era berean, epaileak finkatuko ditu administrazioaren, xedapenaren eta nahitaez eman beharreko kontu-arrazoien inguruan ezkontideek bete behar dituzten

5. Determinar, en su caso, el régimen de administración y disposición de aquellos bienes privativos que por capitulaciones y escritura pública estuvieran especialmente afectados a las cargas del matrimonio.

Artículo 104

El cónyuge que se proponga demandar la nulidad, separación o divorcio de su matrimonio puede solicitar los efectos y medidas a que se refieren los dos artículos anteriores.

Estos efectos y medidas sólo subsistirán si, dentro de los treinta días siguientes a contar desde que fueron inicialmente adoptados, se presenta la demanda ante el Juez o Tribunal competente.

Artículo 105

No incumple el deber de convivencia el cónyuge que sale del domicilio conyugal por una causa razonable y en el plazo de treinta días presenta la demanda o solicitud a que se refieren los artículos anteriores.

Artículo 106

Los efectos y medidas previstos en este capítulo terminan, en todo caso, cuando sean sustituidos por los de la sentencia estimatoria o se ponga fin al procedimiento de otro modo.

La revocación de consentimientos y poderes se entiende definitiva.

CAPÍTULO XI Ley aplicable a la nulidad, la separación y el divorcio

Artículo 107

erregelak, ondasun erkideei buruz edo horietatik eurek jaso duten zatiari buruz, bai eta aurrerantzean eskuratzen dituzten ondasunei buruz ere.

5. Hala denean, epaileak erabakiko du zein araubide bete behar den, ezkontzako itunen bidez edo eskritura publikoaren bidez ezkontzaren zamei bereziki lotuta geratu diren ondasun pribatiboak administratu eta xedatzeko.

104. artikulua

Ezkontzaren deuseztasun-, banantze- edo dibortzio-demanda jartzeko asmoa duen ezkontideak aurreko bi artikuluetako ondore eta neurriak eska ditzake.

Neurri eta ondore horiek indarrean iraungo dute, eurok hasieran hartu eta hurrengo hogeita hamar egunetan zehar, demanda aurkezten bazaio epaile edo auzitegi eskudunari.

105. artikulua

Ezkontegoitzatik irten den ezkontideak ez du urratzen ezkontideek elkarre-kin bizitzeko duten eginbeharra, baldin eta horretarako zentzuzko arrazoia izan bada, eta, hogeita hamar eguneko epean, demanda edo aurreko artikuluetan aipaturiko eskaera aurkeztu badu.

106. artikulua

Edozein kasutan ere, kapitulu honetan agindutako ondore eta neurriak azkendu egiten dira, horien orde ezartzen direnean demandari oniritzia ematen dion epaian adierazitakoak, edo prozedura horri beste bide batetik amaiera ematen zaionean.

Adostasun eta ahalordeen ezeztapena behin betikoa dela ulertzen da.

XI. KAPITULUA Deuseztasun, banantze eta dibortzioari aplikatu beharreko legea

107. artikulua

1. La nulidad del matrimonio y sus efectos se determinarán de conformidad con la ley aplicable a su celebración.

2. La separación y el divorcio se regirán por la ley nacional común de los cónyuges en el momento de la presentación de la demanda; a falta de nacionalidad común, por la ley de la residencia habitual común del matrimonio en dicho momento y, en defecto de ésta, por la ley de la última residencia habitual común del matrimonio si uno de los cónyuges aún reside habitualmente en dicho estado.

En todo caso, se aplicará la ley española cuando uno de los cónyuges sea español o resida habitualmente en España:

- a) Si no resultara aplicable ninguna de las leyes anteriormente mencionadas.
- b) Si en la demanda presentada ante tribunal español la separación o el divorcio se pide por ambos cónyuges o por uno con el consentimiento del otro.
- c) Si las leyes indicadas en el párrafo primero de este apartado no reconocieran la separación o el divorcio o lo hicieran de forma discriminatoria o contraria al orden público.

TÍTULO V DE LA PATERNIDAD Y FILIACIÓN

CAPÍTULO I De la filiación y sus efectos

Artículo 108

La filiación puede tener lugar por naturaleza y por adopción. La filiación por naturaleza puede ser matrimonial y no matrimonial. Es matrimonial cuando el padre y la madre están casados entre sí.

La filiación matrimonial y la no matrimonial,

1. Ezkontza egiteari zein lege aplikatu eta lege horren arabera zehaztuko dira ezkontzaren deuseztasuna eta horren ondoreak.

2. Banantzea eta dibortzioa arautuko ditu ezkontideek demanda aurkeztean duten nazioko lege erkideak; naziokotasun erkiderik izan ezean, une horretan senar-emazteen ohiko bizileku erkideari dagokion legeak; eta, halako bizilekurik izan ezean, ezkontideen ohiko azken bizileku erkideari dagokion legeak, ezkontideetatik batek oraindik estatu horretan badu ohiko bizilekua.

Edozein kasutan ere, Espainiako legea aplikatuko da, ezkontideetatik bat espainiarra izanik edo horren ohiko bizilekua Espainian egonda:

- a) Aurretiaz aipatutako legeetatik bat bera ere ezin bada aplikatu.
- b) Espainiako auzitegian aurkeztutako demandan banantzea edo dibortzioa eskatzen badute bi ezkontideek edo batak bestearen adostasunarekin.
- c) Idatz-zati honen lehenengo paragrafoan aipatutako legeek ez badute banantzea edo dibortzioa aitortzen, edo aitortza hori bereizkeriaz edo ordena publikoaren kontra egiten badute.

V. TITULUA GURASOTASUNA ETA SEME-ALABATASUNA

I. KAPITULUA Seme-alabatasuna eta horren ondoreak

108. artikulua

Seme-alabatasuna naturaren arabera eta adopzio bidez gauza daiteke. Naturaren araberako seme-alabatasuna ezkontzazkoa eta ezkontzaz kanpokoak izan daiteke. Seme-alabatasuna ezkontzazkoa da, aita eta ama elkarrekin ezkontuta daudenean.

Ezkontzazko eta ezkontzaz kanpoko seme-

así como la adoptiva, surten los mismos efectos, conforme a las disposiciones de este Código.

Artículo 109

La filiación determina los apellidos con arreglo a lo dispuesto en la Ley.

Si la filiación está determinada por ambas líneas, el padre y la madre de común acuerdo podrán decidir el orden de transmisión de su respectivo primer apellido, antes de la inscripción registral.

Si no se ejercita esta opción, regirá lo dispuesto en la Ley.

El orden de apellidos inscrito para el mayor de los hijos regirá en las inscripciones de nacimiento posteriores de sus hermanos del mismo vínculo.

El hijo, al alcanzar la mayor edad, podrá solicitar que se altere el orden de los apellidos.

Artículo 110

El padre y la madre, aunque no ostenten la patria potestad, están obligados a velar por los hijos menores y a prestarles alimentos.

Artículo 111

Quedará excluido de la patria potestad y demás funciones tuitivas y no ostentará derechos por ministerio de la Ley respecto del hijo o de sus descendientes, o en sus herencias, el progenitor:

1. Cuando haya sido condenado a causa de las relaciones a que obedezca la generación, según sentencia penal firme.
2. Cuando la filiación haya sido judicialmente determinada contra su oposición.

En ambos supuestos el hijo no ostentará el apellido del progenitor en cuestión más que

alabatasunak, bai eta adopzio bidezkoak ere, ondore berberak sortzen dituzte, kode honen xedapenekin bat etorritz.

109. artikulua

Seme-alabatasunak zehazten ditu abizenak, legean xedatutakoaren arabera.

Seme-alabatasuna bi lerroetan zehaztuta badago, aitak eta amak, ados jarrita, euren lehenengo abizena zein hurrenkeratan eskualdatuko den erabaki dezakete, Erregistroan inskripzioa egin aurretik.

Aukera hori erabili ezean, legean xedatutakoa aplikatuko da.

Seme edo alaba nagusiarentzat abizenen hurrenkera inskribatu eta gero, hurrenkera hori aplikatuko da gerogarreneko jaiotza-inskripzioetan ere, lotura bereko neba-arreben kasuan.

Semeak edo alabak, adin-nagusitasunera heltzean, abizenen hurrenkera aldatzeko eska dezake.

110. artikulua

Aitak eta amak, nahiz eta guras-ahalik izan ez, betebeharra dute, seme-alaba adingabeak jagon eta euri mantenua emateko.

111. artikulua

Gurasoa guraso-ahaletik eta gainerako babes-eginkizunetatik baztertuta geratuko da, eta guraso horrek galdu egingo ditu lege-aginduz semearen edo alabaren gain nahiz horren ondorengo gain, zein euren jarauntsietan, berari dagozkion eskubideak:

1. Giza sorkuntza ekarri duten harremanen ondorioz kondenatua izan denean, epai penal irmoaren bidez.
2. Seme-alabatasuna epaiketaren bidez zehaztu denean, bera horren aurka agertuta.

Bi kasuotan, semeak edo alabak ez du guraso horren abizenik izango, berak edo

si lo solicita él mismo o su representante legal.

Dejarán de producir efecto estas restricciones por determinación del representante legal del hijo aprobada judicialmente, o por voluntad del propio hijo una vez alcanzada la plena capacidad.

Quedarán siempre a salvo las obligaciones de velar por los hijos y prestarles alimentos.

CAPÍTULO II De la determinación y prueba de la filiación

SECCIÓN I Disposiciones generales

Artículo 112

La filiación produce sus efectos desde que tiene lugar.

Su determinación legal tiene efectos retroactivos siempre que la retroactividad sea compatible con la naturaleza de aquellos y la Ley no dispusiere lo contrario.

En todo caso, conservarán su validez los actos otorgados, en nombre del hijo menor o incapaz, por su representante legal, antes de que la filiación hubiere sido determinada.

Artículo 113

La filiación se acredita por la inscripción en el Registro Civil, por el documento o sentencia que la determina legalmente, por la presunción de paternidad matrimonial y, a falta de los medios anteriores, por la posesión de estado. Para la admisión de pruebas distintas a la inscripción se estará a lo dispuesto en la Ley de Registro Civil.

beraren legezko ordezkariak hori eskatzen duenean izan ezik.

Murrizketa horiek ondoreak sortzeari utziko diote, semearen edo alabaren legezko ordezkariak hala erabaki eta epaileak erabaki hori onesten badu, edo, osterantzean, semeak edo alabak berak hala erabakitzen badu gaitasun osoa lortu eta gero.

Euren horretan diraute beti seme-alabak jagon eta euri mantenua emateko betebeharrak.

II. KAPITULUA Seme-alabatasuna zehaztu eta frogatzea

I. ATALA Xedapen orokorrak

112. artikulua

Seme-alabatasunak bere ondoreak sortzen ditu, berori gauzatzen den unetik.

Seme-alabatasunaren legezko zehaztapenak atzera-eraginezko ondoreak ditu, baldin eta atzera-eragina eta seme-alabatasunaren ondoreak duten izaera bateratzeko modukoak badira, eta legeak aurkakorik xedatzen ez badu.

Edozein kasutan ere, seme-alabatasuna zehaztu baino lehen, seme edo alaba adingabearen edo ezgaiaren ordezkariak egintzak burutu baditu seme edo alaba horren izenean, egintzok euren baliozkotasunari eutsiko diote.

113. artikulua

Seme-alabatasuna egiaztatzeko bideak dira Erregistro Zibilean egindako inskripzioa, seme-alabatasun hori legearen bidez zehazten duen agiri edo epaia, ezkontzako aitatasunari buruzko presuntzioa, eta, aurreko biderik izan ezean, egoera-erakundeak. Inskripzioaz bestelako frogak onartzeko, Erregistro Zibilari buruzko Legean xedatutakoa bete behar da.

No será eficaz la determinación de una filiación en tanto resulte acreditada otra contradictoria.

Artículo 114

Los asientos de filiación podrán ser rectificadas conforme a la Ley de Registro Civil, sin perjuicio de lo especialmente dispuesto en el presente título sobre acciones de impugnación.

Podrán también rectificarse en cualquier momento los asientos que resulten contradictorios con los hechos que una sentencia penal declare probados.

SECCIÓN II *De la determinación de la filiación matrimonial*

Artículo 115

La filiación matrimonial materna y paterna quedará determinada legalmente:

1. Por la inscripción del nacimiento junto con la del matrimonio de los padres.
2. Por sentencia firme.

Artículo 116

Se presumen hijos del marido los nacidos después de la celebración del matrimonio y antes de los trescientos días siguientes a su disolución o a la separación legal o de hecho de los cónyuges.

Artículo 117

Nacido el hijo dentro de los cientos ochenta días siguientes a la celebración del matrimonio, podrá el marido destruir la presunción mediante declaración auténtica en contrario formalizada dentro de los seis meses siguientes al conocimiento del parto. Se exceptúan los casos en que hubiere reconocido la paternidad expresa o tácitamente o hubiese conocido el embarazo de la mujer con anterioridad a la celebración del matrimonio, salvo que, en

Seme-alabatasunaren zehaztapena ez da eragingarria izango, horren aurkako beste seme-alabatasun bat egiaztatzen bada.

114. artikulua

Seme-alabatasunari buruzko idazkunak zuzen daitezke Erregistro Zibilar buruzko Legearekin bat etorritik, titulu honetan aurkaratze-akzioen inguruan bereziki xedatutakoari kalterik egin gabe.

Era berean, edozein unetan zuzen daitezke idazkunak, baldin eta epai penalak frogatutzat jotzen baditu egitate batzuk eta idazkunak egitate horien aurkakoak badira.

II. ATALA *Ezkontzazko seme-alabatasuna Zehaztea*

115. artikulua

Aitarengandik eta amarengandik datorren ezkontzazko seme-alabatasuna legearen bidez zehaztuko da:

1. Jaiotza-inskripzioaren bidez, gurasoen ezkontzari buruzko inskripzioarekin batera.
2. Epai irmoaren bidez.

116. artikulua

Seme-alabak jaio badira ezkontza egin ostean, eta ezkontza hori desegin edo ezkontideak legez nahiz egitez banandu eta hurrengo hirurehun egunak igaro baino lehen, uste da horiek senarraren seme-alabak direla.

117. artikulua

Semea edo alaba jaio bada ezkontza egin eta hurrengo ehun eta laurogei egunetan, senarrak ezerezean utz dezake presuntzioa, horren aurkako aitorten kautoa formalizatzen badu erditzearen berri izan eta hurrengo sei hilabeteetan zehar. Salbuespen gisa har daiteke senarrak esanbidez edo isilbidez aitatasuna aitortzea, edo, ezkontza egin aurretik, senarrak jakitea emaztea haurdun dagoela. Azken kasu horri dagokionez, salbuespen

este último supuesto, la declaración auténtica se hubiera formalizado, con el consentimiento de ambos, antes del matrimonio o después del mismo, dentro de los seis meses siguientes al nacimiento del hijo.

Artículo 118

Aún faltando la presunción de paternidad del marido por causa de la separación legal o de hecho de los cónyuges, podrá inscribirse la filiación como matrimonial si concurre el consentimiento de ambos.

Artículo 119

La filiación adquiere el carácter de matrimonial desde la fecha del matrimonio de los progenitores cuando éste tenga lugar con posterioridad al nacimiento del hijo siempre que el hecho de la filiación quede determinado legalmente conforme a lo dispuesto en la sección siguiente.

Lo establecido en el párrafo anterior aprovechará, en su caso, a los descendientes del hijo fallecido.

SECCIÓN III De la determinación de la filiación no matrimonial

Artículo 120

La filiación no matrimonial quedará determinada legalmente:

1. Por el reconocimiento ante el encargado del Registro Civil, en testamento o en otro documento público.
2. Por resolución recaída en expediente tramitado con arreglo a la legislación del Registro Civil.
3. Por sentencia firme.
4. Respecto de la madre, cuando se haga constar la filiación materna en la inscripción

gisa har daiteke aitopen kautoa senarraren eta emaztearen adostasunarekin formalizatzea ezkontzaren aurretik nahiz horren ondoren, betiere, semea edo alaba jaio eta hurrengo sei hilabeteetan.

118. artikulua

Ezkontideak legez nahiz egitez bananduta egoteagatik, senarra semearen edo alabaren aitatzat jotzeko presuntziorik izan ez arren, seme-alabatasuna ezkontzako seme-alabatasun gisa inskriba daiteke, bi ezkontideek horretarako adostasuna ematen badute.

119. artikulua

Seme-alabatasuna ezkontzazkoa izango da gurasoen ezkontza-datatz geroztik, gurasook semea edo alaba jaio eta gero ezkondu eta seme-alabatasuna bera legearen bidez zehaztu denean hurrengo atalean xedatutakoarekin bat etorriz.

Aurreko lerrokadan ezarritakoak mesede egingo die, hala denean, hildako semearen edo alabaren ondorengoei.

III. ATALA Ezkontzaz kanpoko seme-alabatasuna zehaztea

120. artikulua

Ezkontzaz kanpoko seme-alabatasuna legearen bidez zehaztuko da:

1. Erregistro Zibileko arduradunari egindako aitopenaren bidez, aitopen hori testamentuan edo beste agiri publiko batean gauzatzuz gero.
2. Erregistro Zibilari buruzko legeriaren arabera, espedientearen izapideak egin, eta espediente horretan emandako ebazpenaren bidez.
Halaber, heriotza-adierazpena bidezkoa da:

1. Bi urte igaro direnean, kontingente armatuko kideek, edo, borondatezko funtzionario laguntzaile gisa nahiz informazio-eginkizunetarako, indar horrekin batu direnek kanpainako ekintzetan parte hartu eta horietan galdu direnetik; bi urte horiek zenbatzen dira, bake-itunaren datatik, edo, bake-itunik hitzartu ezean, gerraren amaierari buruzko adierazpen ofizialaren datatik.
2. Hiru hilabete igaro direnean, berririk izan gabe, itsasoan galdutako ontzian daudenei buruz edo itsasoan barneratu eta desagertu direnei buruz, itsasoan galdu izana egiaztatu denetik edo desagerpena gertatu denetik.

Ontzia itsasoan galdu dela uste da, baldin eta ontzi hori ez bada helmugara iritsi, edo, iristeko puntu finkorik izan ezean, ontzia ez bada itzuli; bi kasu horietatik edozeinetan, sei hilabete igaro behar dira, azken berriak jaso direnetik, edo, berririk izan ezean, bidaiaren hasierako portutik ontzia irten den datatik.

3. Hiru hilabete igaro direnean, berririk izan gabe, galdutako aireontzian daudenei buruz, ezbeharrak egiaztatu denetik; gauza bera gertatzen da, giza hondarrak aurkitu badira eta hondar horiek ezin izan badira identifikatu.

Ezbeharrak gertatu dela uste da, baldin eta, sei hilabetez luzatu bada itsasoan, basamortuen nahiz biztanlerik gabeko guneen gain egindako bidaia, pertsonen

aeronave, y en su defecto, desde la fecha de arranque del viaje. Si éste se hiciese por etapas, el plazo indicado se computará desde el punto de despegue del que se recibieron las últimas noticias.

Artículo 195

Por la declaración de fallecimiento cesa la situación de ausencia legal, pero mientras dicha declaración no se produzca, se presume que el ausente ha vivido hasta el momento en que deba reputarse fallecido, salvo investigaciones en contrario.

Toda declaración de fallecimiento expresará la fecha a partir de la cual se entienda sucedida la muerte, con arreglo a lo preceptuado en los artículos precedentes, salvo prueba en contrario.

Artículo 196

Firme la declaración de fallecimiento del ausente, se abrirá la sucesión en los bienes del mismo, procediéndose a su adjudicación por los trámites de los juicios de testamentaría o abintestato, según los casos, o extrajudicialmente.

Los herederos no podrán disponer a título gratuito hasta cinco años después de la declaración del fallecimiento.

Hasta que transcurra este mismo plazo no serán entregados los legados, si los hubiese, ni tendrán derecho a exigirlos los legatarios, salvo las mandas piadosas en sufragio del alma del testador o los legados en favor de instituciones de beneficencia.

Será obligación ineludible de los sucesores, aunque por tratarse de uno sólo no fuese necesaria partición, la de formar notarialmente un inventario detallado de los bienes muebles y una descripción de los

nahiz aireontziari buruzko azken berriak izan zirenetik, edo, berririk izan ezean, bidaiaren hasierako datatik. Bidaia etapaka eginez gero, epe horren zenbaketa hasiko da, azken berriak zein aireeratze-gunetan izan eta ordutik.

195. artikulua

Heriotza-adierazpenaren bitartez, amaitu egiten da legezko absentzia-egoera; baina, heriotza-adierazpenik ez dagoen artean, eta aurkako ikerketarik izan ezean, uste da absentea bizirik egon dela, hori hildakotzat jo behar den unea arte.

Heriotza-adierazpen orotan, adierazi behar da, aurreko artikuluetan agindutakoari helduta, zein datatik aurrera ulertzen den heriotza gertatu dela, horren aurkako frogarik izan ezean.

196. artikulua

Behin absentearen heriotza-adierazpena irmoa izan eta gero, haren ondasunen gaineko oinordetza irekiko da, eta ondasunok adjudikatuko dira, testamentu-nahiz abintestato-epaiketei buruzko izapideen bitartez, kasuan- kasuan, edo, bestela, epaiketatik kanpo.

Jaraunsleek ezin dute dohaineko xedapenik egin heriotza-adierazpena egin eta hurrengo bost urteak igaro arte.

Epe berbera igaro arte, eta legatuak izatekotan, ezin dira legatuok eman, eta legatu-hartzaileek ez dute legatu horiek eskatzeko eskubiderik, salbu eta testamentugilearen arimaren aldeko erruki-agintzak edo ongintza-erakundeentzako legatuak direnean.

Oinordeko bakarra izategatik, jarauntsi-banaketa beharrezkoa ez bada ere, oinordekoen betebeharrak noraezekoa da notario bidez ondasun higarrien inventario xehea eratzea eta ondasun

inmuebles.

Artículo 197

Si después de la declaración de fallecimiento se presentase el ausente o se probase su existencia, recobrará sus bienes en el estado en que se encuentren y tendrá derecho al precio de los que se hubieran vendido, o a los bienes que con este precio se hayan adquirido, pero no podrá reclamar de sus sucesores rentas, frutos ni productos obtenidos con los bienes de su sucesión, sino desde el día de su presencia o de la declaración de no haber muerto.

CAPÍTULO III Del Registro Central de Ausentes

Artículo 198

En el Registro central y público de ausentes se hará constar:

1. Las declaraciones judiciales de ausencia legal.
2. Las declaraciones judiciales de fallecimiento.
3. Las representaciones legítimas y dativas acordadas judicialmente y la extinción de las mismas.
4. Mención circunstanciada del lugar, fecha, otorgantes y Notario autorizante de los inventarios de bienes muebles, y descripción de inmuebles que en este título se ordenan.
5. Mención circunstanciada del auto de concesión y del lugar, fecha, otorgantes y Notario autorizante de las escrituras de transmisiones y gravámenes que con licencia judicial efectúen los representantes legítimos o dativos de los ausentes.
6. Mención circunstanciada del lugar, fecha, otorgantes y Notario autorizante de

higiezinen deskripzioa egitea.

197. artikulua

Heriotza-adierazpenaren ostean, absentea agertu edo bizi dela frogatzen bada, absente horrek bere ondasunak berreskuratuko ditu euren horretan, eta saldutako ondasunen prezioa edo prezio horrekin eskuratu diren ondasunen gaineko eskubidea izango du; baina bere oinordekoei ezingo die erreklamatu, ez errentarik, ez fruiturik, ezta haren oinordetzako ondasunekin lortutako produkturik ere, bera agertu den egunetik edo hil ez delako adierazpenaren egunetik aurrera ez bada.

III. KAPITULUA Absenteen Erregistro Zentrala

198. artikulua

Absenteen Erregistro Zentral eta publikoan agerrarazi behar dira:

1. Epaileak legezko absentziari buruz emandako adierazpenak.
2. Epaileak emandako heriotza-adierazpenak.
3. Epaileak erabakitako ordezkaritza legezkoak eta datiboak, eta ordezkaritza horien azkentzea.
4. Lekuaren, dataren eta egileen aipamen zehatza, eta, titulu honetan agindutakoaren ondorioz, ondasun higigarrien inbentarioa eta ondasun higiezinaren deskripzioa eskuetsi dituen notarioaren aipamen zehatza ere.
5. Emate-autoaren aipamen zehatza, eta lekuarena, datarena, egileena eta notarioarena ere, azken horrek eskuetsi baditu absenteen ordezkari legezkoek edo datiboek, epailearen baimenarekin, egin dituzten eskualdaketa eta zamei buruzko eskriturak.
6. Ondasunen deskripzio nahiz inbentarioari buruzko eskriturak zein izan

la escritura de descripción o inventario de los bienes, así como de las escrituras de partición y adjudicación realizadas a virtud de la declaración de fallecimiento o de las actas de protocolización de los cuadernos particionales en sus respectivos casos.

TÍTULO IX DE LA INCAPACITACIÓN

Artículo 199

Nadie puede ser declarado incapaz, sino por sentencia judicial en virtud de las causas establecidas en la Ley.

Artículo 200

Son causas de incapacidad las enfermedades o deficiencias persistentes de carácter físico o psíquico que impidan a la persona gobernarse por sí misma.

Artículo 201

Los menores de edad podrán ser incapacitados cuando concurra en ellos causa de incapacidad y se prevea razonablemente que la misma persistirá después de la mayoría de edad.

Artículo 202

Suprimido por la Ley 1/2000, de 7 de enero, de Enjuiciamiento Civil.

Artículo 203

Suprimido por la Ley 1/2000, de 7 de enero, de Enjuiciamiento Civil.

Artículo 204

Suprimido por la Ley 1/2000, de 7 de enero, de Enjuiciamiento Civil.

Artículo 205

Suprimido por la Ley 1/2000, de 7 de enero, de Enjuiciamiento Civil.

Artículo 206

Suprimido por la Ley 1/2000, de 7 de enero, de Enjuiciamiento Civil.

Artículo 207

Suprimido por la Ley 1/2000, de 7 de enero, de Enjuiciamiento Civil.

eta horien leku, data, egile eta notario egileslearen aipamen zehatza, heriotza-adierazpenaren ondorioz egindako banaketa eta adjudikazioei buruzko eskriturak, edo kasuan kasuko banaketa-koadernoak protokoloan jasotzeko aktak.

IX. TITULUA EZGAIKETA

199. artikulua

Norbait ezgaia dela adierazteko, nahitaezkoa da horretarako epaia ematea legeak ezarritako arrazoien ondorioz.

200. artikulua

Ezgaiketa-arrazoiak dira norberari bere burua gobernatzea galarazten dioten gaixotasun edo akats iraunkorrak, fisikoak izan nahiz psikikoak izan.

201. artikulua

Adingabeak ezgaituak izan daitezke, eurongan ezgaiketa-arrazoia egon eta zentzuz aurreikus daitekeenean ezgaitasun horrek adin-nagusitasunera heldu eta gero ere iraungo duela.

202. artikulua

Ezabatua, Prozedura Zibilari buruzko urtarrilaren 7ko 1/2000 Legearen ondorioz.

203. artikulua

Ezabatua, Prozedura Zibilari buruzko urtarrilaren 7ko 1/2000 Legearen ondorioz.

204. artikulua

Ezabatua, Prozedura Zibilari buruzko urtarrilaren 7ko 1/2000 Legearen ondorioz.

205. artikulua

Ezabatua, Prozedura Zibilari buruzko urtarrilaren 7ko 1/2000 Legearen ondorioz.

206. artikulua

Ezabatua, Prozedura Zibilari buruzko urtarrilaren 7ko 1/2000 Legearen ondorioz.

207. artikulua

Ezabatua, Prozedura Zibilari buruzko urtarrilaren 7ko 1/2000 Legearen ondorioz.

Artículo 208

Suprimido por la Ley 1/2000, de 7 de enero, de Enjuiciamiento Civil.

Artículo 209

Suprimido por la Ley 1/2000, de 7 de enero, de Enjuiciamiento Civil.

Artículo 210

Suprimido por la Ley 1/2000, de 7 de enero, de Enjuiciamiento Civil.

Artículo 211

Suprimido por la Ley 1/2000, de 7 de enero, de Enjuiciamiento Civil.

Artículo 212

Suprimido por la Ley 1/2000, de 7 de enero, de Enjuiciamiento Civil.

Artículo 213

Suprimido por la Ley 1/2000, de 7 de enero, de Enjuiciamiento Civil.

Artículo 214

Suprimido por la Ley 1/2000, de 7 de enero, de Enjuiciamiento Civil.

TÍTULO X DE LA TUTELA, DE LA CURATELA Y DE LA GUARDA DE LOS MENORES O INCAPACITADOS

CAPÍTULO I Disposiciones generales

Artículo 215

La guarda y protección de la persona y bienes o solamente de la persona o de los bienes de los menores o incapacitados, se realizará, en los casos que proceda, mediante:

1. La tutela.
2. La curatela.
3. El defensor judicial.

Artículo 216

Las funciones tutelares constituyen un deber, se ejercerán en beneficio del tutelado y estarán bajo la salvaguarda de la autoridad judicial.

208. artikulua

Ezabatua, Prozedura Zibilari buruzko urtarrilaren 7ko 1/2000 Legearen ondorioz.

209. artikulua

Ezabatua, Prozedura Zibilari buruzko urtarrilaren 7ko 1/2000 Legearen ondorioz.

210. artikulua

Ezabatua, Prozedura Zibilari buruzko urtarrilaren 7ko 1/2000 Legearen ondorioz.

211. artikulua

Ezabatua, Prozedura Zibilari buruzko urtarrilaren 7ko 1/2000 Legearen ondorioz.

212. artikulua

Ezabatua, Prozedura Zibilari buruzko urtarrilaren 7ko 1/2000 Legearen ondorioz.

213. artikulua

Ezabatua, Prozedura Zibilari buruzko urtarrilaren 7ko 1/2000 Legearen ondorioz.

214. artikulua

Ezabatua, Prozedura Zibilari buruzko urtarrilaren 7ko 1/2000 Legearen ondorioz.

X. TITULUA ADINGABEEN EDO EZGAITUEN GAINEKO TUTORETZA, KURADORETZA ETA ZAINTZA

I. KAPITULUA Xedapen orokorrak

215. artikulua

Adingabeak edo ezgaituak eurak eta haien ondasunak zaindu eta babesteko, edo euren pertsona ala ondasunak bakarrik zaindu eta babesteko, jarraikoak eratuko dira, eraketa hori bidezkoa den kasuetan:

1. Tutoretza.
2. Kuradoretza.
3. Defendatzaile judiziala.

216. artikulua

Babes-eginkizunak eginbeharrak dira, babespekoaren onurarako egikarituko dira, eta agintaritza judizialaren zaintzapean egongo dira.

Las medidas y disposiciones previstas en el artículo 158 de este Código podrán ser acordadas también por el Juez, de oficio o a instancia de cualquier interesado, en todos los supuestos de tutela o guarda, de hecho o de derecho, de menores e incapaces, en cuanto lo requiera el interés de éstos.

Artículo 217

Sólo se admitirá la excusa de los cargos tutelares en los supuestos legalmente previstos.

Artículo 218

Las resoluciones judiciales sobre los cargos tutelares y de curatela habrán de inscribirse en el Registro Civil.

Dichas resoluciones no serán oponibles a terceros mientras no se hayan practicado las oportunas inscripciones.

Artículo 219

La inscripción de las resoluciones a que se refiere el artículo anterior, se practicará en virtud de la comunicación que la autoridad judicial deberá remitir sin dilación al Encargado del Registro Civil.

Artículo 220

La persona que en el ejercicio de una función tutelar sufra daños y perjuicios, sin culpa por su parte, tendrá derecho a la indemnización de éstos con cargo a los bienes del tutelado, de no poder obtener por otro medio su resarcimiento.

Artículo 221

Se prohíbe a quien desempeñe algún cargo tutelar:

1. Recibir liberalidades del tutelado o de sus causahabientes, mientras que no se haya aprobado definitivamente su gestión.
2. Representar al tutelado cuando en el

Epailleak, ofizioz nahiz edozein interesdunek hala eskaturik, kode honen 158. artikuluan ezarritako neurri eta xedapenak har ditzake, adingabe eta ezgaien gaineko tutoretza, egitezko zaintza edo zuzenbideko zaintzaren kasu guztietan, hori beharrezkoa bada, adingabe edo ezgai horien intereserako.

217. artikulua

Babes-karguen desenkusa onartuko da legeak ezarritako kasuetan bakar- bakarrik.

218. artikulua

Erregistro Zibilean inskribatu behar dira tutoretza- eta kuradoretza-karguei buruz epaileek ematen dituzten ebazpenak.

Ebazpen horien inskripzio egokia egiten ez den bitartean, ebazpenok ezin izango dira hirugarrenen aurka jarri.

219. artikulua

Aurreko artikuluan aipatutako ebazpenen inskripzioa egingo da, agintaritzak judizialak Erregistro Zibileko arduradunari inolako atzerapenik gabe igorri behar dion komunikazioaren bidez.

220. artikulua

Babes-eginkizuna betetzean, norbaitek kalte-galerak izan baditu berak ezelako errurik izan gabe, eta ez badago beste biderik kalte-ordaina lortzeko, kaltetun horrek kalte-galeron ordaina eskuratzeko eskubidea izango du babespekoaren ondasunen kontura.

221. artikulua

Babes-karguan diharduen horrentzat debekaturik dago:

1. Babespekoak edo beraren kausadunek egindako eskuzabaltasunak jasotzea, kudeaketa behin betiko onesten ez den artean.
2. Babespekoa ordezkatzeko, karguan

mismo acto intervenga en nombre propio o de un tercero y existiera conflicto de intereses.

3. Adquirir por título oneroso bienes del tutelado o transmitirle por su parte bienes por igual título.

CAPÍTULO II De la tutela

SECCIÓN I De la tutela en general

Artículo 222

Estarán sujetos a tutela:

1. Los menores no emancipados que no estén bajo la patria potestad.
2. Los incapacitados, cuando la sentencia lo haya establecido.
3. Los sujetos a la patria potestad prorrogada, al cesar ésta, salvo que proceda la curatela.
4. Los menores que se hallen en situación de desamparo.

Artículo 223

Los padres podrán en testamento o documento público notarial nombrar tutor, establecer órganos de fiscalización de la tutela, así como designar las personas que hayan de integrarlos, u ordenar cualquier otra disposición sobre la persona o bienes de sus hijos menores o incapacitados.

Asimismo, cualquier persona con la capacidad de obrar suficiente, en previsión de ser incapacitada judicialmente en el futuro, podrá en documento público notarial adoptar cualquier disposición relativa a su propia persona o bienes, incluida la designación de tutor.

Los documento públicos a los que se refiere el presente artículo se comunicarán de oficio por el notario autorizante al Registro Civil, para su indicación en la

diharduenak egintza berean esku hartzen duenean bere izenean edo beste inoren izenean, horren ondorioz interes- gatazka sortuz.

3. Babespekoaren ondasunak kostu bidez eskuratzea, edo, titulu berberaren bidez, babespekoari ondasunak eskualdatzea.

II. KAPITULUA Tutoretza

I. ATALA Tutoretza orokorrean

222. artikulua

Tutoretzaren menpe egongo dira:

1. Adingabeko emantzipatugabeak, horiek guraso-ahalpean ez daudenean.
2. Ezgaituak, epaiak hala ezarri duenean.
3. Guraso-ahal luzatuaren menpe daudenak, ahal hori azkendu bada, kuradoretza bidezkoa denean izan ezik.
4. Babesgabezia-egoeran diren adingabeak.

223. artikulua

Gurasoek, testamentuan nahiz notario-agiri publikoan, tutorea izenda dezakete, eta tutoretzaren gaineko fiskalizazio-organoak ezar ditzakete; era berean, organo horien partaide izan behar diren pertsonak izenda ditzakete; eta, halaber, beste edozein xedapen ordena dezakete, euren seme-alaba adingabe nahiz ezgaituei eurei edo haien ondasunei buruz.

Halaber, jarduteko behar besteko gaitasuna dutenetatik edonork, etorkizunean epaiketa bidez ezgaituta gera daitekeela aurreikusiz, notario-agiri publikoan edozein xedapen egin dezake, bere buruari edo bere ondasunei buruz, bai eta tutorea izendatu ere.

Notario eskuesleak ofizioz komunikatuko dizkio Erregistro Zibilari artikuluko honek aipatzen dituen agiri publikoak, agiriok interesdunaren jaiotza-inskripzioan

inscripción de nacimiento del interesado.

En los procedimientos de incapacitación, el juez recabará certificación del Registro Civil y, en su caso, del registro de actos de última voluntad, a efectos de comprobar la existencia de las disposiciones a las que se refiere este artículo.

Artículo 224

Las disposiciones aludidas en el artículo anterior vincularán al juez, al constituir la tutela, salvo que el beneficio del menor o incapacitado exija otra cosa, en cuyo caso lo hará mediante decisión motivada.

Artículo 225

Cuando existieren disposiciones en testamento o documento público notarial del padre y de la madre, se aplicarán unas y otras conjuntamente, en cuanto fueran compatibles. De no serlo, se adoptarán por el Juez, en decisión motivada, las que considere más convenientes para el tutelado.

Artículo 226

Serán ineficaces las disposiciones hechas en testamento o documento público notarial sobre la tutela si, en el momento de adoptarlas, el disponente hubiese sido privado de la patria potestad.

Artículo 227

El que disponga de bienes a título gratuito en favor de un menor o incapacitado, podrá establecer las reglas de administración de los mismos y designar la persona o personas que hayan de ejercerla. Las funciones no conferidas al administrador corresponden al tutor.

Artículo 228

Si el Ministerio Fiscal o el Juez competente tuvieren conocimiento de que existe en el

adieraziak izan daitezten.

Ezgaiketa-prozeduretan, epaileak ziurtagiria eskatuko dio Erregistro Zibilaria, eta, hala denean, azken nahietako egintzen erregistroari, artikulua honek aipatzen dituen xedapenak egin diren ala ez egiaztatzeko.

224. artikulua

Tutoretza eratzean, epailearentzat lotesleak izango dira aurreko artikuluan aipaturiko xedapenak, salbu eta beste zerbait behar denean adingabearen nahiz ezgaituaren onurarako; kasu horretan, epaileak bestelakoa ezarriko du ebazpen ziodunaren bidez.

225. artikulua

Testamentura nahiz notario-agiri publikora bildu direnean aitaren eta amaren xedapenak, batzuk eta besteak batera aplikatuko dira, bateratzeko modukoak diren heinean. Xedapen horiek bateratzeko modukoak ez badira, epaileak hartuko ditu, ebazpen ziodunean, bere ustez tutoretzapekoarentzat egokienak direnak.

226. artikulua

Testamentuan nahiz notario-agiri publikoan tutoretzari buruzko xedapenak egin badira, xedapen horiek eraginik gabekoak izango dira, baldin eta, horiek hartzeko unean, xedatzaileari guraso-ahala kendu bazaio.

227. artikulua

Norbaitek dohainik ondasunak xedatzen baditu adingabearen edo ezgaituaren mesederako, ondasunok administratzeko erregelak ezar ditzake, eta administrazio hori burutu behar duen pertsona edo pertsonak izenda ditzake. Tutoreari dagozkio administratzaileari eratziki ez zaizkion eginkizunak.

228. artikulua

Fiskaltzak edo epaile eskudunak jakin badaki bere jurisdikziopeko lurraldean

territorio de su jurisdicción alguna persona que deba ser sometida a tutela, pedirá el primero y dispondrá el segundo, incluso de oficio, la constitución de la tutela.

Artículo 229

Estarán obligados a promover la constitución de la tutela, desde el momento en que conocieran el hecho que la motivare, los parientes llamados a ella y la persona bajo cuya guarda se encuentre el menor o incapacitado, y si no lo hicieren, serán responsables solidarios de la indemnización de los daños y perjuicios causados.

Artículo 230

Cualquier persona podrá poner en conocimiento del Ministerio Fiscal o de la autoridad judicial el hecho determinante de la tutela.

Artículo 231

El Juez constituirá la tutela, previa audiencia de los parientes más próximos, de las personas que considere oportuno, y, en todo caso, del tutelado si tuviera suficiente juicio y siempre si fuera mayor de doce años.

Artículo 232

La tutela se ejercerá bajo la vigilancia del Ministerio Fiscal, que actuará de oficio o a instancia de cualquier interesado.

En cualquier momento podrá exigir del tutor que le informe sobre la situación del menor o del incapacitado y del estado de la administración de la tutela.

Artículo 233

El Juez podrá establecer, en la resolución por la que se constituya la tutela o en otra posterior, las medidas de vigilancia y control que estime oportunas en beneficio

norbait tutoretzapean jarri behar dela, lehenengoak eskatu eta bigarrenak erabakiko du, baita ofizioz ere, tutoretzaren eraketa.

229. artikulua

Tutoretzara deituriko ahaideek eta adingabearen edo ezgaituaren gaineko zaintza duen pertsonak tutoretzaren eraketa eragin beharko dute, hori erakarri duen egitatea ezagutzen duten unetik; hori egin ezean, pertsona horiek erantzukizun solidarioa izango dute eragindako kalte-galeren ordainaren gain.

230. artikulua

Pertsona orok Fiskaltzari edo agintaritzaren judizialari eman diezaioke tutoretza erakarri duen egitatearen berri.

231. artikulua

Epailleak, tutoretza eratu baino lehen, entzun egingo die ahaiderik hurbilenei, berak egoki deritzen pertsonen, eta, edozein kasutan, tutoretzapekoari, horrek behar besteko zentzutasuna badu, eta, beti, tutoretzapeko hori hamabi urtekoa baino nagusiagoa bada.

232. artikulua

Tutoretza Fiskaltzaren jagoletzapean beteko da; Fiskaltzak ofizioz jardungo du, edo, bestela, edozein interesdunek hala eskaturik.

Edozein unetan, Fiskaltzak tutoreari eska diezaioke, horrek informazioa eman dezan, adingabe edo ezgaituaren egoerari buruz, bai eta tutoretzaren administrazioak duen egoerari buruz ere.

233. artikulua

Tutoretza eratzen duen ebazpenean edo horren osteko ebazpenetatik edozeinetan, epailleak jagoletza- eta kontrol-neurriak ezar ditzake, bere ustez horiek komenigarri

del tutelado. Asimismo podrá, en cualquier momento, exigir del tutor que informe sobre la situación del menor o del incapacitado y del estado de la administración.

SECCIÓN II *De la delación de la tutela y del nombramiento del tutor*

Artículo 234

Para el nombramiento de tutor se preferirá:

1. Al designado por el propio tutelado, conforme al párrafo segundo del artículo 223.
2. Al cónyuge que conviva con el tutelado.
3. A los padres.
4. A la persona o personas designadas por éstos en sus disposiciones de última voluntad.
5. Al descendiente, ascendiente o hermano que designe el Juez.

Excepcionalmente, el Juez, en resolución motivada, podrá alterar el orden del párrafo anterior o prescindir de todas las personas en él mencionadas, si el beneficio del menor o del incapacitado así lo exigiere.

Se considera beneficiosa para el menor la integración en la vida de familia del tutor.

Artículo 235

En defecto de las personas mencionadas en el artículo anterior, el Juez designará tutor a quien, por sus relaciones con el tutelado y en beneficio de éste, considere más idóneo.

Artículo 236

La tutela se ejercerá por un solo tutor, salvo:

1. Cuando por concurrir circunstancias

badira tutoretzapekoaren onurarako. Era berean, epaileak edozein unetan eska diezaioke tutoreari, horrek informazioa eman dezan, adingabe edo ezgaituaren egoerari buruz, bai eta administrazioaren egoerari buruz ere.

II. ATALA *Tutoretzarako delazioa eta tutorea izendatzea*

234. artikulua

Tutorearen izendapenean, hobetsiko dira:

1. 223. artikuluko bigarren lerrokadaren arabera tutoretzapekoak berak izendatu duena.
2. Tutoretzapekoarekin bizi den ezkontidea.
3. Gurasoak.
4. Gurasoek euren azken nahiaren xedapenetan izendaturiko pertsona edo pertsonak.
5. Epaileak izendaturiko ondorengoa, aurrekoa, neba edo arreba.

Salbuespen gisa, eta ebazpen ziodunean, epaileak aurreko paragrafoetako hurrenkera alda dezake, edo paragrafo horietan aipaturiko pertsona guztiak alde batera utz ditzake, hori beharrezkoa bada adingabe edo ezgaituaren onura kontuan hartuta.

Adingabearentzat onuragarria da tutorearen familia-bizitzan integratzea.

235. artikulua

Aurreko artikuluan aipaturikoak izan ezean, epaileak pertsonarik egokiena izendatuko du tutore; horretarako, kontuan izango du zeintzuk diren pertsona horren eta tutoretzapekoaren arteko harremanak, eta zein den tutoretzapeko horren onura.

236. artikulua

Tutoretzan tutore batek jardungo du, salbu eta:

1. Tutoretzapekoari berari edo horren

especiales en la persona del tutelado o de su patrimonio, convenga separar como cargos distintos el de tutor de la persona y el de los bienes, cada uno de los cuales actuará independientemente en el ámbito de su competencia, si bien las decisiones que conciernan a ambos deberán tomarlas conjuntamente.

2. Cuando la tutela corresponda al padre y a la madre, será ejercida por ambos conjuntamente de modo análogo a la patria potestad.

3. Si se designa a alguna persona tutor de los hijos de su hermano y se considera conveniente que el cónyuge del tutor ejerza también la tutela.

4. Cuando el Juez nombre tutores a las personas que los padres del tutelado hayan designado en testamento o documento público notarial para ejercer la tutela conjuntamente.

Artículo 237

En el caso del número 4 del artículo anterior, si el testador lo hubiere dispuesto de modo expreso, y en el caso del número 2, si los padres lo solicitaran, podrá el Juez, al efectuar el nombramiento de tutores, resolver que éstos puedan ejercitar las facultades de la tutela con carácter solidario.

De no mediar tal clase de nombramiento, en todos los demás casos, y sin perjuicio de lo dispuesto en los números 1 y 2, las facultades de la tutela encomendadas a varios tutores habrán de ser ejercitadas por éstos conjuntamente, pero valdrá lo que se haga con el acuerdo del mayor número. A falta de tal acuerdo, el Juez, después de oír a los tutores y al tutelado si tuviere suficiente juicio, resolverá sin ulterior recurso lo que estime conveniente. Para el caso de que los desacuerdos fueran

ondareari inguruabar bereziak gertatzeagatik, komeni denean kargu desberdin gisa bereiztea pertsonaren tutorea eta ondasunen tutorea; horrelakoetan, tutore bakoitzak bere buruz jardungo du bere eskumen-eremuan, baina bi-biei dagozkien erabakiak batera hartu beharko dituzte.

2. Tutoretza aitari eta amari dagokienean; horrelakoetan, aita eta ama batera arituko dira tutoretzan, guraso-ahala nola egikaritu eta modu berean.

3. Inor bere neba edo arrebaren seme-alaben tutore izendatu denean, komenigarritzat jo bada tutorearen ezkontideak ere tutoretza horretan jardutea.

4. Epaileak tutore izendatzen dituenetan tutoretzapekoaren gurasoek testamentuan nahiz notario-agiri publikoan izendatu dituzten pertsonak, pertsona horiek batera tutoretzan jardun dezaten.

237. artikulua

Aurreko artikulua 4. zenbakira bildutako kasuan, testamentugileak beren beregi hala xedatzen badu, eta 2. zenbakira bildutako kasuan, gurasoek hala eskatzen badute, epaileak, tutoreak izendatzean, erabaki dezake tutore horiek modu solidarioan egikaritu ahal izatea tutoretzaren ahalmenak.

Mota horretako izendapenik egin ezean, eta 1 eta 2. zenbakietan xedatutakoari kalterik egin gabe, gainerako kasu guztietan, tutoreek batera egikaritutako tutoretza-ahalmenak; hala ere, baliozkoa izango da tutore gehienek erabakiz egindakoa. Halako erabakirik izan ezean, epaileak entzungo die tutoreei eta tutoretzapekoari, azken horrek behar besteko zentzutasuna baldin badu; ondoren, epaileak bere ustez komeni dena

reiterados y entorpeciesen gravemente el ejercicio de la tutela, podrá el Juez reorganizar su funcionamiento e incluso proveer de nuevo tutor.

Artículo 237bis

Si los tutores tuvieren sus facultades atribuidas conjuntamente y hubiere incompatibilidad u oposición de intereses en alguno de ellos para un acto o contrato, podrá éste ser realizado por el otro tutor, o, de ser varios, por los demás en forma conjunta.

Artículo 238

En los casos de que por cualquier causa cese alguno de los tutores, la tutela subsistirá con los restantes a no ser que al hacer el nombramiento se hubiera dispuesto otra cosa de modo expreso.

Artículo 239

La tutela de los menores desamparados corresponde por Ley a la entidad a que se refiere el artículo 172.

Se procederá, sin embargo, al nombramiento de tutor conforme a las reglas ordinarias, cuando existan personas que, por sus relaciones con el menor o por otras circunstancias, puedan asumir la tutela con beneficio para éste.

La entidad pública a la que, en el respectivo territorio, esté encomendada la tutela de los incapaces cuando ninguna de las personas recogidas en el artículo 234 sea nombrado tutor, asumirá por ministerio de la ley la tutela del incapaz o cuando éste se encuentre en situación de desamparo. Se considera como situación de desamparo la que se produce de hecho a causa del incumplimiento o del imposible o

erabakiko du gerogarreneko errekurtsorik gabe. Desadostasunak etengabeakoak badira eta modu larrian oztopatzen badute tutoretza betetzea, epaileak tutoretza horren jardunbidea berrantolatu ahal izango du, eta beste tutore bat ere izenda dezake.

237bis artikulua

Tutoreei batera eratziki bazaizkie euren ahalmenak, eta, egintza edo kontratu jakin bati begira, interesen arteko bateraezintasuna edo aurkatasuna sortzen bada tutore baten inguruan, beste tutoreak, edo, tutore bat baino gehiago izanez gero, gainerako tutoreek batera gauza dezakete halako egintza edo kontratua.

238. artikulua

Edozein arrazoiren ondorioz, tutore batek kargua uzten badu, tutoretzak bere horretan irauten du gainerako tutoreekin, salbu eta izendapena egitean beren beregi besterik xedatu denean.

239. artikulua

172. artikulua aipatzen duen erakundeari dagokio, lege-aginduz, babesik ez duten adingabeen gaineko tutoretza.

Nolanahi ere, erregela arruntekin bat etorri izendatu behar da tutorea, pertsona jakin batzuek, adingabearekin dituzten harremanengatik edo beste inguruabar batzuek, tutoretza bereganatu ahal dutenean tutoretzapekoaren onurarako.

234. artikuluan aipatutako pertsonetatik bat ere ez denean tutore izendatu, kasuan kasuko lurraldean adingabeen babesaz arduratzen den herri-erakundeak, lege-aginduz, bere gain hartuko du ezgaiaren edo babesgabezia dagoenaren gaineko tutoretza. Babesgabezia- egoeratzat har daiteke egitez gertatzen dena, tutoreari legeek ezartzen dizkieten eginbeharrak ez-betetzeagatik edo eginbehar horien

inadecuado ejercicio de los deberes que le incumben de conformidad con las leyes, cuando éstos queden privados de la necesaria asistencia moral o material.

Artículo 240

Si hubiere que designar tutor para varios hermanos, el juez procurará que el nombramiento recaiga en una misma persona.

Artículo 241

Podrán ser tutores todas las personas que se encuentren en el pleno ejercicio de sus derechos civiles y en quienes no concurra alguna de las causas de inhabilitación establecidas en los artículos siguientes.

Artículo 242

Podrán ser también tutores las personas jurídicas que no tengan finalidad lucrativa y entre cuyos fines figure la protección de menores e incapacitados.

Artículo 243

No pueden ser tutores:

1. Los que estuvieran privados o suspendidos en el ejercicio de la patria potestad o total o parcialmente de los derechos de guarda y educación, por resolución judicial.
2. Los que hubieren sido legalmente removidos de una tutela anterior.
3. Los condenados a cualquier pena privativa de libertad, mientras están cumpliendo la condena.
4. Los condenados por cualquier delito que haga suponer fundamentalmente que no desempeñarán bien la tutela.

Artículo 244

Tampoco pueden ser tutores:

1. Las personas en quienes concurra

egikaritza ezinezko nahiz desegoki izateagatik, adingabeei ez zaienean ematen nahitaezko duten laguntza moral edo materiala.

240. artikulua

Neba-arreba batzuentzat tutorea izendatu behar bada, epaileak, ahal den neurrian, pertsona bera izendatuko du guztion tutore.

241. artikulua

Edozein pertsona tutore izan daiteke, baldin eta pertsona horrek bere eskubide zibilen oso-osoko egikaritza badu eta hurrengo artikuluetan ezarritako desgaituntza-arrazoietatik bat ere betetzen ez badu.

242. artikulua

Pertsona juridikoak ere tutore izan daitezke, irabaziak lortzeko asmorik ez badute eta euren helburua adingabeak eta ezgaituak babestea bada.

243. artikulua

Ezin dira tutore izan:

1. Epaileak emandako ebazpenaren bitartez, guraso-ahalaren egikaritza kendu edo etenda dutenak, edota zaintza nahiz hezkuntzarako eskubideak oso-osorik zein zati batez kendu edo etenda dituztenak.
2. Lege-aginduz, aurreko tutoretza batetik enkaituak izan direnak.
3. Askatasuna kentzeko zigorretatik edozeinen ondorioz, kondenatuak izan direnak, kondena hori betetzen dauden artean.
4. Edozein delituren ondorioz kondenatuak izan direnak, hortik funtsez atera badaiteke pertsona horiek ez dutela behar den moduan jardungo tutoretzan.

244. artikulua

Era berean, ezin dira tutore izan:

1. Egitez erabateko ezintasuna duten

imposibilidad absoluta de hecho.

2. Los que tuvieren enemistad manifiesta con el menor o incapacitado.
3. Las personas de mala conducta o que no tuvieren manera de vivir conocida.
4. Los que tuvieren importantes conflictos de intereses con el menor o incapacitado, mantengan con él pleito o actuaciones sobre el estado civil o sobre la titularidad de los bienes o los que le adeudaren sumas de consideración.
5. Los quebrados y concursados no rehabilitados, salvo que la tutela lo sea solamente de la persona.

Artículo 245

Tampoco pueden ser tutores los excluidos expresamente por el padre o por la madre en sus disposiciones en testamento o documento notarial, salvo que el Juez, en resolución motivada, estime otra cosa en beneficio del menor o del incapacitado.

Artículo 246

Las causas de inhabilidad contempladas en los artículos 243.4 y 244.4 no se aplicarán a los tutores designados en las disposiciones de última voluntad de los padres cuando fueron conocidas por éstos en el momento de hacer la designación, salvo que el Juez, en resolución motivada, disponga otra cosa en beneficio del menor o del incapacitado.

Artículo 247

Serán removidos de la tutela los que después de deferida incurran en causa legal de inhabilidad, o se conduzcan mal en el desempeño de la tutela, por incumplimiento de los deberes propios del cargo o por notoria ineptitud en su ejercicio, o cuando surgieran problemas de convivencia graves y continuados.

pertsonak.

2. Adingabearekin edo ezgaituarekin begi-bistako areriotasuna dutenak.
3. Jokabide makurreko pertsonak edo bizibide ezagunik ez dutenak.
4. Adingabearekin edo ezgaituarekin interes-gatazka garrantzitsuak dituztenak; harekin egoera zibilari nahiz ondasunen titulartasunari buruzko auzia edo eztabaida dutenak; edota adingabe edo ezgaituari diru-kopuru handiak zor dizkietenak.
5. Porrot eginak eta birgaitu gabeko konkurtsatuak, pertsonaren gaineko tutoretzaren kasuan izan ezik.

245. artikulua

Halaber, ezin dira tutore izan aita edo amak, testamentura nahiz notario-agirira bildutako xedapenetan, beren beregi tutoretzatik kanpo utzi dituztenak, salbu eta epaileak ebazpen ziodunean besterik ezartzen duenean adingabe edo ezgaituaren onurarako.

246. artikulua

243.4 eta 244.4 artikuluetan gaikuntza ez izateko ezarri arrazoiak ez zaizkie aplikatuko gurasoek euren azken nahiaren xedapenetan izendaturiko tutoreei, gurasoentzat arrazoi horiek ezagunak direnean izendapena egiteko unean; hala ere, epaileak, ebazpen ziodunean, bestelakoa ezar dezake adingabearen edo ezgaituaren onurarako.

247. artikulua

Karguaz jabetu eta gero, tutoreak tutoretzatik enkaituak izango dira, gaikuntza ez izateko legezko arrazoiaren sartu direnean; tutoretzan jardutean makur jokatu dutenean; karguari datxezkion eginbeharren ez-betetzea gauzatu dutenean; nabariro azaldu denean pertsona horiek ez direla kargua betetzeko gauza; edo tutoreek eta tutoretzapekoek

Artículo 248

El Juez, de oficio o a solicitud del Ministerio Fiscal, del tutelado o de otra persona interesada decretará la remoción del tutor, previa audiencia de éste si, citado, compareciere. Asimismo, se dará audiencia al tutelado si tuviere suficiente juicio.

Artículo 249

Durante la tramitación del procedimiento de remoción, podrá el Juez suspender en sus funciones al tutor y nombrar al tutelado un defensor judicial.

Artículo 250

Declarada judicialmente la remoción, se procederá al nombramiento de nuevo tutor en la forma establecida en este Código.

Artículo 251

Será excusable el desempeño de la tutela cuando por razones de edad, enfermedad, ocupaciones personales o profesionales, por falta de vínculos de cualquier clase entre tutor y tutelado o por cualquier otra causa, resulte excesivamente gravoso el ejercicio del cargo.

Las personas jurídicas podrán excusarse cuando carezcan de medios suficientes para el adecuado desempeño de la tutela.

Artículo 252

El interesado que alegue causa de excusa deberá hacerlo dentro del plazo de quince días a contar desde que tuviera conocimiento del nombramiento.

Artículo 253

El tutor podrá excusarse de continuar

elkarrekin bizitzeko arazo larriak eta jarraikakoak agertu dituztenean.

248. artikulua

Epaileak, ofizioz edo Fiskaltzak, tutoretzapekoak nahiz beste edozein pertsona interesdunek hala eskaturik, tutorea kargutik enkaitzeko dekreta dezake; horretarako, aldez aurretik, tutoreari zitazioa egingo dio, eta, hori bertan agertzen bada, berak esan beharrekoa entzungo du. Halaber, adingabeak esan beharrekoa ere entzungo da behar besteko zentzutasuna badu.

249. artikulua

Enkaitze-prozeduraren izapideak egin bitartean, epaileak tutorearen eginkizunak eten ditzake, eta tutoretzapekoarentzat defendatzaile judiziala izenda dezake.

250. artikulua

Enkaitzea epaiketaren bidez adierazi eta gero, beste tutore bat izendatu behar da kode honetan ezarritako moduan.

251. artikulua

Tutorea tutoretzan aritzetik desenkusa daiteke, kargu horretan jarduteak gehiegizko kargak dakartzanean, adinaren, gaixotasunaren, zeregin pertsonalen edo lanbide-zereginen ondorioz, tutorearen eta tutoretzapekoaren artean loturarik ez izatearen ondorioz edo beste edozein arrazoiren ondorioz.

Pertsona juridikoak tutoretzatik desenkusa daitezke, behar besteko baliabiderik ez dutenean tutoretza egoki betetzeko.

252. artikulua

Interesdunak desenkusa-arrazoia alegatzen badu, alegazio hori hamabost eguneko epean egin beharko du izendapenaren berri izan duenetik.

253. artikulua

251. artikuluan aipaturiko desenkusa-

ejerciendo la tutela, siempre que hubiera persona de parecidas condiciones para sustituirle, cuando durante el desempeño de aquélla le sobrevenga cualquiera de los motivos de excusa contemplados en el artículo 251.

Artículo 254

Lo dispuesto en el artículo anterior no se aplicará a la tutela encomendada a las personas jurídicas.

Artículo 255

Si la causa de excusa fuera sobrevenida, podrá ser alegada en cualquier momento.

Artículo 256

Mientras se resuelva acerca de la excusa, el que la haya propuesto estará obligado a ejercer la función.

No haciéndolo así, el Juez nombrará un defensor que le sustituya, quedando el sustituido responsable de todos los gastos ocasionados por la excusa si ésta fuera rechazada.

Artículo 257

El tutor designado en testamento que se excuse de la tutela al tiempo de su delación perderá lo que, en consideración al nombramiento, le hubiere dejado el testador.

Artículo 258

Admitida la excusa se procederá al nombramiento de nuevo tutor.

SECCIÓN III *Del ejercicio de la tutela*

Artículo 259

La Autoridad judicial dará posesión de su cargo al tutor nombrado.

Artículo 260

El Juez podrá exigir al tutor la constitución

arrazoietatik edozein gertatze bidez azaltzen bada tutoretza betetzen den bitartean, tutorea desenkusa daiteke tutoretza betetzetik; baina, horretarako, bera ordezteko pertsonaren bat izan behar da, eta pertsona horrek aurreko tutorearen antzeko baldintzak izan behar ditu.

254. artikulua

Aurreko artikuluan xedatutakoa ez zaio aplikatuko pertsona juridikoen ardurapean utzitako tutoretzari.

255. artikulua

Desenkusatzeko arrazoia gertatze bidezkoa baldin bada, edozein unetan alega daiteke.

256. artikulua

Desenkusari buruzko ebazpena ematen ez den artean, desenkusa hori proposatu duenak eginkizuna gauzatzeko betebeharra du.

Hori egin ezean, epaileak defendatzailea izendatuko du haren ordeze; desenkusa ezetsiz gero, ordeztuak izango du desenkusa horrek eragin dituen gastu guztien gaineko erantzukizuna.

257. artikulua

Testamentuan izendaturiko tutorea tutoretzatik desenkusatzeko bada tutoretza horren delazio-unean, galdu egiten du testamentugileak izendapena delaeta berari utzi diona.

258. artikulua

Behin desenkusa onartuz gero, beste tutore bat izendatu behar da.

III. ATALA *Tutoretzan aritzea*

259. artikulua

Izendaturiko tutorea karguaz jabetuko da agintaritza judizialaren eskutik.

260. artikulua

Epaileak tutoreari eska diezaiotse fidantza

de fianza que asegure el cumplimiento de sus obligaciones y determinará la modalidad y cuantía de la misma.

No obstante, la entidad pública que asuma la tutela de un menor por ministerio de la Ley o la desempeñe por resolución judicial no precisará prestar fianza.

Artículo 261

También podrá el Juez, en cualquier momento y con justa causa, dejar sin efecto o modificar en todo o en parte la garantía que se hubiese prestado.

Artículo 262

El tutor está obligado a hacer inventario de los bienes del tutelado dentro del plazo de sesenta días, a contar de aquél en que hubiese tomado posesión de su cargo.

Artículo 263

La Autoridad judicial podrá prorrogar este plazo en resolución motivada si concurriera causa para ello.

Artículo 264

El inventario se formará judicialmente con intervención del Ministerio Fiscal y con citación de las personas que el Juez estime conveniente.

Artículo 265

El dinero, alhajas, objetos preciosos y valores mobiliarios o documentos que, a juicio de la Autoridad judicial, no deban quedar en poder del tutor serán depositados en un establecimiento destinado a este efecto.

Los gastos que las anteriores medidas ocasionen correrán a cargo de los bienes del tutelado.

Artículo 266

El tutor que no incluya en el inventario los

eratzea, betebarren betetzea ziurtatzeko; epaileak fidantza horren modalitatea eta zenbatekoa zehaztuko ditu.

Hala ere, herri-erakundeak ez du fidantzarik eman behar, baldin eta adingabearen gaineko tutoretza lege-aginduz bereganatu badu, edo tutoretza hori epaileak emandako ebazpenaren aginduz betetzen badu.

261. artikulua

Berebat, edozein unetan eta arrazoi zuzena izanez gero, epaileak aldaraz edo ondorerik gabe utz dezake, oso-osorik zein zati batez, kasuan-kasuan emandako bermea.

262. artikulua

Karguaz jabetu eta hurrengo hirurogei egunetako epean zehar, tutoreak inbentarioa egin behar du tutoretzapekoaren ondasunei buruz.

263. artikulua

Agintaritza judizialak epe hori luza dezake ebazpen ziodunean, horretarako arrazoi baldin badago.

264. artikulua

Inbentarioa epaiketaren bidez eratu behar da, Fiskaltzaren esku-hartzearekin eta epailearen iritziz egoki diren pertsonen zitazioa eginez.

265. artikulua

Agintaritza judizialaren ustez tutorearen eskuetan utzi behar ez diren dirua, bitxiak, objektu baliotsuak eta balore nahiz agiri higigarriak horretarako destinatutako establezimenduan gordailutuko dira.

Tutoretzapekoaren ondasunekin ordainduko dira aurreko neurriek eratortzen dituzten gastuak.

266. artikulua

Tutoreak ez baditu inbentarioan sartzen

créditos que tenga contra el tutelado se entenderá que los renuncia.

Artículo 267

El tutor es el representante del menor o incapacitado, salvo para aquellos actos que pueda realizar por sí solo, ya sea por disposición expresa de la Ley o de la sentencia de incapacitación.

Artículo 268

Los sujetos a tutela deben respeto y obediencia al tutor.

Los tutores podrán, en el ejercicio de su cargo, recabar el auxilio de la autoridad.

Podrán también corregir a los menores razonable y moderadamente.

Artículo 269

El tutor está obligado a velar por el tutelado y, en particular:

1. A procurarle alimentos.
2. A educar al menor y procurarle una formación integral.
3. A promover la adquisición o recuperación de la capacidad del tutelado y su mejor inserción en la sociedad.
4. A informar al Juez anualmente sobre la situación del menor o incapacitado y rendirle cuenta anual de su administración.

Artículo 270

El tutor único y, en su caso, el de los bienes es el administrador legal del patrimonio de los tutelados y está obligado a ejercer dicha administración con la diligencia de un buen padre de familia.

Artículo 271

El tutor necesita autorización judicial:

tutoretzapekoaren aurka dituen kredituak, ulertuko da tutoreak kredituoi uko egiten diela.

267. artikulua

Tutorea adingabearen edo ezgaituaren ordezkaria da, adingabe nahiz ezgaitu horrek, legeak beren beregi ezarritako xedapenaren arabera edo ezgaiteta-epaiaren arabera, bere kabuz burutu ahal dituen egintzetarako izan ezik.

268. artikulua

Tutoretzapekoek begirunea eta obediencia zor dizkiote tutoreari.

Tutoreek, euren karguan jardutean, agintaritzaren laguntza eska dezakete.

Halaber, adingabeak zuzen ditzakete zentzuz eta neurriz.

269. artikulua

Tutoreari dagokio tutoretzapekoa jagotea, eta, bereziki:

1. Tutoretzapekoari mantenua ematea.
2. Adingabea hezi eta horri oso-osoko heziketa ematea.
3. Tutoretzapekoak gaitasuna eskura edo berreskura dezan eta tutoretzapeko hori hobeto gizartera dadin eragitea.
4. Urtero-urtero, epaileari informazioa ematea adingabe edo ezgaituaren egoerari buruz, eta administrazioaren urteko kontu-arrazoia ematea.

270. artikulua

Tutore bakarrak eta, hala denean, ondasunen tutoreak, tutoretzapekoen ondarea administratzen dute lege-aginduz, eta administrazio hori burutu behar dute familiako guraso on batek egingo lukeen moduan.

271. artikulua

Tutoreak epailearen baimena izan behar du:

1. Para internar al tutelado en un establecimiento de salud mental o de educación o formación especial.

2. Para enajenar o gravar bienes inmuebles, establecimientos mercantiles o industriales, objetos preciosos y valores mobiliarios de los menores o incapacitados, o celebrar contratos o realizar actos que tengan carácter dispositivo y sean susceptibles de inscripción. Se exceptúa la venta del derecho de suscripción preferente de acciones.

3. Para renunciar derechos, así como transigir o someter a arbitraje cuestiones en que el tutelado estuviese interesado.

4. Para aceptar sin beneficio de inventario cualquier herencia, o para repudiar ésta o las liberalidades.

5. Para hacer gastos extraordinarios en los bienes.

6. Para entablar demanda en nombre de los sujetos a tutela, salvo en los asuntos urgentes o de escasa cuantía.

7. Para ceder bienes en arrendamiento por tiempo superior a seis años.

8. Para dar y tomar dinero a préstamo.

9. Para disponer a título gratuito de bienes o derechos del tutelado.

10. Para ceder a terceros los créditos que el tutelado tenga contra él, o adquirir a título oneroso los créditos de terceros contra el tutelado.

Artículo 272

No necesitarán autorización judicial la partición de herencia ni la división de cosa común realizadas por el tutor, pero una vez practicadas requerirán aprobación judicial.

1. Adingabea buru-osasunerako establezimenduan edo hezkuntza nahiz heziketa berezirako establezimenduan sartzeko.

2. Adingabeen nahiz ezgaituen ondasun higiezinak, merkataritza zein industriako establezimenduak, objektu baliotsuak eta balore higigarriak besterendu edo kargatzeko; eta kontratuak egin edota egintzak burutzeko, baldin eta kontratu edo egintza horiek xedatzaileak eta inskribatzeko modukoak badira. Salbuespen gisa har daiteke akzioak lehenespenez harpidetzeko eskubidearen salmenta.

3. Eskubideei uko egiteko; tutoretzapekoarentzat interesgarriak diren gaietan transakzioa egiteko; eta gai horiek tartekaritzapean jartzeko.

4. Inbentario onurarik gabe edozein jarauntsi onartzeko; eta jarauntsiak nahiz eskuzabaltasunak arbuiaitzeko.

5. Ondasunetan gastu bereziak egiteko.

6. Tutoretzapekoen izenean demanda jartzeko, presako gaietan edo balio gutxiko gaietan izan ezik.

7. Ondasunak errentan emateko, errentamendu horiek sei urtetik gorako iraupena dutenean.

8. Dirua maileguan eman edo hartzeko.

9. Tutoretzapekoaren ondasunak nahiz eskubideak dohainik xedatzeko.

10. Tutoretzapekoak tutore horren aurka dituen kredituak hirugarrenei lagatzeko, edo hirugarrenek tutoretzapekoaren aurka dituzten kredituak kostu bidez eskuratzeko.

272. artikulua

Jarauntsia banatu edo gauza erkidea zatitzeko, tutoreak ez du epailearen baimenik behar; baina, banaketa eta zatiketa egin eta gero, beharrezkoa izango

Artículo 273

Antes de autorizar o aprobar cualquiera de los actos comprendidos en los dos artículos anteriores, el Juez oirá al Ministerio Fiscal y al tutelado, si fuese mayor de doce años o lo considera oportuno, y recabará los informes que le sean solicitados o estime pertinentes.

Artículo 274

El tutor tiene derecho a una retribución, siempre que el patrimonio del tutelado lo permita. Corresponde al Juez fijar su importe y el modo de percibirlo, para lo cual tendrá en cuenta el trabajo a realizar y el valor y la rentabilidad de los bienes, procurando en lo posible que la cuantía de la retribución no baje del 4 por ciento ni exceda del 20 por ciento del rendimiento líquido de los bienes.

Artículo 275

Sólo los padres, y en sus disposiciones de última voluntad, podrán establecer que el tutor haga suyos los frutos de los bienes del tutelado a cambio de prestarle los alimentos, salvo que el Juez, en resolución motivada, disponga otra cosa.

SECCIÓN IV De la extinción de la tutela y de la rendición final de cuentas

Artículo 276

La tutela se extingue:

1. Cuando el menor de edad cumple los dieciocho años, a menos que con anterioridad hubiera sido judicialmente incapacitado.
2. Por la adopción del tutelado menor de

da epaileak horiek onestea.

273. artikulua

Aurreko bi artikuluetan jasotako egintzetatik edozein baimendu edo onetsi baino lehen, epaileak entzungo die Fiskaltzari eta tutoretzapekoari ere, hori hamabi urtekoa baino nagusiagoa bada edo epailearentzat horri entzutea egoki gertatzen bada; berebat, epaileak bilduko ditu berari eskatu zaizkion txostenak eta bere ustez komenigarri direnak.

274. artikulua

Tutoreak ordainsaria jasotzeko eskubidea du, tutoretzapekoaren ondareak hori ahalbidetzen badu. Epaileari dagokio ordainsariaren zenbatekoa eta berori jasotzeko modua finkatzea, eta, horretarako, kontuan hartuko ditu egin beharreko lana, eta ondasunen balioa eta errentagarritasuna; ahal den neurrian, ordainsariaren zenbatekoa ez da izan behar ondasunen etekin likidoaren ehuneko 4tik beherakoa, ezta ehuneko 20tik gorakoa ere.

275. artikulua

Gurasoek bakarrik, eta betiere euren azken nahiaren xedapenetan, aukera eman diezaioke tutoreari, horrek tutoretzapekoaren ondasunek sortzen dituzten fruituak beregana ditzan, tutoretzapekoari mantenua ematearen truk, salbu eta epaileak ebazpen ziodunean besterik xedatzen duenean.

IV. ATALA Tutoretza azkendu eta azken kontu-arrazoiak ematea

276. artikulua

Tutoretza azkentzen da:

1. Adingabeak hemezortzi urte betetzen dituztenean, salbu eta aurretiaz epaiketaren bidez ezgaitua izan denean.
2. Tutoretzapeko adingabea adoptatzen

edad.

3. Por fallecimiento de la persona sometida a tutela.

4. Por la concesión al menor del beneficio de la mayor edad.

Artículo 277

También se extingue la tutela:

1. Cuando habiéndose originado por privación o suspensión de la patria potestad, el titular de ésta la recupere.

2. Al dictarse la resolución judicial que ponga fin a la incapacitación o que modifique la sentencia de incapacitación en virtud de la cual se sustituye la tutela por la curatela.

Artículo 278

Continuará el tutor en el ejercicio de su cargo si el menor sujeto a tutela hubiese sido incapacitado antes de la mayoría de edad, conforme a lo dispuesto en la sentencia de incapacitación.

Artículo 279

El tutor al cesar en sus funciones deberá rendir cuenta general justificada de su administración ante la Autoridad judicial en el plazo de tres meses, prorrogables por el tiempo que fuere necesario si concurre justa causa.

La acción para exigir la rendición de esta cuenta prescribe a los cinco años, contados desde la terminación del plazo establecido para efectuarlo.

Artículo 280

Antes de resolver sobre la aprobación de la cuenta, el Juez oír al nuevo tutor o, en su caso, al curador o al defensor judicial, y a la persona que hubiera estado sometida a tutela o a sus herederos.

denean.

3. Tutoretzapean dagoen pertsona hiltzen denean.

4. Adingabeari adin-nagusitasunaren onura ematen zaionean.

277. artikulua

Modu berean ere, tutoretza azkentzen da:

1. Guraso-ahala kendu nahiz eteteagatik tutoretza eratu eta gero, ahalaren titularrak hori berreskuratzen duenean.

2. Ezgaietaren amaiera dakarren edo ezgaieta-epaia aldarazten duen ebazpen judiciala ematen denean, baldin eta ebazpen horren ondorioz kuradoretzak tutoretza ordeztzen badu.

278. artikulua

Tutoreak bere karguan aritzeari eutsiko dio, tutoretzapeko adingabea ezgaitua izan bada adin-nagusitasunera heldu baino lehen, ezgaieta-epaian xedatutakoarekin bat etorritik.

279. artikulua

Tutoreak, bere eginkizunak bukatzean, bere administrazioari buruzko kontu-arrazoi orokor eta egiaztatua eman beharko dio agintaritzaren judizialari, hiru hilabeteko epean; epe hori behar den beste luza daiteke, horretarako arrazoi zuzena izanez gero.

Bost urte igarotakoan preskribatzen da kontu-arrazoiaren ematea eskatzeko akzioa; epe horren zenbaketa hasten da, kontu-arrazoiaren ematea gauzatzeko zein epe ezarri eta hori igaro denetik.

280. artikulua

Kontu-arrazoiaren onepenera buruz ebazpena eman baino lehen, epaileak entzungo die tutore berriari, edo, hala denean, kuradore edo defendatzaile judizialari, eta tutoretzapean egondako pertsonari edo horren jaraunslari.

Artículo 281

Los gastos necesarios de la rendición de cuentas, serán a cargo del que estuvo sometido a tutela.

Artículo 282

El saldo de la cuenta general devengará interés legal, a favor o en contra del tutor.

Artículo 283

Si el saldo es a favor del tutor, devengará interés legal desde que el que estuvo sometido a tutela sea requerido para el pago, previa entrega de sus bienes.

Artículo 284

Si es en contra del tutor, devengará interés legal desde la aprobación de la cuenta.

Artículo 285

La aprobación judicial no impedirá el ejercicio de las acciones que recíprocamente puedan asistir al tutor y al tutelado o a sus causahabientes por razón de la tutela.

CAPÍTULO III De la curatela

SECCIÓN I Disposiciones generales

Artículo 286

Están sujetos a curatela:

1. Los emancipados cuyos padres fallecieron o quedaran impedidos para el ejercicio de la asistencia prevenida por la Ley.
2. Los que obtuvieron el beneficio de la mayor edad.
3. Los declarados pródigos.

Artículo 287

Igualmente procede la curatela para las personas a quienes la sentencia de incapacitación o, en su caso, la resolución judicial que la modifique coloquen bajo esta

281. artikulua

Tutoretzapean egon den pertsonak ordainduko ditu kontu-arrazoiak emateko beharrezkoak diren gastuak.

282. artikulua

Kontu orokorraren saldoak legezko korrituak sortuko ditu tutorearen mesederako nahiz horren kalterako.

283. artikulua

Saldoa tutorearen mesederako bada, saldo horrek legezko korrituak sortuko ditu, tutoretzapean egondakoari bere ondasunak itzuli eta ordainketa eskatu zaionetik.

284. artikulua

Saldoa tutorearen kalterako bada, saldo horrek legezko korrituak sortuko ditu, kontua onetsi denetik.

285. artikulua

Epailearen onespentak ez du eragotziko tutoreak eta tutoretzapekoak edo horren kausadunek egikaritzea tutoretza dela-eta elkarren aurka dituzten akzioak.

III. KAPITULUA Kuradoretza

I. ATALA Xedapen orokorrak

286. artikulua

Kuradoretzaren menpe daude:

1. Emantzipatuak, euren gurasoak hil badira, edo guraso horiek ezintasunen bat badute legeak agindutako laguntza emateko.
2. Adin-nagusitasunaren onura lortu dutenak.
3. Zarrastelkeria-adierazpena dutenak.

287. artikulua

Era berean, kuradoretza bidezkoa da, babes-zeregin horren menpe geratu direnentzat, euren zentzutasun-maila kontuan harturik emandako ezgaiketa-

forma de protección en atención a su grado de discernimiento.

Artículo 288

En los casos del artículo 286, la curatela no tendrá otro objeto que la intervención del curador en los actos que los menores o pródigos no puedan realizar por sí solos.

Artículo 289

La curatela de los incapacitados tendrá por objeto la asistencia del curador para aquellos actos que expresamente imponga la sentencia que la haya establecido.

Artículo 290

Si la sentencia de incapacitación no hubiese especificado los actos en que deba ser necesaria la intervención del curador, se entenderá que ésta se extiende a los mismos actos en que los tutores necesitan, según este Código, autorización judicial.

Artículo 291

Son aplicables a los curadores las normas sobre nombramiento, inhabilidad, excusa y remoción de los tutores.

No podrán ser curadores los quebrados y concursados no rehabilitados.

Artículo 292

Si el sometido a curatela hubiese estado con anterioridad bajo tutela, desempeñará el cargo de curador el mismo que hubiese sido su tutor, a menos que el Juez disponga otra cosa.

Artículo 293

Los actos jurídicos realizados sin la intervención del curador, cuando esta sea preceptiva, serán anulables a instancia del propio curador o de la persona sujeta a curatela, de acuerdo con los artículos 1301 y siguientes de este Código.

epaiaren ondorioz, edo, hala denean, epai hori aldarazten duen ebazpen judizialaren ondorioz.

288. artikulua

286. artikulua kasuetan, kuradoretzaren helburua izango da kuradoreak esku hartzea, adingabeek edo zarrastelek euren kabuz burutu ezin dituzten egintzetan.

289. artikulua

Ezgaituen gaineko kuradoretzaren helburua izango da kuradoreak laguntza ematea, kuradoretza hori ezarri duen epaiak beren beregi aipaturiko egintzetan.

290. artikulua

Ezgaiketa-epaiak ez badu zehaztu kuradoreak zein egintzatan esku hartu behar duen, ulertuko da esku-hartze hori hedatzen dela kode honen arabera tutoreek epailearen baimena zein egintzatan behar eta egintza berberetara.

291. artikulua

Kuradoreei aplikatu behar zaizkie tutoreen izendapen, gaikuntza ez, desenkusa eta enkaitzearen inguruko arauak.

Ezin dira kuradore izan porrot eginak eta birgaitu gabeko konkurtsatuak.

292. artikulua

Kuradoretzapekoa aurretiaz tutoretzapean egon bada, tutore izandakoak beteko du kuradorearen kargua, epaileak aurkakoa xedatzen ez badu.

293. artikulua

Egintza juridiko jakin batzuetan kuradorearen esku-hartzea manuzkoa izanik, egintzok haren esku-hartzerik gabe burutzen direnean, deuseztagarriak dira, kuradoreak berak edo kuradoretzapean dagoenak hala eskatuz gero, kode honen 1301. artikulua eta ondorengo arabera.

SECCIÓN II *De la curatela en casos de prodigalidad*

Artículo 294

Suprimido por la Ley 1/2000, de 7 de enero, de Enjuiciamiento Civil.

Artículo 295

Suprimido por la Ley 1/2000, de 7 de enero, de Enjuiciamiento Civil.

Artículo 296

Suprimido por la Ley 1/2000, de 7 de enero, de Enjuiciamiento Civil.

Artículo 297

Los actos del declarado pródigo anteriores a la demanda de prodigalidad no podrán ser atacados por esta causa.

Artículo 298

Suprimido por la Ley 1/2000, de 7 de enero, de Enjuiciamiento Civil.

CAPÍTULO IV **Del defensor judicial**

Artículo 299

Se nombrara un defensor judicial que represente y ampare los intereses de quienes se hallen en alguno de los siguientes supuestos:

1. Cuando en algún asunto exista conflicto de intereses entre los menores o incapacitados y sus representantes legales o el curador. En el caso de tutela conjunta ejercida por ambos padres, si el conflicto de intereses existiere sólo con uno de ellos, corresponderá al otro por ley, y sin necesidad de especial nombramiento, representar y amparar al menor o incapacitado.
2. En el supuesto de que, por cualquier causa, el tutor o el curador no desempeñare sus funciones, hasta que cese la causa determinante o se designe otra persona para desempeñar el cargo.

II. ATALA Kuradoretza, zarrastelkeria-kasuetan

294. artikulua

Ezabatua, Prozedura Zibilari buruzko urtarrilaren 7ko 1/2000 Legearen ondorioz.

295. artikulua

Ezabatua, Prozedura Zibilari buruzko urtarrilaren 7ko 1/2000 Legearen ondorioz.

296. artikulua

Ezabatua, Prozedura Zibilari buruzko urtarrilaren 7ko 1/2000 Legearen ondorioz.

297. artikulua

Zarrastelkeria-adierazpena duenak egintza batzuk burutzen baditu zarrastelkeria-demanda jarri baino lehen, ezin da egintza horien aurka jo arrazoi horretan oinarrituz.

298. artikulua

Ezabatua, Prozedura Zibilari buruzko urtarrilaren 7ko 1/2000 Legearen ondorioz.

IV. KAPITULUA **Defendatzaile judiziala**

299. artikulua

Defendatzaile judiziala izendatu behar da, defendatzaile horrek pertsona jakin batzuen interesak ordezkari eta babes ditzan, baldin eta pertsona horien inguruan ondoko kasuetatik bat betetzen bada:

1. Gai zehatz baten inguruan interes-gatazka izatea, adingabeen edo ezgaituen eta euren legezko ordezkari nahiz kuradoreen artean. Bi gurasoek batera tutoretza betetzen dutela, interes-gatazka guraso bati begira bakarrik sortzen bada, beste gurasoari dagokio, lege-aginduz eta izendapen berezirik gabe, adingabea edo ezgaitua ordezkatu eta babestea.
2. Edozein arrazoi dela bide, tutoreak edo kuradoreak bere eginkizunetan ez jardutea; halakoetan, epaileak defendatzailea izendatuko du, arrazoi hori desagertu arte edo karguan aritzeko beste pertsona bat

3. En todos los demás casos previstos en este Código.

Artículo 299bis

Cuando se tenga conocimiento de que una persona debe ser sometida a tutela y en tanto no recaiga solución judicial que ponga fin al procedimiento, asumirá su representación y defensa el Ministerio Fiscal. En tal caso, cuando además del cuidado de la persona hubiera de procederse al de los bienes, el Juez podrá designar un Administrador de los mismos, quien deberá rendirle cuentas de su gestión una vez concluida.

Artículo 300

El Juez, en procedimiento de jurisdicción voluntaria, de oficio o a petición del Ministerio Fiscal, del propio menor o de cualquier persona capaz de comparecer en juicio, nombrará defensor a quien estime más idóneo para el cargo.

Artículo 301

Serán aplicables al defensor judicial las causas de inhabilidad, excusas y remoción de los tutores y curadores.

Artículo 302

El defensor judicial tendrá las atribuciones que le haya concedido el Juez al que deberá rendir cuentas de su gestión una vez concluida.

CAPÍTULO V De la guarda de hecho

Artículo 303

Sin perjuicio de lo dispuesto en los artículos 203 y 228, cuando la autoridad judicial tenga conocimiento de la existencia de un guardador de hecho podrá requerirle para

izendatu arte.

3. Kode Zibilak ezartzen dituen gainerako kasuak.

299bis artikulua

Norbait tutoretzapean jarri behar dela jakinez gero, eta prozedurari amaiera ematen dion konponbide judiziala ematen ez den artean, Fiskaltzak bere gain hartuko ditu pertsona horren ordezkartza eta defentsa. Kasu horretan, eta, pertsona jagoteaz gain, ondasunen zaintza ere beharrezkoa denetan, epaileak ondasun horien administratzailea izenda dezake; administratzaile horrek bere kudeaketaren kontu-arrazoiak eman behar dizkio epaileari, behin kudeaketa amaitu eta gero.

300. artikulua

Borondatezko jurisdikzioaren prozedura bitartean, epaileak, ofizioz edo Fiskaltzak, adingabeak berak edo epaiketan agertzeko gaitasuna duten pertsonetatik edozeinek hala eskaturik, defendatzaile izendatuko du bere ustez kargu horretarako egokiena dena.

301. artikulua

Defendatzaile judizialari aplikatu behar zaizkio tutore eta kuradoreen gaikuntza ez, desenkusa eta enkaitzearen inguruko arrazoiak.

302. artikulua

Defendatzaile judizialak izango ditu epaileak ematen dizkion eskumenak; kudeaketa amaitutakoan, defendatzaileak kontu-arrazoiak eman behar dizkio epaileari.

V. KAPITULUA Egitezko zaintza

303. artikulua

203 eta 228. artikuluetan xedatutakoari kalterik egin gabe, agintaritza judizialak egitezko zaintzailerik badela jakin dakienean, zaintzaile horri eska diezaioke

que informe de la situación de la persona y los bienes del menor o del presunto incapaz y de su actuación en relación con los mismos, pudiendo establecer asimismo las medidas de control y vigilancia que considere oportunas.

Artículo 304

Los actos realizados por el guardador de hecho en interés del menor o presunto incapaz no podrán ser impugnados si redundan en su utilidad.

Artículo 305

Suprimido por la Ley 13/1983, de 24 de octubre, de reforma del Código Civil en materia de tutela.

Artículo 306

Será aplicable al guardador de hecho lo dispuesto en el artículo 220 respecto del tutor.

Artículo 307

Suprimido por la Ley 13/1983, de 24 de octubre, de reforma del Código Civil en materia de tutela.

Artículo 308

Suprimido por la Ley 13/1983, de 24 de octubre, de reforma del Código Civil en materia de tutela.

Artículo 309

Suprimido por la Ley 13/1983, de 24 de octubre, de reforma del Código Civil en materia de tutela.

Artículo 310

Suprimido por la Ley 13/1983, de 24 de octubre, de reforma del Código Civil en materia de tutela.

Artículo 311

Suprimido por la Ley 13/1983, de 24 de octubre, de reforma del Código Civil en

informazioa eman dezan, dela adingabearen edo ustezko ezgaiaren egoerari buruz eta hark dituen ondasunen egoerari buruz, dela zaintzaileak haienganako izan duen jardunari buruz; era berean, epaileak kontrol- eta jagoletza-neurriak ezar ditzake bere ustez horiek egokiak badira.

304. artikulua

Ezin dira aurkaratu egitezko zaintzaileak adingabearen edo ustezko ezgaiaren intereserako burutu dituen egintzak, haren onurarako gertatu badira.

305. artikulua

Ezabatua, urriaren 24ko 13/1983 Legearen ondorioz; lege horrek Kode Zibila eraldatu du tutoretzaren arloan.

306. artikulua

Egitezko zaintzaileari aplikatu behar zaio 220. artikuluan tutorearen inguruan xedatutakoa.

307. artikulua

Ezabatua, urriaren 24ko 13/1983 Legearen ondorioz; lege horrek Kode Zibila eraldatu du tutoretzaren arloan.

308. artikulua

Ezabatua, urriaren 24ko 13/1983 Legearen ondorioz; lege horrek Kode Zibila eraldatu du tutoretzaren arloan.

309. artikulua

Ezabatua, urriaren 24ko 13/1983 Legearen ondorioz; lege horrek Kode Zibila eraldatu du tutoretzaren arloan.

310. artikulua

Ezabatua, urriaren 24ko 13/1983 Legearen ondorioz; lege horrek Kode Zibila eraldatu du tutoretzaren arloan.

311. artikulua

Ezabatua, urriaren 24ko 13/1983 Legearen ondorioz; lege horrek Kode Zibila eraldatu

materia de tutela.

Artículo 312

Suprimido por la Ley 13/1983, de 24 de octubre, de reforma del Código Civil en materia de tutela.

Artículo 313

Suprimido por la Ley 13/1983, de 24 de octubre, de reforma del Código Civil en materia de tutela.

TÍTULO XI DE LA MAYOR EDAD Y DE LA EMANCIPACIÓN

Artículo 314

La emancipación tiene lugar:

1. Por la mayor edad.
2. Por el matrimonio del menor.
3. Por concesión de los que ejerzan la patria potestad.
4. Por concesión judicial.

Artículo 315

La mayor edad empieza a los dieciocho años cumplidos.

Para el cómputo de los años de la mayoría de edad se incluirá completo el día del nacimiento.

Artículo 316

El matrimonio produce de derecho la emancipación.

Artículo 317

Para que tenga lugar la emancipación por concesión de quienes ejerzan la patria potestad se requiere que el menor tenga dieciséis años cumplidos y que la consienta. Esta emancipación se otorgará por escritura pública o por comparecencia ante el Juez encargado del Registro.

Artículo 318

La concesión de emancipación habrá de inscribirse en el Registro Civil, no

du tutoretzaren arloan.

312. artikulua

Ezabatua, urriaren 24ko 13/1983 Legearen ondorioz; lege horrek Kode Zibila eraldatu du tutoretzaren arloan.

313. artikulua

Ezabatua, urriaren 24ko 13/1983 Legearen ondorioz; lege horrek Kode Zibila eraldatu du tutoretzaren arloan.

XI. TITULUA ADIN-NAGUSITASUNA ETA EMANTZIPAZIOA

314. artikulua

Emantzipazioa gertatzen da:

1. Adin-nagusitasunera heltzean.
2. Adingabea ezkontzean.
3. Guraso-ahala egikaritzen dutenek hori ematen dutenean.
4. Epaileak hori ematen duenean.

315. artikulua

Adin-nagusitasuna hasten da hemezortzi urte betetakoan.

Adin-nagusitasunaren urteak zenbatzeko, jaioteguna aintzat hartu behar da oso-osorik.

316. artikulua

Ezkontzak zuzenbidez dakar emantzipazioa.

317. artikulua

Guraso-ahala egikaritzen dutenek emantzipazioa eman dezaten, beharrezkoa da adingabeak hamasei urte izatea eta adingabe horrek emantzipazioari adostasuna ematea. Emantzipazio hori eman daiteke, eskritura publikoaren bidez edo Erregistroaren ardura duen epailearen aurrean egindako agerraldiaren bidez.

318. artikulua

Emantzipazioa emanaz gero, hori Erregistro Zibilean inskribatu behar da, eta,

produciendo entre tanto efectos contra terceros.

Concedida la emancipación no podrá ser revocada.

Artículo 319

Se reputará para todos los efectos como emancipado al hijo mayor de dieciséis años que con el consentimiento de los padres viviere independientemente de éstos. Los padres podrán revocar este consentimiento.

Artículo 320

El Juez podrá conceder la emancipación de los hijos mayores de dieciséis años si éstos la pidieren y previa audiencia de los padres:

1. Cuando quien ejerce la patria potestad contrajere nupcias o conviviere maritalmente con persona distinta del otro progenitor.
2. Cuando los padres vivieren separados.
3. Cuando concurra cualquier causa que entorpezca gravemente el ejercicio de la patria potestad.

Artículo 321

También podrá el Juez, previo informe del Ministerio Fiscal, conceder el beneficio de la mayor edad al sujeto a tutela mayor de dieciséis años que lo solicitare.

Artículo 322

El mayor de edad es capaz para todos los actos de la vida civil, salvo las excepciones establecidas en casos especiales por este Código.

Artículo 323

La emancipación habilita al menor para regir su persona y bienes como si fuera mayor, pero hasta que llegue a la mayor edad no podrá el emancipado tomar dinero a préstamo, gravar o enajenar bienes

bien bitartean, emantzipazioak ez du ondorerik sortuko hirugarrenen aurka.

Behin emantzipazioa eman eta gero, ezin da hori ezeztatu.

319. artikulua

Hamasei urtekoa baino nagusiagoa den semea edo alaba bere buruz bizi bada gurasoen adostasunarekin, hori emantzipatutzat joko da ondore guztietarako. Gurasoek adostasun hori ezezta dezakete.

320. artikulua

Epaileak emantzipazioa eman diezaieke hamasei urtekoak baino nagusiagoak diren seme-alabei, horiek hala eskatzen badute eta horien gurasoei entzun eta gero:

1. Guraso-ahala egikaritzen duena beste gurasoa ez den pertsona batekin ezkontzen denean edo horrekin ezkondu-bizimodua egiten duenean.
2. Gurasoak banandurik bizi direnean.
3. Guraso-ahalaren egikaritzea modu larrian oztopatzen duten arrazoietatik edozein gertatzen denean.

321. artikulua

Era berean, epaileak, Fiskaltzaren txostena jaso ondoren, adin-nagusitasunaren onura eman diezaioke hamasei urtekoa baino nagusiagoa den tutoretzapekoari, tutoretzapeko horrek hala eskatzen badu.

322. artikulua

Adin nagusikoak gaitasuna du bizitza zibileko egintza guztiak gauzatzeko, kode honek kasu berezietarako ezartzen dituen salbuespenetan izan ezik.

323. artikulua

Emantzipazioaren ondorioz, adingabea gaituta dago bere burua eta ondasunak gobernatzeko, adin nagusiko izango balitz bezala; baina, adin-nagusitasunera heldu arte, emantzipatuak ezin izango du dirua

inmuebles y establecimientos mercantiles o industriales u objetos de extraordinario valor sin consentimiento de sus padres y, a falta de ambos, sin el de su curador.

El menor emancipado podrá por sí solo comparecer en juicio.

Lo dispuesto en este artículo es aplicable también al menor que hubiere obtenido judicialmente el beneficio de la mayor edad.

Artículo 324

Para que el casado menor de edad pueda enajenar o gravar bienes inmuebles, establecimientos mercantiles u objetos de extraordinario valor que sean comunes, basta si es mayor el otro cónyuge, el consentimiento de los dos; si también es menor, se necesitara, además, el de los padres o curadores de uno y otro.

TÍTULO XII DEL REGISTRO DEL ESTADO CIVIL

Artículo 325

Los actos concernientes al estado civil de las personas se harán constar en el Registro destinado a este efecto.

Artículo 326

El Registro del estado civil comprenderá las inscripciones o anotaciones de nacimientos, matrimonios, emancipaciones, reconocimientos y legitimaciones, defunciones, naturalizaciones y vecindad, y estará a cargo de los Jueces municipales u otros funcionarios del orden civil en España y de los Agentes consulares o diplomáticos en el extranjero.

Artículo 327

Las actas del Registro serán la prueba del

maileguan hartu, ezta ondasun higiezinak, merkataritza nahiz industriako establezimenduak edo balio berezia duten objektuak kargatu eta besterendu ere, bere gurasoen adostasunik gabe, eta, bi-biok izan ezean, kuradorearen adostasunik gabe.

Adingabeko emantzipatua bere kabuz ager daiteke epaiketan.

Artikulu honetan xedatutakoa aplikatu behar zaio epaiketaren bidez adin-nagusitasunaren onura lortu duen adingabeari ere.

324. artikulua

Adingabe ezkonduak ondasun higiezinak, merkataritzako establezimenduak edo balio berezia duten objektu erkideak besteren edo karga ditzan, nahiko da bi ezkontideen adostasuna, beste ezkontidea adin nagusikoa bada; bestea ere adingabea bada, bi-bion adostasuna ez ezik, behar da bataren eta bestearen guraso edo kuradoreen adostasuna ere bai.

XII. TITULUA EGOERA ZIBILARI BURUZKO ERREGISTROA

325. artikulua

Pertsonen egoera zibilari buruzko egintzak agerrarazi behar dira ondore horretarako dagoen erregistroan.

326. artikulua

Egoera zibilari buruzko erregistroak bere barruan hartuko ditu jaiotza, ezkontza, emantzipazio, aitorpen eta legitimazio, heriotza, bertakotze eta auzotartasunari buruzko inskripzioak nahiz idatzoharrak; erregistro horren ardura izango dute, Espainian, udaleko epaileek edo ordena zibileko beste funtzionario batzuek, eta, atzerrian, kontsulatu eta diplomaziako agenteek.

327. artikulua

Erregistroko aktek egoera zibilaren frog

estado civil, la cual sólo podrá ser suplida por otras en el caso de que no hayan existido aquéllas o hubiesen desaparecido los libros del Registro, o cuando ante los Tribunales se suscite contienda.

Artículo 328

No será necesaria la presentación del recién nacido al funcionario encargado del Registro para la inscripción del nacimiento, bastando la declaración de la persona obligada a hacerla.

Esta declaración comprenderá todas las circunstancias exigidas por la ley; y será firmada por su autor, o por dos testigos a su ruego, si no pudiere firmar.

Artículo 329

En los matrimonios canónicos será obligación de los contrayentes facilitar al funcionario representante del Estado que asista a su celebración todos los datos necesarios para su inscripción en el Registro Civil. Exceptúanse los relativos a las amonestaciones, los impedimentos y su dispensa, los cuales no se harán constar en la inscripción.

Artículo 330

No tendrán efecto alguno legal las naturalizaciones mientras no aparezcan inscritas en el Registro, cualquiera que sea la prueba con que se acrediten y la fecha en que hubiesen sido concedidas.

Artículo 331

Los Jueces municipales y los de primera instancia, en su caso, podrán corregir las infracciones de lo dispuesto sobre el Registro Civil, que no constituyan delito o falta, con multa de 20 a 100 pesetas.

Artículo 332

Continuará rigiendo la ley de 17 de junio de 1870, en cuanto no esté modificada por los

egiten dute; froga hori beste batez ordeztateke, halako aktarik egin ez denean, Erregistroko liburuak desagertu direnean edo auzitegietan eztabaida sorrarazi denean.

328. artikulua

Jaiotza inskribatzeko ez da beharrezkoa jaioberria Erregistroaren ardura duen funtzionarioari aurkeztea; nahiko da adierazpena egiteko betebeharra duenak adierazpen hori egitea.

Adierazpen horrek bere barruan jasoko ditu legeak ezarritako inguruabar guztiak; adierazpenaren egileak hori sinatu behar du, eta, ezinezkoa bada, bi lekukok sinatu behar dute, egileak hala eskatuta.

329. artikulua

Ezkontza kanonikoetan, ezkongaien ezkontza hori Erregistro Zibilean inskribatzeko beharrezkoak diren datu guztiak eman behar dizkiote estatuaren ordezkari izan eta ezkontza horretan den funtzionarioari. Salbuespen gisa har daitezke zentzarazpenei, eragozpenei eta horien barkatzeari buruzko datuak, horiek ez baitira inskripzioan agerrarazi behar.

330. artikulua

Bertakotzeek ez dute inola ere legezko ondorerik izango Erregistroan inskribatzen ez diren bitartean, horiek egiaztatzeko froga eta eurok emateko data edozein izanda ere.

331. artikulua

Udaleko epaileek, eta, hala denean, lehen auzialdikoek, 20 pezetatik 100erako isunarekin zigortu ahal dituzte Erregistro Zibilari buruzko xedapenen arau-hausteak, baldin eta arau-hauste horiek delitu edo falta ez badira.

332. artikulua

1870eko ekainaren 17ko Legeak indarrean iraungo du, aurreko artikuluek lege hori

artículos precedentes.

LIBRO II DE LOS BIENES, DE LA PROPIEDAD Y DE SUS MODIFICACIONES

TITULO I DE LA CLASIFICACIÓN DE LOS BIENES

Disposición preliminar

Artículo 333

Todas las cosas que son o pueden ser objeto de apropiación se consideran como bienes muebles o inmuebles.

CAPÍTULO I De los bienes inmuebles

Artículo 334

Son bienes inmuebles:

1. Las tierras, edificios, caminos y construcciones de todo género adheridas al suelo.
2. Los árboles y plantas y los frutos pendientes, mientras estuvieren unidos a la tierra o formaren parte integrante de un inmueble.
3. Todo lo que esté unido a un inmueble de una manera fija, de suerte que no pueda separarse de él sin quebrantamiento de la materia o deterioro del objeto.
4. Las estatuas, relieves, pinturas u otros objetos de uso u ornamentación, colocados en edificios o heredades por el dueño del inmueble en tal forma que revele el propósito de unirlos de un modo permanente al fundo.
5. Las máquinas, vasos, instrumentos o utensilios destinados por el propietario de la finca a la industria o explotación que se realice en un edificio o heredad, y que directamente concurren a satisfacer las necesidades de la explotación misma.
6. Los viveros de animales, palomares, colmenas, estanques de peces o criaderos análogos, cuando el propietario los haya

aldarazi ez duten heinean.

II. LIBURUA ONDASUNAK, JABETZA ETA HORIEN ALDARAZPENAK

I. TITULUA ONDASUNEN SAILKAPENA

Atariko xedapena

333. artikulua

Eskuratzeko modukoak diren edo izan daitezkeen gauza guztiak ondasun higigarri edo higiezinak dira.

I. KAPITULUA Ondasun higiezinak

334. artikulua

Ondasun higiezinak dira:

1. Lurrak, eraikinak, bideak eta lurrari atxikita dauden orotariko egiturak.
2. Zuhaitzak, landareak eta banantzeke dauden fruituak, horiek lurrari lotuta dauden bitartean edo ondasun higiezinaren zati osagarri diren bitartean.
3. Ondasun higiezinari finkotasunez lotuta dagoen guztia, baldin eta ondasunaren materiari kalte egin gabe edo objektua bera narriatu gabe ezin bada horretatik banandu.
4. Estatuak, erliebeak, pinturak eta erabilerarako nahiz apaindurarako bestelako objektuak, baldin eta ondasun higiezinaren ugazabak eraikin edo landetan jarri baditu, funtsari modu iraunkorrean lotzeko asmoarekin.
5. Finkaren jabeak eraikin edo landa batean egiten den industria edo ustiapenerako destinatutako makinak, ontziak, tresnak eta lanabesak, ustiapenaren beraren beharrianak zuzenean asetzen badituzte.
6. Animalien hazitegiak, usategiak, erlauntzak, arrainen urmaelak edo antzeko hazitokiak, jabeak horiek jarri edo artatzen

colocado o los conserve con el propósito de mantenerlos unidos a la finca, y formando parte de ella de un modo permanente.

7. Los abonos destinados al cultivo de una heredad, que estén en las tierras donde hayan de utilizarse.

8. Las minas, canteras y escoriales, mientras su materia permanece unida al yacimiento, y las aguas vivas o estancadas.

9. Los diques y construcciones que, aun cuando sean flotantes, estén destinados por su objeto y condiciones a permanecer en un punto fijo de un río, lago o costa.

10. Las concesiones administrativas de obras públicas y las servidumbres y demás derechos reales sobre bienes inmuebles.

CAPÍTULO II De los bienes muebles

Artículo 335

Se reputan bienes muebles los susceptibles de apropiación no comprendidos en el capítulo anterior, y en general todos los que se pueden transportar de un punto a otro sin menoscabo de la cosa inmueble que estuvieren unidos.

Artículo 336

Tienen también la consideración de cosas muebles las rentas o pensiones, sean vitalicias o hereditarias, afectas a una persona o familia, siempre que no graven con carga real una cosa inmueble, los oficios enajenados, los contratos sobre servicios públicos y las cédulas y títulos representativos de préstamos hipotecarios.

Artículo 337

Los bienes muebles son fungibles o no fungibles.

A la primera especie pertenecen aquellos

dituenean finkari lotuta iraunaraz daitezen eta finkaren behin betiko osagai izanik.

7. Landa baten lugintzarako destinatu diren ongarriak, ongarri horiek zein lurretan erabiltzekoak izan eta lurrotan baldin badaude.

8. Meatze, harrobi eta zepategiak, horien gaiak hobiari lotuta dauden bitartean; bai eta ur biziak edo urmaelak ere.

9. Dike eta eraikinak, flotagarriak izan arren, baldin eta, horien xedearen eta baldintzen arabera, euren destinoa bada ibai, laku edo itsasertzaren toki finko batean egotea.

10. Herri-lanen administrazio-emakidak, eta ondasun higiezinaren gaineko zortasunak eta gainerako eskubide errealak.

II. KAPITULUA Ondasun higigarriak

335. artikulua

Ondasun higigarri moduan hartzen dira, eskuratzeko modukoak izanik, aurreko artikuluan aipatu ez diren ondasunak; eta, orokorrean, puntu batetik bestera garraia daitezkeen ondasun guztiak, hori egin badaiteke haien euskarri den ondasun higiezinari kalterik egin gabe.

336. artikulua

Gauza higigarriak dira, halaber, bizi artean edo jarauntsi bidez pertsona edo familia bati loturiko errenta nahiz pentsioak, baldin eta errenta edo pentsio horiek ez badute ondasun higiezina zama errealarekin kargatzen; besterendutako ogibideak; herri-zerbitzuen gaineko kontratuak; bai eta hipoteka-maileguak ordezkatzan dituzten zedula eta tituluak ere.

337. artikulua

Ondasun higigarriak suntsikorrak edo suntsiezinak dira.

Lehenengo motako ondasunak dira, euren

de que no puede hacerse el uso adecuado a su naturaleza sin que se consuman; a la segunda especie corresponden los demás.

CAPÍTULO III De los bienes según las personas a que pertenecen

Artículo 338

Los bienes son de dominio público o de propiedad privada.

Artículo 339

Son bienes de dominio público:

1. Los destinados al uso público, como los caminos, canales, ríos, torrentes, puertos y puentes construidos por el Estado, las riberas, playas, radas y otros análogos.

2. Los que pertenecen privativamente al Estado, sin ser de uso común, y están destinados a algún servicio público o al fomento de la riqueza nacional, como las murallas, fortalezas y demás obras de defensa del territorio, y las minas, mientras que no se otorgue su concesión.

Artículo 340

Todos los demás bienes pertenecientes al Estado, en que no concurren las circunstancias expresadas en el artículo anterior, tienen el carácter de propiedad privada.

Artículo 341

Los bienes de dominio público, cuando dejen de estar destinados al uso general o a las necesidades de la defensa del territorio, pasan a formar parte de los bienes de propiedad del Estado.

Artículo 342

Los bienes del Patrimonio Real se rigen por su ley especial; y, en lo que en ella no se halle previsto, por las disposiciones generales que sobre la propiedad particular

izaerari dagokion moduan erabiliz gero, kontsumitzen direnak; bigarren motari dagozkio, aldiz, beste ondasun guztiak.

III. KAPITULUA Ondasunen sailkapena, ondasunok nori dagozkion kontuan hartuta

338. artikulua

Ondasunak herri-jabarikoak edo jabetza pribatukoak dira.

339. artikulua

Herri-jabariko ondasunak dira:

1. Herri-erabilerarako destinatzen direnak, besteak beste, estatuak eraikitako bide, kanal, ibai, uhar, portu eta zubiak; ur-bazterrak, hondartzak, itsasarteak eta horien antzekoak.

2. Herri-erabilerakoak izan gabe, estatuari modu pribatiboan dagozkion ondasunak, baldin eta herri-zerbitzurako edo nazioko aberastasuna suspertzeko destinatu badira, hala nola, harresiak, gotorlekuak eta lurraldearen defentsarako bestelako obrak; eta meatzeak, horien emakida gauzatzen ez den bitartean.

340. artikulua

Estatuari dagozkion gainerako ondasunetan ez badira betetzen aurreko artikuluan adierazitako inguruabarrak, ondasun horiek jabetza pribatuko izaera dute.

341. artikulua

Herri-jabariko ondasunak estatuaren jabetzapeko ondasun bilakatzen dira, erabilera orokorrerako edo lurralde-defentsaren beharrianetarako destinoa galtzen dutenean.

342. artikulua

Errege-ondareko ondasunak arautzen ditu horiei buruzko lege bereziak, eta, lege horrek arautzen ez dituen kontuetan, kode honetan jabetza pribatuari buruz ezartzen

se establecen en este Código.

Artículo 343

Los bienes de las provincias y de los pueblos se dividen en bienes de uso público y bienes patrimoniales.

Artículo 344

Son bienes de uso público, en las provincias y los pueblos, los caminos provinciales y los vecinales, las plazas, calles, fuentes y aguas públicas, los paseos y las obras públicas de servicio general, costeadas por los mismos pueblos o provincias.

Todos los demás bienes que unos y otros posean, son patrimoniales y se registrarán por las disposiciones de este Código, salvo lo dispuesto en leyes especiales.

Artículo 345

Son bienes de propiedad privada, además de los patrimoniales del Estado, de la Provincia y del Municipio, los pertenecientes a particulares, individual o colectivamente.

Disposiciones comunes a los tres capítulos anteriores

Artículo 346

Cuando por disposición de la Ley, o por declaración individual, se use la expresión de cosas o bienes inmuebles, o de cosas o bienes muebles, se entenderán comprendidas en ella respectivamente los enumerados en el capítulo I y en el capítulo II.

Cuando se use tan sólo la palabra «muebles» no se entenderán comprendidos el dinero, los créditos, efectos de comercio, valores, alhajas, colecciones científicas o artísticas, libros, medallas, armas, ropas de vestir, caballerías o carruajes y sus arreos, granos, caldos y mercancías, ni otras cosas

diren xedapen orokorrek.

343. artikulua

Probintzia eta herrietako ondasunen artean, erabilera publikorako ondasunak eta ondare-ondasunak bereizten dira.

344. artikulua

Probintzia eta herrietan, herri-erabilerako ondasunak dira probintzietako bideak eta herri-bideak; plazak, kaleak, iturriak eta ur publikoak; bai eta pasealekuak eta zerbitzu orokorrerako herri-lanak ere, herri edo probintzietatik horiek ordaindu badituzte.

Probintzietatik edo herrietatik dituzten gainerako ondasunak ondare-ondasun dira, eta kode honen xedapenek arautzen dituzte halakoak, lege berezietatik xedatutakoa salbu.

345. artikulua

Jabetza pribatuko ondasunak dira, estatuaren, probintzietatik eta udalerrietatik ondare-ondasunetaz gain, gizabanakoei banaka nahiz modu kolektiboan dagozkienak ere.

Aurreko hiru kapituluetarako Xedapenak

346. artikulua

Legearen xedapenetan edo gizabanakoek egindako aitortzetan, gauza nahiz ondasun higiezin edo gauza nahiz ondasun higigarri adierazmoldeak erabiltzen direnean, ulertuko da adierazmoldeok euren barruan hartzen dituztela, hurrenez hurren, I eta II. kapituluetan aipatutako gauzak.

«Altzari» hitza, huts-hutsean, erabiltzen denean, ulertuko da hitz horrek ez dituela bere barruan hartzen dirua, kredituak, merkataritzako efektuak, baloreak, bitxiak, bilduma zientifiko nahiz artistikoak, liburuak, dominak, armak, arropak, zaldi edo gurdiak eta horien arreo, bihi, zuku eta merkatu-gaiak, ez eta gelak jantzi edo

que no tengan por principal destino amueblar o alhajar las habitaciones, salvo el caso en que del contexto de la ley o de la disposición individual resulte claramente lo contrario.

Artículo 347

Cuando en venta, legado, donación u otra disposición en que se haga referencia a cosas muebles o inmuebles, se transmita su posesión o propiedad con todo lo que en ellas se halle, no se entenderán comprendidos en la transmisión el metálico, valores, créditos y acciones cuyos documentos se hallen en la cosa transmitida, a no ser que conste claramente la voluntad de extender la transmisión a tales valores y derechos.

TÍTULO II DE LA PROPIEDAD

CAPÍTULO I De la propiedad en general

Artículo 348

La propiedad es el derecho de gozar y disponer de una cosa, sin más limitaciones que las establecidas en las leyes.

El propietario tiene acción contra el tenedor y el poseedor de la cosa para reivindicarla.

Artículo 349

Nadie podrá ser privado de su propiedad sino por Autoridad competente y por causa justificada de utilidad pública, previa siempre la correspondiente indemnización.

Si no precediere este requisito, los Jueces ampararán y, en su caso, reintegrarán en la posesión al expropiado.

Artículo 350

El propietario de un terreno es dueño de su superficie y de lo que está debajo de ella, y puede hacer en él las obras, plantaciones y

apaintzeko erabiltzen ez diren bestelako gauzak ere, salbu eta argiro-argiro horren aurkakoa eratoritzen duenean legearen edo banakako xedapenaren testuinguruak.

347. artikulua

Gauza higigarri nahiz higiezinen gaineko salmentan, legatuan, dohaintzan edo bestelako xedapenetan, gauzon edukitza edo jabetza eskualdatzen denean gauza horien barruan dagoen guztiarekin, ulertuko da gauzokin batera ez direla eskualdatzen eskudirua, baloreak, kredituak eta akzioak, nahiz eta horien agiriak gauzaren barruan izan, salbu eta argiro-argiro agerrarazten denean eskualdaketa balore eta eskubideotara hedatzeko borondatea.

II. TITULUA JABETZA

I. KAPITULUA Jabetza orokorrean

348. artikulua

Jabetza da gauzak gozatu eta xedatzeko eskubidea, eta legean ezarritako mugapenak baino ez ditu.

Gauzaren jabeak akzioa du gauza horren ukandunaren eta edukitzailearen aurka, gauza erreibindikatzeko.

349. artikulua

Agintaritza eskudunak bakarrik ken diezaioke inori jabetza; horretarako, herri-onuran oinarritutako arrazoi egiaztatua izan behar da, eta, aldez aurretik, kalte-ordain egokia eman behar da.

Betekizun hori ez bada aurretiaz gauzatzen, epaileek babestuko dute jabetza galdu duenaren edukitza, eta, hala denean, horri edukitza itzuliko diote.

350. artikulua

Lurraren jabea lur horren azalean eta azpian dagoenaren ugazaba da, eta lur horretan berari komeni zaizkion obrak,

excavaciones que le convengan, salvas las servidumbres, y con sujeción a lo dispuesto en las leyes sobre Minas y Aguas y en los reglamentos de policía.

Artículo 351

El tesoro oculto pertenece al dueño del terreno en que se hallare.

Sin embargo, cuando fuere hecho el descubrimiento en propiedad ajena, o del Estado, y por casualidad, la mitad se aplicará al descubridor.

Si los efectos descubiertos fueren interesantes para las Ciencias o las Artes, podrá el Estado adquirirlos por su justo precio, que se distribuirá en conformidad a lo declarado.

Artículo 352

Se entiende por tesoro, para los efectos de la ley, el depósito oculto e ignorado de dinero, alhajas u otros objetos preciosos, cuya legítima pertenencia no conste.

CAPÍTULO II Del derecho de accesión Disposición general

Artículo 353

La propiedad de los bienes da derecho por accesión a todo lo que ellos producen, o se les une o incorpora, natural o artificialmente.

SECCIÓN I Del derecho de accesión respecto al producto de los bienes

Artículo 354

Pertencen al propietario:

1. Los frutos naturales.
2. Los frutos industriales.
3. Los frutos civiles.

Artículo 355

Son frutos naturales las producciones

landaketak eta lur-zulatzeko lanak egin ditzake, betiere zortasunei kalterik egin gabe, eta meatze eta urei buruzko legeek eta polizia-araudiek xedatutakoaren menpe.

351. artikulua

Altxor ezkutua zein lurretan aurkitu, eta lur horren ugazabari dagokio altxor hori.

Hala ere, gauza ustekabean aurkitzen denean inoren lurrean edo estatuaren lurrean, aurkitutakoaren erdia aurkitzaileari emango zaio.

Aurkitutako gaiak zientziarako nahiz arteetarako interesgarriak badira, estatuak gaiok eskura ditzake horien prezio zuzenaren truk; prezio hori adierazitakoaren arabera banatuko da.

352. artikulua

Legearen ondoretarako, altxorra da diruaren, bitxien nahiz beste edozein objektu baliotsuren gordailu ezkutu eta ezezaguna, baldin eta ezin bada jakin gordailu hori lege bidez nori dagokion.

II. KAPITULUA Akzesio-eskubidea Xedapen orokorra

353. artikulua

Akzesioaren ondorioz, ondasunen gaineko jabetzak eskubidea ematen du ondasunen produktuen gainean, eta ondasunoi berez nahiz modu artifizialean lotu edo erantsitako gaien gainean ere.

I. ATALA Akzesio-eskubidea, ondasunen produktuei begira

354. artikulua

Jabeari dagozkio:

1. Fruitu naturalak.
2. Fruitu industrialak.
3. Fruitu zibilak.

355. artikulua

Fruitu naturalak dira lurrak berez ematen

espontáneas de la tierra, y las crías y demás productos de los animales.

Son frutos industriales los que producen los predios de cualquier especie a beneficio del cultivo o del trabajo.

Son frutos civiles el alquiler de los edificios, el precio del arrendamiento de tierras y el importe de las rentas perpetuas, vitalicias u otras análogas.

Artículo 356

El que percibe los frutos tiene la obligación de abonar los gastos hechos por un tercero para su producción, recolección y conservación.

Artículo 357

No se reputan frutos naturales, o industriales, sino los que están manifiestos o nacidos.

Respecto a los animales, basta que estén en el vientre de su madre, aunque no hayan nacido.

SECCIÓN II Del derecho de accesión respecto a los bienes inmuebles

Artículo 358

Lo edificado, plantado o sembrado en predios ajenos, y las mejoras o reparaciones hechas en ellos, pertenecen al dueño de los mismos con sujeción a lo que se dispone en los artículos siguientes.

Artículo 359

Todas las obras, siembras y plantaciones se presumen hechas por el propietario y a su costa, mientras no se pruebe lo contrario.

Artículo 360

El propietario del suelo que hiciere en él, por sí o por otro, plantaciones, construcciones u obras con materiales ajenos, debe abonar su valor; y, si hubiere obrado de mala fe, estará además obligado al resarcimiento de daños y perjuicios. El

dituen gaiak, bai eta animalien kumeak eta gainerako produktuak ere.

Fruitu industrialak dira lugintza edo lanaren ondorioz edozein motatako lurrek ekoizten dituzten gaiak.

Fruitu zibilak dira eraikinen alogera, lur-errentamenduen prezioa, eta betiereko, bizi arteko edo horien antzeko errenten zenbatekoa.

356. artikulua

Fruituak jasotzen dituenak ordaindu behar ditu beste inork fruituok ekoizti, bildu eta artatzeko egin dituen gastuak.

357. artikulua

Fruitu natural edo industrialak dira begi-bistan daudenak edo sortu direnak bakarrik.

Animaliei dagokienez, nahiko da euren amaren sabelean izatea, horiek jaio ez badira ere.

II. ATALA Akzesio-eskubidea, ondasun higiezinei begira

358. artikulua

Inoren lurrean eraiki, landatu edo ereindakoa eta bertan egindako hobekuntzak nahiz konponketak lur horren ugazabari dagozkio, hurrengo artikuluek xedatzen dutenaren menpe.

359. artikulua

Obra, ereintza eta landaketa guztiak jabeak bere kontura egin dituela uste da, aurkakoa frogatzen ez den artean.

360. artikulua

Lurraren jabeak, berak zuzenean edo beste norbaiti hala eskatuta, lur horretan landaketa, eraikin edo obrak egiten baditu inoren gaiekin, horien balioa ordaindu behar du; eta jabeak gaitzuste jardun badu, kalte-galeren ordaina ere eman

dueño de los materiales tendrá derecho a retirarlos sólo en el caso de que pueda hacerlo sin menoscabo de la obra construida, o sin que por ello perezcan las plantaciones, construcciones u obras ejecutadas.

Artículo 361

El dueño del terreno en que se edificare, sembrare o plantare de buena fe, tendrá derecho a hacer suya la obra, siembra o plantación, previa la indemnización establecida en los artículos 453 y 454, o a obligar al que fabricó o plantó a pagarle el precio del terreno, y al que sembró, la renta correspondiente.

Artículo 362

El que edifica, planta o siembra de mala fe en terreno ajeno, pierde lo edificado, plantado o sembrado, sin derecho a indemnización.

Artículo 363

El dueño del terreno en que se haya edificado, plantado o sembrado con mala fe puede exigir la demolición de la obra o que se arranque la plantación y siembra, reponiendo las cosas a su estado primitivo a costa del que edificó, plantó o sembró.

Artículo 364

Cuando haya habido mala fe, no sólo por parte del que edifica, siembra o planta en terreno ajeno, sino también por parte del dueño de éste, los derechos de uno y otro serán los mismos que tendrían si hubieran procedido ambos de buena fe.

Se entiende haber mala fe por parte del dueño siempre que el hecho se hubiere ejecutado a su vista, ciencia y paciencia, sin oponerse.

beharko du. Gaion ugazabak horiek kentzeko eskubidea du, baldin eta hori egin badaiteke eraikitako obrari inolako kalterik eragin gabe, edo kentze horren ondorioz landaketa, eraikin nahiz obra gauzatuak galtzen ez badira.

361. artikulua

Norbaitek besteren lurrean eraiki, erein edo landatzen badu onustez, lur horren ugazabak obra, ereintza edo landaketa bereganatzeko eskubidea du, 453 eta 454. artikuluetan ezarritako kalte-ordaina eman eta gero; edo, bestela, lurraren ugazabak bertan zerbait fabrikatu edo landatu duena behartu dezake lurraren prezioa ordaintzera, eta lurra erein duena, errenta egokia ematera.

362. artikulua

Norbaitek besteren lurrean eraiki, landatu edo ereiten badu gaitzuste, bertan eraiki, landatu edo ereindakoa galtzen du, kalte-ordaina eskuratzeko eskubiderik gabe.

363. artikulua

Norbaitek besteren lurrean eraiki, landatu edo ereiten badu gaitzuste, lurraren ugazabak pertsona horri eska diezaioke, obra errausteko edo landatu nahiz ereindakoa erauzteko, betiere gauzak jatorrizko egoeran birjarriz, eraikitzaile, landatzaile edo ereilearen kontura.

364. artikulua

Besteren lurrean eraiki, erein edo landatu duena ez ezik, lurraren ugazaba ere gaitzusteduna denean, batari eta besteari dagozkien eskubideak dira bi-biok onustez jardunez gero izango lituzketenak.

Lurraren ugazabak gaitzuste jardun duela ulertzen da, baldin eta egitatea beraren begi-aurrean gauzatu bada, eta, jakinaren gainean egonda ere, ez bada egitatearen aurka jarri.

Artículo 365

Si los materiales, plantas o semillas pertenecen a un tercero que no ha procedido de mala fe, el dueño del terreno deberá responder de su valor subsidiariamente y en el solo caso de que el que los empleó no tenga bienes con que pagar.

No tendrá lugar esta disposición si el propietario usa del derecho que le concede el artículo 363.

Artículo 366

kapitainak agente horri eman behar dio testamentu irekiaren kopia edo testamentu itxiaren egilespen-aktari buruzko kopia, bai eta egunkarian egindako oharrarena ere.

Testamentuaren nahiz aktaren kopian, jatorrizko agiriak jasotzen dituen sinadura berberak jarriko dira, sinatzaileak bizirik izan eta ontzi barruan badaude; bestela, testamentua jaso duen kontulariak edo kapitainak nahiz horren ordekoak eskuetsiko du testamentua, eta, horretan, testamentuan parte hartu zuten pertsonen artean ontzi barruan daudenekin sinatu beharko dute.

Diplomazia edo kontsulatuko agenteak idatziz agerraraziko du ematearen eginbidea, eta, testamentu irekiaren kopia edo testamentu itxiaren egilespen-aktari buruzko kopia itxi eta zigilatu ondoren, kopiok egunkariko oharrarekin batera igorriko zaizkio, bide egokia erabiliz, marina-ministroari, eta horrek aginduko du kopia bere ministerioaren artxiboan gordailutzeko.

Ematea gauzatzen duen komandante edo kapitainak diplomazia edo kontsulatuko agentearen eskutik jasoko du ematea gauzatu delako ziurtagiria, eta horri buruzko oharra idatziko du nabigazio-egunkarian.

726. artikulua

Gerra nahiz merkataritzako ontzia erresumako lehenengo portura iristen denean, komandante edo kapitainak tokiko itsas agintariari emango dizkio jatorrizko testamentua, itxita eta zigilaturik, egunkarian egindako oharraren kopia, eta, testamentugilea hilez gero, heriotza hori egiaztatzen duen ziurtagiria ere bai.

Emate hori aurreko artikuluan araututako forman egiaztatuko da, eta tizas agintariak marina-ministroari igorriko dizkio agiri horiek guztiak, inolako luzapenik gabe.

Artículo 727

Si hubiese fallecido el testador y fuere abierto el testamento, el Ministro de Marina practicará lo que se dispone en el artículo 718.

Artículo 728

Cuando el testamento haya sido otorgado por un extranjero en buque español, el Ministro de Marina remitirá el testamento al de Estado, para que por la vía diplomática se le dé el curso que corresponda.

Artículo 729

Si fuere ológrafo el testamento y durante el viaje falleciera el testador, el Comandante o Capitán recogerá el testamento para custodiarlo, haciendo mención de ello en el Diario, y lo entregará a la Autoridad marítima local, en la forma y para los efectos prevenidos en el artículo anterior, cuando el buque arribe al primer puerto del Reino.

Lo mismo se practicará cuando sea cerrado el testamento, si lo conservaba en su poder el testador al tiempo de su muerte.

Artículo 730

Los testamentos, abiertos y cerrados, otorgados con arreglo a lo prevenido en esta sección, caducarán pasados cuatro meses, contados desde que el testador desembarque en un punto donde pueda testar en la forma ordinaria.

Artículo 731

Si hubiere peligro de naufragio, será aplicable a las tripulaciones y pasajeros de los buques de guerra o mercantes lo dispuesto en el artículo 720.

SECCIÓN IX Del testamento hecho en país extranjero

Artículo 732

727. artikulua

Testamentugilea hil eta testamentua irekitzen bada, 718. artikuluan xedaturikoa bete beharko du marina-ministroak.

728. artikulua

Atzerritarrak Espainiako ontzian testamentua egin duenean, marina-ministroak estatu-ministroari igorriko dio testamentua, hori diplomazia-bidean behar bezala bidera dadin.

729. artikulua

Testamentua olografoa izanik, bidaiari zehar testamentugilea hiltzen bada, komandante nahiz kapitainak testamentua jasoko du hori zaintzeko; horren inguruko aipamena egingo du egunkarian; eta, ontzia Erresumako lehenengo portura iristen denean, tokiko itsas agintariari emango dio testamentua, aurreko artikuluan arauturiko forman eta horrek aipatzen dituen ondoretarako.

Gauza bera egin beharko da, testamentua itxia izanik, testamentugileak hori bere eskuetan duenean bera hiltzeko unean.

730. artikulua

Atal honen arauekin bat etorritzeko egindako testamentu ireki eta itxiak lau hilabete igaro eta gero iraungitzen dira; epe horren zenbaketa hasten da, testamentua forma arruntean egiteko aukera non izan eta toki horretan testamentugilea lehorreratzeko den unetik.

731. artikulua

Itsasoan galtzeko arriskua izanez gero, 720. artikuluan xedatutakoa aplikatuko zaie gerra edo merkataritzako ontzien tripulazioari eta bidaiariei.

IX. ATALA Atzerrian egindako Testamentua

732. artikulua

Los españoles podrán testar fuera del territorio nacional, sujetándose a las formas establecidas por las leyes del país en que se hallen.

También podrán testar en alta mar durante su navegación en un buque extranjero, con sujeción a las leyes de la Nación a que el buque pertenezca.

Podrán asimismo hacer testamento ológrafo, con arreglo al artículo 688, aun en los países cuyas leyes no admitan dicho testamento.

Artículo 733

No será válido en España el testamento mancomunado, prohibido por el artículo 669, que los españoles otorguen en país extranjero, aunque lo autoricen las leyes de la Nación donde se hubiese otorgado.

Artículo 734

También podrán los españoles que se encuentren en país extranjero otorgar su testamento, abierto o cerrado, ante el funcionario diplomático o consular de España que ejerza funciones notariales en el lugar del otorgamiento.

En estos casos se observarán respectivamente todas las formalidades establecidas en las Secciones quinta y sexta de este capítulo.

Artículo 735

El Agente diplomático o consular remitirá, autorizada con su firma y sello, copia del testamento abierto, o del acta de otorgamiento del cerrado, al Ministerio de Estado para que se deposite en su Archivo.

Artículo 736

El Agente diplomático o consular, en cuyo poder hubiese depositado su testamento ológrafo o cerrado un español, lo remitirá al

Espainiarrek nazio-lurraldetik kanpo egin dezakete testamentua, espainiarrok zein herritan egon eta herri horretako legeek ezarritako formen menpe.

Espainiarrek testamentua egin dezakete, halaber, itsas zabalean, atzerriko ontzian nabigatzen duten bitartean, ontzia zein naziotakoa izan eta nazio horren legeen menpe.

Era berean, espainiarrek testamentu olografoa egin dezakete 688. artikulua arabera, baita testamentu hori onartzen ez duten herrietan ere.

733. artikulua

Espainiarrek atzerrian egiten badute 669. artikuluan debekatutako testamentu mankomunatua, Espainian testamentu hori ez da baliozkoa izango, nahiz eta bera egin den tokiko nazio-legeek berori onartu.

734. artikulua

Berebat, atzerrian dauden espainiarrek testamentu itxia nahiz irekia egin dezakete Espainiako diplomazia edo kontsulatuko funtzionarioaren aurrean, horrek testamentua egiteko tokian notarioaren eginkizunak betetzen dituela.

Kasu horietan, kapitulu honen bost eta seigarren ataletan ezarritako formalitate guztiak gauzatu beharko dira hurrenez hurren.

735. artikulua

Diplomazia edo kontsulatuko agenteak Estatuko Ministeriora igorriko du, bere sinadura eta zigiluarekin eskuetsita, testamentu irekiaren kopia edo testamentua itxiaren egilespen-aktari buruzko kopia, kopia horiek ministerioaren artxiboan gordailu daitezten.

736. artikulua

Espainiarrak diplomazia edo kontsulatuko agentearen eskuetan testamentu olografo edo itxia gordailutu eta agente horrek,

Ministerio de Estado cuando fallezca el testador, con el certificado de defunción.

El Ministerio de Estado hará publicar en la Gaceta de Madrid, la noticia del fallecimiento, para que los interesados en la herencia puedan recoger el testamento y gestionar su protocolización en la forma prevenida.

SECCIÓN X *De la revocación e ineficacia de los testamentos*

Artículo 737

Todas las disposiciones testamentarias son esencialmente revocables, aunque el testador exprese en el testamento su voluntad o resolución de no revocarlas.

Se tendrán por no puestas las cláusulas derogatorias de las disposiciones futuras, y aquellas en que ordene el testador que no valga la revocación del testamento si no la hiciera con ciertas palabras o señales.

Artículo 738

El testamento no puede ser revocado en todo ni en parte sino con las solemnidades necesarias para testar.

Artículo 739

El testamento anterior queda revocado de derecho por el posterior perfecto, si el testador no expresa en éste su voluntad de que aquél subsista en todo o en parte.

Sin embargo, el testamento anterior recobra su fuerza si el testador revoca después el posterior, y declara expresamente ser su voluntad que valga el primero.

Artículo 740

La revocación producirá su efecto aunque

testamentugilea hildakoan, estatu-ministroari igorriko dizkio testamentua eta testamentugilearen heriotza- ziurtagiria.

Estatuko Ministerioak Madrilgo Gazetan argitaraziko du heriotzaren berria, hildakoaren jarauntsian interesa dutenek testamentua jaso eta hori protokoloan jasotzea eragin dezaten, agindutako forman.

X. ATALA *Testamentuen ezeztapena eta eragingabetasuna*

737. artikulua

Testamentuko xedapen guztiak berez ezeztakorrak dira, nahiz eta testamentugileak testamentuan adierazi xedapenok ez ezeztatzeko borondate edo erabakia.

Jarri gabekotzat hartuko dira etorkizuneko xedapenak indargabetzen dituzten klausulak nahiz testamentugileak testamentua baliozkotasunez ezeztatzeko hitz edo seinale jakin batzuk erabili behar direla agintzen dituenak.

738. artikulua

Testamentua ezin da oso-osorik edo zati batez ezeztatu, testamentua egiteko solemnitateak betetzen ez badira.

739. artikulua

Geroko testamentu perfektuak aurrekoa ezeztatzen du zuzenbidez, salbu eta testamentugileak geroko testamentuan adierazten duenean aurreko testamentua osorik edo zati batez iraunarazteko borondatea.

Hala ere, aurreko testamentuak indarra berreskuratzen du, testamentugileak geroko testamentua ezeztatu eta beren beregi adierazten badu lehenengoaren baliozkotasunari eusteko borondatea.

740. artikulua

Bigarren testamentuan izendaturiko

el segundo testamento caduque por incapacidad del heredero o de los legatarios en él nombrados, o por renuncia de aquél o de éstos.

Artículo 741

El reconocimiento de un hijo no pierde su fuerza legal aunque se revoque el testamento en que se hizo o éste no contenga otras disposiciones, o sean nulas las demás que contuviere.

Artículo 742

Se presume revocado el testamento cerrado que aparezca en el domicilio del testador con las cubiertas rotas o los sellos quebrantados, o borradas, raspadas o enmendadas las firmas que lo autoricen.

Este testamento será, sin embargo, válido cuando se probare haber ocurrido el desperfecto sin voluntad ni conocimiento del testador, o hallándose éste en estado de demencia; pero si aparecieren rota la cubierta o quebrantados los sellos, será necesario probar además la autenticidad del testamento para su validez.

Si el testamento se encontrare en poder de otra persona, se entenderá que el vicio procede de ella y no será aquél válido como no se pruebe su autenticidad, si estuvieren rota la cubierta o quebrantados los sellos; y si una y otros se hallaren íntegros, pero con las firmas borradas, raspadas o enmendadas, será válido el testamento, como no se justifique haber sido entregado el pliego en esta forma por el mismo testador.

Artículo 743

jaraunslaren nahiz legatu-hartzailearen ezgaitasuna edo horren uko egitea dela eta, testamentua iraungi arren, ezeztapenak berezko zaion ondorea sortuko du.

741. artikulua

Testamentuan seme-alabatasunaren gain egindako aitortpenak ez du indarririk galtzen, nahiz eta testamentu hori ezeztatu, horretan bestelako xedapenik jaso ez edo testamentuaren gainerako xedapenak deusezak izan.

742. artikulua

Testamentu itxia ezeztatu dela uste da, testamentu hori testamentugilearen egoitzan agertu denean, horren azalak apurtuta edo zigiluak urraturik edota testamentua egilesteko sinadurak ezabatu, karraskatu edo zuzenduta.

Nolanahi ere, testamentu hori baliozkoa izango da, frogatzen denean kaltea testamentugileak nahi gabe eta jakin gabe gertatu dela edo testamentugileak zoroaldian egin duela; baina testamentu-azala apurtuta edo zigiluak urraturik agertzen badira, orduan, testamentua baliozkoa izan dadin, aurrekoaz gain, testamentuaren kautotasuna frogatu beharko da.

Testamentua inoren eskuetan badago, ulertuko da akatsa pertsona horrek eragin duela, eta, testamentu-azala apurtuta edo horren zigiluak urraturik egonez gero, testamentua ez da baliozkoa izango, horren kautotasuna frogatzen ez bada; testamentu-azala edo horren zigiluak oso-osorik egon arren, testamentuaren sinadurak ezabatu, karraskatu edo zuzenduta badaude, testamentua baliozkoa izango da, testamentugileak berak plegua forma horretan eman duela egiaztatzen ez denean.

743. artikulua

Caducarán los testamentos, o serán ineficaces en todo o en parte las disposiciones testamentarias, sólo en los casos expresamente prevenidos en este Código.

CAPÍTULO II De la herencia

SECCIÓN I De la capacidad de suceder por testamento y sin él

Artículo 744

Podrán suceder por testamento o abintestato los que no estén incapacitados por la ley.

Artículo 745

Son incapaces de suceder:

1. Las criaturas abortivas, entendiéndose tales las que no reúnan las circunstancias expresadas en el artículo 30.
2. Las asociaciones o corporaciones no permitidas por la ley.

Artículo 746

Las iglesias y los cabildos eclesiásticos, las Diputaciones provinciales y las provincias, los Ayuntamientos y Municipios, los establecimientos de hospitalidad, beneficencia e instrucción pública, las asociaciones autorizadas o reconocidas por la ley y las demás personas jurídicas, pueden adquirir por testamento con sujeción a lo dispuesto en el artículo 38.

Artículo 747

Si el testador dispusiere del todo o parte de sus bienes para sufragios y obras pias en beneficio de su alma, haciéndolo indeterminadamente y sin especificar su aplicación, los albaceas venderán los bienes y distribuirán su importe, dando la mitad al Diocesano para que lo destine a los indicados sufragios y a las atenciones y necesidades de la Iglesia, y la otra mitad al Gobernador civil correspondiente para los

Testamentuak iraungi egingo dira edo testamentuko xedapenak osorik zein zati batez eragingabe gertatuko dira, kode honetan beren beregi agindutako kasuetan bakarrik.

II. KAPITULUA Jarauntsia

I. ATALA Testamentu bidez eta testamenturik gabe oinordeko izateko gaitasuna

744. artikulua

Testamentu bidezko oinordekoak edo abintestato oinordekoak izan daitezke lege-aginduz ezgaiturik ez daudenak.

745. artikulua

Ez dira oinordeko izateko gai:

1. Abortukinak; 30. artikuluan adierazitako inguruabarrak betetzen ez dituztenak abortukinak direla ulertuko da.
2. Legeak onartzen ez dituen elkarte edo korporazioak.

746. artikulua

Elizak eta elizaren kabildoak, probintzietako diputazioak eta probintziak eurak, udalak eta udalerrak, harrera-etxeak, ongintza-etxe eta ikastetxeak, legeak onartu edo aitortutako elkarteak eta gainerako pertsona juridikoak testamentu bidezko eskuratzailerik izan daitezke 38. artikuluan xedatutakoaren menpe.

747. artikulua

Testamentugileak, bere arimaren aldeko arimakari eta erruki-egintzetarako, bere ondasun guztiak edo batzuk xedatzen baditu modu zehaztugabea eta horien erabilera finkatu gabe, albazeek ondasunak salduko dituzte eta horien zenbatekoa banatuko dute; zenbatekoaren erdia gotzainari emango zaio, horrek arimakarietarako, eta Elizaren laguntza eta beharrianetarako destina dezan, eta beste

establecimientos benéficos del domicilio del difunto, y en su defecto, para los de la provincia.

Artículo 748

La institución hecha a favor de un establecimiento público bajo condición o imponiéndole un gravamen, sólo será válida si el Gobierno la aprueba.

Artículo 749

Las disposiciones hechas a favor de los pobres en general, sin designación de personas ni de población, se entenderán limitadas a los del domicilio del testador en la época de su muerte, si no constare claramente haber sido otra su voluntad.

La calificación de los pobres y la distribución de los bienes se harán por la persona que haya designado el testador, en su defecto por los albaceas, y, si no los hubiere, por el Párroco, el Alcalde y el Juez municipal, los cuales resolverán, por mayoría de votos, las dudas que ocurran.

Esto mismo se hará cuando el testador haya dispuesto de sus bienes en favor de los pobres de una parroquia o pueblo determinado.

Artículo 750

Toda disposición en favor de persona incierta será nula, a menos que por algún evento pueda resultar cierta.

Artículo 751

La disposición hecha genéricamente en favor de los parientes del testador se entiende hecha en favor de los más próximos en grado.

Artículo 752

erdia gobernadore zibilari emango zaio, hildakoaren bizilekuko ongintza-erakundeetarako, edo, halakorik izan ezean, probintziakoetarako destina dezan.

748. artikulua

Herri-establezimenduaren mesederako eginiko xedapena baldintzapekoa izan edo xedapen horrek kargaren bat ezartzen duenean, xedapen hori baliozkoa izango da Gobernuak onesten duenean bakarrik.

749. artikulua

Txiroentzako xedapenak orokorrean egiten badira pertsona nahiz herririk izendatu gabe, ulertuko da xedapenok eragina dutela testamentugilearen azken bizilekuko txiroen mesederako bakarrik, testamentugilearen borondatea bestelakoa izan dela argiro agerrarazten ez den bitartean.

Txiroak kalifikatu eta ondasunak banatuko ditu testamentugileak izendaturiko pertsonak; horrelakorik izan ezean, albazeek; eta, albazearik izan ezean, parrokoak, alkateak eta udaleko epaileak, euren arteko zalantzak botoen gehiengoz erabakiz.

Gauza bera egingo da, testamentugileak bere ondasunak xedatzen dituenan parrokia edo herri jakin bateko txiroen mesederako.

750. artikulua

Pertsona zehaztugabearen mesederako eginiko xedapen oro deuseza izango da, salbu eta jazokuntzaren bat dela-medio pertsona hori zehaztu daitekeenean.

751. artikulua

Testamentugileak bere ahaideen mesederako modu generikoan egindako xedapena ulertzen da gradurik hurbileneko ahaideentzat egin dela .

752. artikulua

No producirán efecto las disposiciones testamentarias que haga el testador durante su última enfermedad en favor del sacerdote que en ella le hubiese confesado, de los parientes del mismo dentro del cuarto grado, o de su iglesia, cabildo, comunidad o instituto.

Artículo 753

Tampoco surtirá efecto la disposición testamentaria en favor de quien sea tutor o curador del testador, salvo cuando se haya hecho después de aprobadas definitivamente las cuentas o, en el caso en que no tuviese que rendirse éstas, después de la extinción de la tutela o curatela.

Serán, sin embargo, válidas las disposiciones hechas en favor del tutor o curador que sea ascendiente, descendiente, hermano, hermana o cónyuge del testador.

Artículo 754

El testador no podrá disponer del todo o parte de su herencia en favor del Notario que autorice su testamento, o del cónyuge, parientes o afines del mismo dentro del cuarto grado, con la excepción establecida en el artículo 682.

Esta prohibición será aplicable a los testigos del testamento abierto, otorgado con o sin Notario.

Las disposiciones de este artículo son también aplicables a los testigos y personas ante quienes se otorguen los testamentos especiales.

Artículo 755

Será nula la disposición testamentaria a favor de un incapaz, aunque se la disfrace

Ez dute ondorerik sortzen testamentugileak, azken gaixoaldian, bere aitortza entzun duen apaizaren mesederako nahiz apaiz horren laugarren gradurainoko ahaideen mesederako, edota haren eliza, kabildo, erkidego edo institutuaren mesederako eginiko xedapenek.

753. artikulua

Era berean, ez du ondorerik sortuko testamentugileak bere tutore edo kuradorearen mesederako eginiko testamentu- xedapenak, salbu eta xedapen hori kontu-arrazoia behin betiko onetsi eta gero egiten denean, edo, kontuarrazoia eman behar ezean, xedapena tutoretza edo kuradoretza azkendu eta gero egiten denean.

Hala ere, tutore edo kuradorearen mesederako eginiko xedapenak baliozkoak izango dira, pertsona hori testamentugilearen aurreko, ondorengo, neba, arreba edo ezkontidea bada.

754. artikulua

Testamentugileak ezin du bere jarauntsi osoa edo zati bat xedatu testamentua eskuetsi duen notarioaren mesederako, horren ezkontidearen mesederako edo laugarren gradurainoko ahaide nahiz ezkontza-ahaideen mesederako, 682. artikuluan ezarritako kasuan izan ezik.

Debeku berbera aplikatuko zaie testamentu irekiko lekukoei, testamentu hori notarioaren aurrean egin zein egin ez.

Artikulu honetako xedapenak aplikatzen zaizkie, berebat, testamentu berezien lekukoei eta testamentu horien egilespena zein pertsonaren aurrean egin eta pertsona horiei.

755. artikulua

Deuseza izango da ezgaiaren mesederako eginiko testamentu-xedapena, nahiz eta

bajo la forma de contrato oneroso o se haga a nombre de persona interpuesta.

Artículo 756

Son incapaces de suceder por causa de indignidad:

1. Los padres que abandonaren, prostituyeren o corrompieren a sus hijos.
2. El que fuere condenado en juicio por haber atentado contra la vida del testador, de su cónyuge, descendientes o ascendientes.
Si el ofensor fuere heredero forzoso, perderá su derecho a la legítima.
3. El que hubiese acusado al testador de delito al que la ley señale pena no inferior a la de presidio o prisión mayor, cuando la acusación sea declarada calumniosa.

4. El heredero mayor de edad que, sabedor de la muerte violenta del testador, no la hubiese denunciado dentro de un mes a la justicia, cuando ésta no hubiera procedido ya de oficio.

Cesará esta prohibición en los casos en que, según la ley, no hay la obligación de acusar.

5. El que, con amenaza, fraude o violencia, obligare al testador a hacer testamento o a cambiarlo.

6. El que por iguales medios impidiere a otro hacer testamento, o revocar el que tuviese hecho, o suplantare, ocultare o alterar otro posterior.

7. Tratándose de la sucesión de una persona con discapacidad, las personas con derecho a la herencia que no le hubieren prestado las atenciones debidas, entendiéndose por tales las reguladas en los

xedapen horri kostu bidezko kontratuaren itxura eman edo tarteko pertsona baten izenean egin.

756. artikulua

Ezduintasun-arrazoiaren ondorioz ez dira oinordeko izateko gai:

1. Seme-alabak bertan behera utzi, prostituzioan jarri edo gaizpideratzen dituzten gurasoak.
2. Testamentugilearen, horren ezkontidearen, ondorengoaren edo aurrekoen bizitzaren aurka atentatzeagatik, epaiketan kondenatua izan dena.
Ofentsagilea nahitaezko jaraunslea bada, seniparte-eskubidea galduko du.
3. Testamentugilea delitua egin izanaz akusatzen duena, baldin eta legeak delitu horrentzat espetxealdi edo presoaldi handia baino goragoko zigorra ezarri eta akusazioa kalumnia dela adierazten denean epai baten bidez.

4. Adin nagusiko jaraunslea, baldin eta jakin badaki testamentugilea indarkeriaz hil dela, eta, hilabeteko epean, ez badu heriotza hori auzitegietan salatzen, salbu eta auzitegiek ofizioz jardun dutenean.

Debeku hori amaituko da legearen arabera akusatzeko betebeharririk ez dagoen kasuetan.

5. Mehatxua, iruzurra edo indarkeria erabiliz, testamentugilea testamentua egin edo aldatzera behartzen duena.

6. Bide berberak erabiliz, testamentugileari testamentua egitea nahiz egindakoa ezeztatzea eragozten diona, eta geroko testamentua ordeztu, ezkutatu edo aldatzen duena.

7. Desgain den norbaiten oinordetza izanez gero, jarauntsirako eskubidea izan eta hari beharrezkoak diren laguntzak eman ez dizkietenak; beharrezko laguntzat hartuko dira Kode Zibilaren 142 eta 146.

artículos 142 y 146 del Código Civil.

Artículo 757

Las causas de indignidad dejan de surtir efecto si el testador las conocía al tiempo de hacer testamento o, si habiéndolas sabido después, las remitiere en documento público.

Artículo 758

Para calificar la capacidad del heredero o legatario se atenderá al tiempo de la muerte de la persona de cuya sucesión se trate.

En los casos 2. y 3. del artículo 756 se esperará a que se dicte la sentencia firme, y en el número 4. a que transcurra el mes señalado para la denuncia.

Si la institución o legado fuere condicional, se atenderá además al tiempo en que se cumpla la condición.

Artículo 759

El heredero o legatario que muera antes de que la condición se cumpla, aunque sobreviva al testador, no transmite derecho alguno a sus herederos.

Artículo 760

El incapaz de suceder, que, contra la prohibición de los anteriores artículos, hubiese entrado en la posesión de los bienes hereditarios, estará obligado a restituirlos con sus accesiones y con todos los frutos y rentas que haya percibido.

Artículo 761

Si el excluido de la herencia por incapacidad fuere hijo o descendiente del testador, y tuviere hijos o descendientes, adquirirán éstos su derecho a la legítima.

Artículo 762

artikuluetan araututakoak.

757. artikulua

Ezduintasun-arrazoiek ondoreak sortzeari uzten diote, testamentugileak arrazoioak jakin baditu testamentua egiteko unean, edo, testamentua egin ondoren jakinda, arrazoioak agiri publikoaren bitartez barkatu baditu.

758. artikulua

Jaraunsle edo legatu-hartzailearen gaitasuna kalifikatzeko, zein pertsonaren oinordetza izan eta horren heriotza-data izan behar da kontuan.

756. artikulua 2 eta 3. kasuetan, epaia irmo izateari itxaron beharko zaio; 4. zenbakian, aldiz, salaketa egiteko hilabetea igarotzeari.

Jaraunsle-izendapena edo legatua baldintzapekoa bada, baldintza betetzeko unea ere kontuan izan behar da.

759. artikulua

Jaraunslea edo legatu-hartzailea baldintza bete baino lehen hiltzen bada, ez die bere jaraunsleei inolako eskubiderik eskualdatzen, nahiz eta testamentugilearen ostean hil.

760. artikulua

Aurreko artikuluetako debekuen aurka, oinordeko izateko ezgaitasuna duenak jarauntsiko ondasunen edukitza eskuratzen badu, ondasunok eta horien akzesioak itzuli beharko ditu, berak jasotzen dituen fruitu eta errentekin batera.

761. artikulua

Ezgaitasunaren ondorioz jarauntsitik baztertua izan dena testamentugilearen semea, alaba edo ondorengo bada, eta seme-alabak edo ondorengoak baditu, horiek eskuratuko dute hark senipartearen gain duen eskubidea.

762. artikulua

No puede deducirse acción para declarar la incapacidad pasados cinco años desde que el incapaz esté en posesión de la herencia o legado.

SECCIÓN II *De la institución de heredero*

Artículo 763

El que no tuviere herederos forzosos puede disponer por testamento de todos sus bienes o de parte de ellos en favor de cualquier persona que tenga capacidad para adquirirlos.

El que tuviere herederos forzosos sólo podrá disponer de sus bienes en la forma y con las limitaciones que se establecen en la sección quinta de este capítulo.

Artículo 764

El testamento será válido aunque no contenga institución de heredero, o ésta no comprenda la totalidad de los bienes, y aunque el nombrado no acepte la herencia o sea incapaz de heredar.

En estos casos se cumplirán las disposiciones testamentarias hechas con arreglo a las leyes, y el remanente de los bienes pasará a los herederos legítimos.

Artículo 765

Los herederos instituidos sin designación de partes heredarán por partes iguales.

Artículo 766

El heredero voluntario que muere antes que el testador, el incapaz de heredar y el que renuncia a la herencia, no transmiten ningún derecho a sus herederos, salvo lo dispuesto en los artículos 761 y 857.

Artículo 767

La expresión de una causa falsa de la institución de heredero o del nombramiento de legatario, será considerada como no

Ezin da ezgaitasuna deklaratzeko akziorik egikaritu, bost urte igaro badira ezgaiak jarauntsiaren edo legatuaren edukitza eskuratu zuenetik.

II. ATALA *Jaraunsle-izendapena*

763. artikulua

Norbaitek nahitaezko jaraunslerik ez badu, bere ondasun guztiak edo batzuk xeda ditzake, testamentu bidez, ondasunok eskuratzeko gaitasuna duten pertsonetatik edozeinen mesederako.

Norbaitek nahitaezko jaraunsleak baditu, bere ondasunak xedatu ahal izango ditu kapitulu honen bosgarren atalean ezarritako forma eta mugapenekin.

764. artikulua

Testamentua baliozkoa izango da, nahiz eta jaraunsle-izendapenik jaso ez, izendapen horrek ondasun guzti-guztiak hartu ez edo izendatuak jarauntsia arbiatu edo jaraunsle izateko ezgaitasuna izan.

Kasu horietan, legeen arabera egindako testamentu-xedapen guztiak beteko dira, eta ondasunen gerakina jaraunsle legitimoen emango zaie.

765. artikulua

Jaraunsleak izendatzen badira zatirik izendatu gabe, hainbana izango dira jaraunsle.

766. artikulua

Testamentugilea baino lehen hiltzen den borondatezko jaraunsleak, jaraunsle izateko ezgaitasuna duenak eta jarauntsiari uko egiten dionak ez diete inongo eskubiderik eskualdatzen euren jaraunsleei, 761 eta 857. artikuluetan xedatutakoa salbu.

767. artikulua

Jaraunslea edo legatu-hartzailea izendatzeko arrazoi faltsua adierazten bada, arrazoi hori ez dela idatzi ulertuko

escrita, a no ser que del testamento resulte que el testador no habría hecho tal institución o legado si hubiese conocido la falsedad de la causa.

La expresión de una causa contraria a derecho, aunque sea verdadera, se tendrá también por no escrita.

Artículo 768

El heredero instituido en una cosa cierta y determinada será considerado como legatario.

Artículo 769

Cuando el testador nombre unos herederos individualmente y otros colectivamente, como si dijere: «Instituyo por mis herederos a N. y a N. y a los hijos de N.», los colectivamente nombrados se considerarán como si lo fueran individualmente, a no ser que conste de un modo claro que ha sido otra la voluntad del testador.

Artículo 770

Si el testador instituye a sus hermanos, y los tiene carnales y de padre o madre solamente, se dividirá la herencia como en el caso de morir intestado.

Artículo 771

Cuando el testador llame a la sucesión a una persona y a sus hijos, se entenderán todos instituidos simultánea y no sucesivamente.

Artículo 772

El testador designará al heredero por su nombre y apellidos, y cuando haya dos que los tengan iguales deberá señalar alguna circunstancia por la que se conozca al instituido.

da, salbu eta testamentuak ondorioztatzen duenean testamentugileak ez zukeela jaraunsle-izendapena edo legatua egingo, arrazoa faltsua zela jakin izan balu.

Zuzenbidearen aurkako arrazoa adierazten bada, hori ez dela idatzi ulertuko da, nahiz eta arrazoa egiazkoa izan.

768. artikulua

Gauza zehatz eta jakinaren gainean izendaturiko jaraunslea legatu-hartzailatzat joko da.

769. artikulua

Testamentugileak jaraunsle batzuk banan-banan eta beste batzuk taldeka izendatzen dituenan, berbarako, «N eta N jaraunsle izendatzen ditut, bai eta Nren seme-alabak ere», taldeka izendatutakoak banan-banan izendatu direla ulertuko da, argiro agertzen ez bada testamentugilearen borondatea bestelakoa izan dela.

770. artikulua

Testamentugileak bere neba-arrebak jaraunsle izendatzen baditu, eta horieta tik batzuk odolekoak eta besteak aitarengandikoak edo amarengandikoak bakarrik badira, jarauntsia banatuko da testamentugilea testamenturik gabe hilez gero banatuko litzatekeen modu berean.

771. artikulua

Testamentugileak pertsona bati eta horren seme-alabei oinordetzara deitzen dienean, ulertuko da horiek guztiak aldi berean izendatu direla, eta ez ondoz ondo.

772. artikulua

Testamentugileak jaraunslea izendatuko du horren izen-abizenak erabiliz; eta, izen-abizen berberak dituzten bi pertsona daudenean, testamentuak inguruabarren bat adierazi beharko du, izendatua nor den jakin ahal izateko.

Aunque el testador haya omitido el nombre del heredero, si lo designare de modo que no pueda dudarse quien sea el instituido, valdrá la institución.

En el testamento del adoptante, la expresión genérica hijo o hijos comprende a los adoptivos.

Artículo 773

El error en el nombre, apellido o cualidades del heredero no vicia la institución cuando de otra manera puede saberse ciertamente cuál sea la persona nombrada.

Si entre personas del mismo nombre y apellidos hay igualdad de circunstancias y éstas son tales que no permiten distinguir al instituido, ninguno será heredero.

SECCIÓN III De la sustitución

Artículo 774

Puede el testador sustituir una o más personas al heredero o herederos instituidos para el caso en que mueran antes que él, o no quieran, o no puedan aceptar la herencia.

La sustitución simple, y sin expresión de casos, comprende los tres expresados en el párrafo anterior, a menos que el testador haya dispuesto lo contrario.

Artículo 775

Los padres y demás ascendientes podrán nombrar sustitutos a sus descendientes menores de catorce años, de ambos sexos, para el caso de que mueran antes de dicha edad.

Artículo 776

Testamentugileak jaraunsearen izena aipatzen ez badu ere, zalantzarik gabe jakin badaiteke nor izendatu duen, izendapena baliozkoa izango da.

Adopzio-hartzailearen testamentuan modu generikoan semea, alaba edo seme-alabak aipatu eta aipamen horrek bere barruan hartzen ditu seme-alaba adoptatuak ere bai.

773. artikulua

Testamentugileak okerren bat badu jaraunsearen izen-abizenei edo ezaugarriei buruz, oker horrek ez du izendapena akastun bihurtzen, beste bideren bat erabilita ziur jakin daitekeenean nor izendatu den.

Izen eta abizen bereko pertsonak inguruabar berdinak badituzte, eta inguruabarron bidez ezin bada jakin nor izan den izendatua, pertsona horietatik bat ere ez da jaraunse izango.

III. ATALA Ordezpena

774. artikulua

Testamentugileak ordezeko bat edo gehiago izenda ditzake jaraunse izendatu duenarentzat edo dituenentzat, izendatuok testamentugilea baino lehenago hiltzen direnerako edota jarauntsia onartu nahi ez edo onartu ezin dutenentarako.

Ordezpen soilak, kasurik adierazten ez duenak, aurreko lerrokadan adierazitako hiru kasuak hartuko ditu, testamentugileak bestelakoa xedatu duenean izan ezik.

775. artikulua

Hamalau urtekoak baino gazteagoak eta sexu batekoak nahiz bestekoak diren ondorengoentzat, horien gurasoek eta gainerako aurrekoek ordezekoak izendatu ahal dituzte, ondorengook adin horretara heldu baino lehen hiltzen direnerako.

776. artikulua

El ascendiente podrá nombrar sustituto al descendiente mayor de catorce años, que, conforme a derecho, haya sido declarado incapaz por enajenación mental.

La sustitución de que habla el párrafo anterior quedará sin efecto por el testamento del incapacitado hecho durante un intervalo lúcido o después de haber recobrado la razón.

Artículo 777

Las sustituciones de que hablan los dos artículos anteriores, cuando el sustituido tenga herederos forzosos, sólo serán válidas en cuanto no perjudiquen los derechos legítimos de éstos.

Artículo 778

Pueden ser sustituidas dos o más personas a una sola; y al contrario, una sola a dos o más herederos.

Artículo 779

Si los herederos instituidos en partes desiguales fueron sustituidos recíprocamente, tendrán en la sustitución las mismas partes que en la institución, a no ser que claramente aparezca haber sido otra la voluntad del testador.

Artículo 780

El sustituto quedará sujeto a las mismas cargas y condiciones impuestas al instituido, a menos que el testador haya dispuesto expresamente lo contrario, o que los gravámenes o condiciones sean meramente personales del instituido.

Artículo 781

Las sustituciones fideicomisarias en cuya virtud se encarga al heredero que conserve y transmita a un tercero el todo o parte de la herencia, serán válidas y surtirán efecto siempre que no pasen del segundo grado, o que se hagan en favor de personas que

Zorotasuna dela-eta hamalau urtekoa baino nagusiagoa den ondorengo ezgaia dela adierazten bada, aurrekoak ordezkoa izenda dezake ondorengo horrentzat.

Ezgaituak burua argi duenean edo bere senera datorrenean testamentua egin eta testamentu horrek eraginik gabe utziko du aurreko lerrokadak aipatzen duen ordezpena.

777. artikulua

Ordeztuak nahitaezko jaraunsleak izanez gero, aurreko artikuluek aipatzen dituzten ordezpenak baliozkoak izango dira jaraunseon seniparte-eskubideei kalte egiten ez dietenean bakarrik.

778. artikulua

Bi pertsona edo gehiago izan daitezke beste inoren ordezko, eta, alderantziz, ordezko bakarra izan daiteke jaraunsele bi edo gehiagorentzat.

779. artikulua

Jaraunseak zati desberdinen gainean izendatu eta elkarren ordezko badira, jaraunseok ordezpenean eskuratuko dituzte izendapenean dagozkien zati berberak, salbu eta argiro agertzen denean testamentugilearen borondatea bestelakoa izan dela.

780. artikulua

Ordezkoa geratuko da izendatuari ezarritako zama eta baldintza berberen menpe, salbu eta testamentugileak beren beregi horren aurkakoa xedatu duenean, edo karga nahiz baldintzok izendatuari bakar-bakarrik dagozkionean.

781. artikulua

Fideikomisozko ordezpenak direla bide, testamentugileak jaraunseari ezartzen dio jaraunsi osoa edo horren zati bat artatu eta hirugarren bati eskualdatzeko ardura; ordezpenok baliozkoak izango dira eta ondoreak sortuko dituzte, bigarren gradutik

vivan al tiempo del fallecimiento del testador.

Artículo 782

Las sustituciones fideicomisarias nunca podrán gravar la legítima, salvo que graven la legítima estricta en beneficio de un hijo o descendiente judicialmente incapacitado en los términos establecidos en el artículo 808. Si recayeren sobre el tercio destinado a la mejora, sólo podrán hacerse en favor de los descendientes.

Artículo 783

Para que sean válidos los llamamientos a la sustitución fideicomisaria, deberán ser expresos.

El fiduciario estará obligado a entregar la herencia al fideicomisario, sin otras deducciones que las que correspondan por gastos legítimos, créditos y mejoras, salvo el caso en que el testador haya dispuesto otra cosa.

Artículo 784

El fideicomisario adquirirá derecho a la sucesión desde la muerte del testador, aunque muera antes que el fiduciario.

El derecho de aquél pasará a sus herederos.

Artículo 785

No surtirán efecto:

1. Las sustituciones fideicomisarias que no se hagan de una manera expresa, ya dándoles este nombre, ya imponiendo al sustituido la obligación terminante de entregar los bienes a un segundo heredero.
2. Las disposiciones que contengan prohibición perpetua de enajenar, y aun la

gorakoak ez badira edo testamentugilea hiltzeko unean bizirik dauden pertsonen mesederako egiten badira.

782. artikulua

Fideikomisozko ordezenek ezin dute inola ere senipartea kargatu, salbu eta seniparte hertsia kargatzen dutenean epaiketa bidez ezgaitutako seme, alaba edo ondorengoaren mesederako, 808. artikulua araberak. Ordezpen horiek hobekuntzako herenaren gainekoak badira, ondorengoaren mesederako bakarrik egin daitezke.

783. artikulua

Fideikomisozko ordezpenerako deiak baliozkoak izan daitezzen, esanbidezkoak izan behar dira.

Fiduziarioak fideikomisodunari eman beharko dio jarauntsia, baina jarauntsi horretatik ken ditzake gastu legitimo, kreditu eta hobekuntzengatik berari dagozkionak, salbu eta testamentugileak bestelakoa xedatu duenean.

784. artikulua

Fideikomisodunak oinordetzarako eskubidea eskuratuko du testamentugilea hiltzen den unetik, nahiz eta fideikomisodun hori fiduziarioa baino lehen hil.

Fideikomisodunaren eskubidea horren jaraunslerei eskualdatuko zaie.

785. artikulua

Ez dute ondorerik sortzen:

1. Esanbidezkoak ez diren fideikomisozko ordezenek; ordezenak esanbidezkoak dira, baldin eta izen hori eman bazaie edo ordeztuari ezarri bazaio ondasunak beste jaraunsleri bati emateko betebeharrak eztaba daezina.
2. Besterentzeko debeku betierekoa jasotzen duten xedapenek, bai eta aldi

temporal, fuera del límite señalado en el artículo 781.

3. Las que impongan al heredero el encargo de pagar a varias personas sucesivamente, más allá del segundo grado, cierta renta o pensión.

4. Las que tengan por objeto dejar a una persona el todo o parte de los bienes hereditarios para que los aplique o invierta según instrucciones reservadas que le hubiese comunicado el testador.

Artículo 786

La nulidad de la sustitución fideicomisaria no perjudicará a la validez de la institución ni a los herederos del primer llamamiento; sólo se tendrá por no escrita la cláusula fideicomisaria.

Artículo 787

La disposición en que el testador deje a una persona el todo o parte de la herencia, y a otra el usufructo, será válida.

Si llamare al usufructo a varias personas, no simultánea, sino sucesivamente, se estará a lo dispuesto en el artículo 781.

Artículo 788

Será válida la disposición que imponga al heredero la obligación de invertir ciertas cantidades periódicamente en obras benéficas, como dotes para doncellas pobres, pensiones para estudiantes o en favor de los pobres o de cualquier establecimiento de beneficencia o de instrucción pública, bajo las condiciones siguientes:

Si la carga se impusiere sobre bienes inmuebles y fuere temporal, el heredero o

baterako debekua dakartenek ere, baldin eta azken horiek 781. artikuluan aipaturiko mugaz kanpo egiten badira.

3. Jaraunslearen gain ezartzen diren xedapenek, baldin eta horien bitartez jaraunsleak bigarren gradutik gorako pertsona batzuei ondoz ondo ordaindu behar badie errenta edo pentsio jakin bat.

4. Norbaiti jarauntsiko ondasun guztiak edo batzuk uzteko helburua duten xedapenek, baldin eta pertsona horrek ondasunok erabili edo inbertitu behar baditu testamentugileak berari isilpean eman dizkion jarraibideen arabera.

786. artikulua

Fideikomisozko ordezipena deuseza izan arren, horrek ez dio kalterik egiten izendapenaren baliozkotasunari, ezta lehenengo deiaren jaraunsleei ere; halakoetan, fideikomisozko klausula ez dela idatzi ulertu behar da.

787. artikulua

Baliozkoa izango da testamentugileak norbaiti jarauntsi osoa edo horren zati bat, eta beste inori gozamena uzteko xedapena.

Testamentugileak zenbait pertsonari deitzen badie gozamenera, aldi berean baino, ondoz ondo, 781. artikuluan xedaturikoa bete beharko da.

788. artikulua

Baliozkoa izango da xedapena, jaraunsleari ezartzen badio aldiro-aldiro kopuru jakin batzuk ongintzako obretan inbertitzeko betebeharra, adibidez, dontzeila txiroei ezkonsariak edo ikasleei, txiroei, ongintza-etxeei nahiz herri-ikastetxeei pentsioak emateko betebeharra, hurrengo baldintzak kontuan hartuta:

Ondasun higiezinaren gainean aldi baterako zama ezartzen bada, jaraunsleak edo

herederos podrán disponer de la finca gravada, sin que cese el gravamen mientras que su inscripción no se cancele.

Si la carga fuere perpetua, el heredero podrá capitalizarla e imponer el capital a interés con primera y suficiente hipoteca.

La capitalización e imposición del capital se hará interviniendo el Gobernador civil de la provincia y con audiencia del Ministerio público.

En todo caso, cuando el testador no hubiere establecido un orden para la administración y aplicación de la manda benéfica, lo hará la Autoridad administrativa a quien corresponda con arreglo a las leyes.

Artículo 789

Todo lo dispuesto en este capítulo respecto a los herederos se entenderá también aplicable a los legatarios.

SECCIÓN IV De la institución de heredero y del legado condicional a término

Artículo 790

Las disposiciones testamentarias, tanto a título universal como particular, podrán hacerse bajo condición.

Artículo 791

Las condiciones impuestas a los herederos y legatarios, en lo que no esté prevenido en esta sección, se regirán por las reglas establecidas para las obligaciones condicionales.

Artículo 792

Las condiciones imposibles y las contrarias a las leyes o a las buenas costumbres se tendrán por no puestas y en nada perjudicarán al heredero o legatario, aun

jaraunsleek kargapeko finka xeda dezakete; karga ez da desagertuko horri buruzko inskripzioa ezerezten ez den bitartean.

Zama betierekoa baldin bada, jaraunsleak hori kapitalizatu eta kapitala irabazian jarri ahal izango du, lehenengo eta behar besteko den hipotekarekin.

Kapitalizazioetan eta kapital-ezarpenetan, probintziako gobernadore zibilak esku hartu behar du, eta Fiskaltzak esan beharrekoa entzun behar da.

Edozein kasutan ere, testamentugileak ez duenean hurrenkerarik ezartzen ongintzarako agintzaria administratu eta erabiltzeko, administrazio-agintariak ezarriko du hurrenkera hori, legearen arabera hala dagokionean.

789. artikulua

Kapitulu honetan jaraunsleei buruz xedatutakoa legatu-hartzaileei ere aplikatzen zaiela ulertuko da.

IV. ATALA Baldintzapeko edo epe-mugapeko jaraunsle-izendapena eta legatua

790. artikulua

Testamentuko xedapenak baldintzapean egin daitezke, xedapenok titulu unibertsalaren bidezkoak izan nahiz banakako tituluaren bidezkoak izan.

791. artikulua

Jaraunsleei eta legatu-hartzaileei jarritako baldintzei dagokienez, eta atal honetan arautzen ez diren arazoetan, baldintzapeko betebeharren erregelak aplikatuko dira.

792. artikulua

Ezinezko baldintzak eta lege nahiz ohitura onen aurkakoak jarri gabekotzat hartuko dira, eta ez diete inolako kalterik egingo jaraunsle edo legatu-hartzaileei, nahiz eta

cuando el testador disponga otra cosa.

Artículo 793

La condición absoluta de no contraer primero o ulterior matrimonio se tendrá por no puesta, a menos que lo haya sido al viudo o viuda por su difunto consorte o por los ascendientes o descendientes de éste.

Podrá, sin embargo, legarse a cualquiera el usufructo, uso o habitación, o una pensión o prestación personal, por el tiempo que permanezca soltero o viudo.

Artículo 794

Será nula la disposición hecha bajo condición de que el heredero o legatario haga en su testamento alguna disposición en favor del testador o de otra persona.

Artículo 795

La condición puramente potestativa impuesta al heredero o legatario ha de ser cumplida por éstos, una vez enterados de ella, después de la muerte del testador.

Exceptúase el caso en que la condición, ya cumplida, no pueda reiterarse.

Artículo 796

Cuando la condición fuere casual o mixta, bastará que se realice o cumpla en cualquier tiempo, vivo o muerto el testador, si éste no hubiese dispuesto otra cosa.

Si hubiese existido o se hubiese cumplido al hacerse el testamento, y el testador lo ignoraba, se tendrá por cumplida.

Si lo sabía, sólo se tendrá por cumplida cuando fuere de tal naturaleza que no

testamentugileak bestelakoa xedatu.

793. artikulua

Behin edo gehiagotan ez ezkontzeko baldintza erabatekoa jarri gabekotzat hartuko da, salbu eta hildakoak edo horren aurreko nahiz ondorengoek alargunari ezarri diotenean debeku hori.

Hala ere, edonori legatu moduan eman ahal zaio gozamina, erabiltzea nahiz biztantzzea, edota pentsio zein prestazio pertsonala, pertsona horrek ezkongabe edo alargun dirauen denborarako.

794. artikulua

Deuseza izango da xedapena, hori baldintzapean egin eta baldintza bada jaraunsle edo legatu-hartzaileak bere testamentuan xedapenen bat egitea testamentugilearen edo beste inoren mesederako.

795. artikulua

Jaraunsle edo legatu-hartzaileari nahibadako baldintza hutsa ezartzen bazaio, baldintza bete behar du, baldintzaren berri izan eta testamentugilea hiltzearekin batera.

Salbuespen gisa har daiteke baldintza aurretiaz bete izana, hori ezin bada berriz errepikatu.

796. artikulua

Baldintza ustekabekoa edo mistoa denean, nahiko izango da baldintza hori edozein unetan gauzatu edo betetzea, testamentugilea bizirik egon zein hilda egon, salbu eta testamentugileak bestelakoa xedatu duenean.

Testamentua egitean baldintza hori gertatu edo beteta badago, eta testamentugileak ez badu horren berririk izan, baldintza betetzat joko da.

Testamentugileak baldintzaren berri badu, baldintza hori betetzat joko da, bakar-

pueda ya existir o cumplirse de nuevo.

Artículo 797

La expresión del objeto de la institución o legado, o la aplicación que haya de darse a lo dejado por el testador, o la carga que el mismo impusiere, no se entenderán como condición, a no parecer que ésta era su voluntad.

Lo dejado de esta manera puede pedirse desde luego, y es transmisible a los herederos que afiancen el cumplimiento de lo mandado por el testador, y la devolución de lo percibido con sus frutos e intereses, si faltaren a esta obligación.

Artículo 798

Cuando, sin culpa o hecho propio del heredero o legatario, no pueda tener efecto la institución o el legado de que trata el artículo precedente en los mismos términos que haya ordenado el testador, deberá cumplirse en otros, los más análogos y conformes a su voluntad.

Cuando el interesado en que se cumpla o no, impidiere su cumplimiento sin culpa o hecho propio del heredero o legatario, se considerará cumplida la condición.

Artículo 799

La condición suspensiva no impide al heredero o legatario adquirir sus respectivos derechos y transmitirlos a sus herederos, aun antes de que se verifique su cumplimiento.

Artículo 800

Si la condición potestativa impuesta al heredero o legatario fuere negativa, o de no hacer o no dar, cumplirán con afianzar que

bakarrik, baldintzaren izaeraren ondorioz ezin denean berriz gertatu edo bete.

797. artikulua

Testamentugileak izendapenaren edo legatuaren helburua finkatu arren, edo berak utzitako ondasunak erabiltzeko modua nahiz horien gainean ezarritako zama adierazi arren, ez da ulertuko horiek baldintza direnik, ez badu ematen hori testamentugilearen borondatea izan denik.

Modu horretan utzitakoa behingoan eska daiteke, eta jaraunsleei eskualda dakieke, fidantza bidez bermatzen badute testamentugileak agindutakoa betetzea, eta, betebeharrak hori betetzen ez denerako, euren eskuratutakoa itzultzea fruitu eta korrituekin batera.

798. artikulua

Aurreko artikuluan aipaturiko izendapenak edo legatuak ezin duenean ondorerik sortu testamentugileak ordenatutako moduan, horretan eraginik ez duela jaraunsle edo legatu-hartzailearen erru edo egitate batek, beste era batera bete beharko da, betiere testamentugilearen borondateari gehien egokitzen zaion moduan.

Baldintza bete edo ez betetzeko interesa duenak baldintza betetzea eragozten duenean, horretan eraginik ez duela jaraunsle edo legatu-hartzailearen erru nahiz egitate batek, baldintza betetzat joko da.

799. artikulua

Baldintza etengarriak ez du eragozten jaraunsle edo legatu-hartzaileak berari dagozkion eskubideak eskuratzea eta bere jaraunsleei eskubideok eskualdatzea, baita baldintza bete aurretik ere.

800. artikulua

Jaraunsle edo legatu-hartzaileari nahibadako baldintza ezartzen bazaio, eta baldintza hori negatiboa edota zerbait ez

no harán o no darán lo que fue prohibido por el testador, y que, en caso de contravención, devolverán lo percibido, con sus frutos e intereses.

Artículo 801

En este caso continuará el censo sobre el

higiezinaren gain eta eskritura publikoaren bidez bakarrik.

1629. artikulua

Enfiteusi-zentsua eratzean, kontratuan bertan finkatuko dira, deuseztasun-zigorren menpe, finkaren balioa eta urtero ordaindu behar den pentsioa.

1630. artikulua

Pentsioa fruituen kopuru zehatza denean, kontratuan finkatuko dira fruituon espezie eta kalitatea.

Pentsioa finkak sortzen dituen fruituen zati alikuota izan, eta ez bada beren beregi ituntzen zein esku-hartze izan behar duen zuzeneko ugazabak, enfiteusidunak aurretiazko abisua egin beharko dio ugazabari edo horren ordezkariari, fruitu-mota bakoitzaren bilketa zein egunetan hasten den adieraziz; horrela, ugazabak, zuzenean edo ordezkariaren bidez, eragiketa guztiak ikus ditzake, berari dagokion zatia jaso arte.

Abisua eman eta gero, enfiteusidunak uzta bil dezake, nahiz eta zuzeneko ugazaba, horren ordezkaria edo kontu-hartzailea bertan egon ez.

1631. artikulua

Nahitaez jabetza kentzeko kasuan, 1627. artikulua lehengo lerrokadan xedatutakoa beteko da, finka osoa nahitaez kentzen denean.

Zati batean bakarrik gertatuz gero, nahitaez kendutakoaren prezioa zuzeneko ugazabaren eta jabetza erabilgarria duenaren artean banatuko da; hark jasoko du nahitaez kendutako zatiari zentsuaren kapitalean proportzioz dagokion zatia, zentsua eratzean finka osoari eman zitzaion balioaren arabera edo zentsua luditze erabili izan den tasaren arabera, eta gainerakoa enfiteusidunari dagokio.

Kasu horretan, zentsuak finkaren

resto de la finca, con la correspondiente reducción en el capital y las pensiones, a no ser que el enfiteuta opte por la redención total o por el abandono a favor del dueño directo.

Cuando, conforme a lo pactado, deba pagarse laudemio, el dueño directo percibirá lo que por este concepto le corresponda sólo de la parte del precio que pertenezca al enfiteuta.

Artículo 1632

El enfiteuta hace suyos los productos de la finca y de sus accesiones.

Tienen los mismos derechos que corresponderían al propietario en los tesoros y minas que se descubran en la finca enfiteútica.

Artículo 1633

Puede el enfiteuta disponer del predio enfiteútico y de sus accesiones, tanto por actos entre vivos como de última voluntad, dejando a salvo los derechos del dueño directo, y con sujeción a lo que establecen los artículos que siguen.

Artículo 1634

Cuando la pensión consista en una parte alícuota de los frutos de la finca enfiteútica, no podrá imponerse servidumbre ni otra carga que disminuya los productos sin consentimiento expreso del dueño directo.

Artículo 1635

El enfiteuta podrá donar o permutar libremente la finca, poniéndolo en conocimiento del dueño directo.

Artículo 1636

Corresponden recíprocamente al dueño directo y al útil el derecho de tanteo y el de retracto, siempre que vendan o den en pago su respectivo dominio sobre la finca

gainerako zatian iraungo du, eta kapitala eta pentsioak urritu egingo dira, salbu eta enfiteusidunak aukeratzen duenean oso-osorik luditzea, edo finka zuzeneko ugazabarentzat bertan behera uztea.

Itundutakoarekin bat etorri laudemioa ordaindu behar denean, zuzeneko ugazabak jasoko du kontzeptu horren ondorioz berari dagokiona, enfiteusidunari dagokion prezio-zatitik bakarrik.

1632. artikulua

Enfiteusidunak bere egiten ditu finkaren produktuak eta horren akzesioenak.

Enfiteusidunak jabeari legezkiokoen eskubide berberak ditu, enfiteusipeko finkan aurkitutako altxor eta meatzeen gain.

1633. artikulua

Enfiteusidunak enfiteusipeko lurra eta horren akzesioak xeda ditzake, bizien arteko egintzen bidez nahiz azken nahiaren egintzen bidez, zuzeneko ugazabaren eskubideak salbu, eta hurrengo artikuluek ezarritakoaren menpe.

1634. artikulua

Pentsioa enfiteusipeko finkatik lortutako fruituen zati alikuota denean, ezin izango da ezarri produktuak gutxitzea dakarren zortasunik edo bestelako zamarik, zuzeneko ugazabaren esanbidezko adostasunik gabe.

1635. artikulua

Enfiteusidunak askatasuna du finka dohaintzan eman edo trukatzeko, zuzeneko ugazabari horren berri eman ez gero.

1636. artikulua

Zuzeneko ugazabari eta jabetza erabilgarria duenari elkarrekin dagozkie eroslehentasun-eskubidea eta atzera-eskuratze eskubidea, baldin eta

enfitéutica.

Esta disposición no es aplicable a las enajenaciones forzosas por causa de utilidad pública.

Artículo 1637

Para los efectos del artículo anterior, el que trate de enajenar el dominio de una finca enfitéutica deberá avisarlo al otro condueño, declarándole el precio definitivo que se le ofrezca, o en que pretenda enajenar su dominio.

Dentro de los veinte días siguientes al del aviso, podrá el condueño hacer uso del derecho de tanteo, pagando el precio indicado. Si no lo verifica, perderá este derecho y podrá llevarse a efecto la enajenación.

Artículo 1638

Cuando el dueño directo, o el enfitauta en su caso, no haya hecho uso del derecho de tanteo a que se refiere el artículo anterior, podrá utilizar el de retracto para adquirir la finca por el precio de la enajenación.

En este caso deberá utilizarse el retracto dentro de los nueve días útiles siguientes al del otorgamiento de la escritura de venta. Si ésta se ocultare, se contará dicho término desde la inscripción de la misma en el Registro de la propiedad.

Se presume la ocultación cuando no se presenta la escritura en el Registro dentro de los nueve días siguientes al de su otorgamiento.

Independientemente de la presunción, la ocultación puede probarse por los demás medios legales.

Artículo 1639

Si se hubiere realizado la enajenación sin el previo aviso que ordena el artículo 1637,

enfiteusipeko finkaren gain bakoitzak duen jabaria saldu edo ordainean ematen bada.

Xedapen hori ezin zaie aplikatu herri-onuraren ondoriozko besterentze nahitaezkoei.

1637. artikulua

Aurreko artikulua ondoeetarako, norbaitek enfiteusipeko finkaren jabaria besterendu nahi badu, ugazabakideari abisatu behar dio, berari eskaini izan zaion behin betiko prezioa edo jabariaren besterentzearekin berak lortu nahi duena adieraziz.

Abisua egin eta hurrengo hogeai egunetan, ugazabakideak eroslehentasuneskubidea egikari dezake adierazitako prezioa ordainduz. Ez badu halakorik egiten, eskubide hori galduko du, eta besterentzea gauzatu ahal izango da.

1638. artikulua

Zuzeneko ugazabak edo, hala denean, enfiteusidunak ez duenean erabili aurreko artikulua aipatutako eroslehentasun-eskubidea, atzera-eskuratze eskubidea erabil dezake, finka besterentze-prezioaren truk eskuratze.

Kasu horretan, atzera-eskuratzea erabili behar da, salmentaren eskritura egiletsi eta hurrengo bederatzi egun baliodunetan. Eskritura ezkututzen bada, epe-muga bera zenbatuko da, eskritura Jabetza Erregistroan inskribatu denetik.

Ezkutatzea gertatu dela uste da, eskritura hori ez denean Erregistroan aurkezten, berori egiletsi eta hurrengo bederatzi egunetan.

Presuntzioa gorabehera, ezkutatzea froga daiteke, legezko beste bideak erabiliz.

1639. artikulua

Besterentzea egin bada 1637. artikuluan agindutako abisurik egin gabe, zuzeneko

el dueño directo, y en su caso el útil, podrán ejercitar la acción de retracto en todo tiempo hasta que transcurra un año, contado desde que la enajenación se inscriba en el Registro de la propiedad.

Artículo 1640

En las ventas judiciales de fincas enfiteúticas, el dueño directo y el útil, en sus casos respectivos, podrán hacer uso del derecho de tanteo dentro del término fijado en los edictos para el remate, pagando el precio que sirva de tipo para la subasta, y del de retracto dentro de los nueve días útiles siguientes al del otorgamiento de la escritura.

En este caso no será necesario el aviso previo que exige el artículo 1637.

Artículo 1641

Cuando sean varias las fincas enajenadas sujetas a un mismo censo, no podrá utilizarse el derecho de tanteo ni el de retracto respecto de unas con exclusión de las otras.

Artículo 1642

Cuando el dominio directo o el útil pertenezca pro indiviso a varias personas, cada una de ellas podrá hacer uso del derecho de retracto con sujeción a las reglas establecidas para el de comuneros, y con preferencia el dueño directo, si se hubiese enajenado parte del dominio útil; o el enfiteuta, si la enajenación hubiese sido del dominio directo.

Artículo 1643

Si el enfiteuta fuere perturbado en su derecho por un tercero que dispute el dominio directo o la validez de la enfiteusis, no podrá reclamar la correspondiente

ugazabak eta, hala denean, jabetza erabilgarria duenak atzera-eskuratzeako akzioa egikari dezakete, urtebete igaro arteko epean, besterentzea Jabetza Erregistroan inskribatu denetik zenbatuta.

1640. artikulua

Enfiteusipeko finkak epaiketa bidez saltzen direnean, zuzeneko ugazabak eta jabetza erabilgarria duenak, kasuan- kasuan, eroslehentasun-eskubidea erabil dezakete, ediktuetan errematerako finkatu den epe-mugaren barruan; horretarako, enkantean oinarri gisa erabili den prezioa eta atzera-eskuratzearena ordaindu behar dituzte, eskritura egiletsi eta hurrengo bederatzi egun baliodunetan.

Kasu horretan, ez da beharrezkoa izango 1637. artikulua agintzen duen aurretiazko abisua.

1641. artikulua

Zentsu berberaren menpeko finkak bat baino gehiago izan eta horiek besterentzen direnean, ezin izango dira erabili eroslehentasun-eskubidea eta atzera-eskuratzeako eskubidea, finka batzuei begira, besteak baztertuz.

1642. artikulua

Zuzeneko jabaria edo jabari erabilgarria indibisoan dagokienean zenbait pertsonari, horietako bakoitzak atzera- eskuratzeako eskubidea erabil dezake, erkideen atzera-eskuratzeari buruz ezarritako erregelen menpe; zuzeneko ugazabak lehenespena izango du, jabari erabilgarriaren zati bat besterentzen bada, eta enfiteusidunak izango du, zuzeneko jabaria besterentzen bada.

1643. artikulua

Enfiteusidunari bere eskubidean nahasmendua eragiten badio hirugarren batek, zuzeneko jabaria edo enfiteusiaren baliozkotasuna eztabaidatzeagatik,

indemnización del dueño directo, si no le cita de evicción conforme a lo prevenido en el artículo 1481.

Artículo 1644

En las enajenaciones a título oneroso de fincas enfitéuticas sólo se pagará laudemio al dueño directo cuando se haya estipulado expresamente en el contrato de enfiteusis.

Si al pactarlo no se hubiera señalado cantidad fija, ésta consistirá en el 2 por 100 del precio de la enajenación.

En las enfiteusis anteriores a la promulgación de este Código, que estén sujetas al pago de laudemio aunque no se haya pactado, seguirá esta prestación en la forma acostumbrada, pero no excederá del 2 por 100 del precio de la enajenación cuando no se haya contratado expresamente otra mayor.

Artículo 1645

La obligación de pagar el laudemio corresponde al adquirente, salvo pacto en contrario.

Artículo 1646

Cuando el enfiteuta hubiese obtenido del dueño directo licencia para la enajenación o le hubiese dado el aviso previo que previene el artículo 1637, no podrá el dueño directo reclamar, en su caso, el pago del laudemio sino dentro del año siguiente al día en que se inscriba la escritura en el Registro de la propiedad. Fuera de dichos casos, esta acción estará sujeta a la prescripción ordinaria.

Artículo 1647

Cada veintinueve años podrá el dueño directo exigir el reconocimiento de su derecho por el que se encuentre en

enfiteusidunak ezin dio zuzeneko ugazabari kalte-ordainik erreklamatu, ugazaba horri ez bazaio ebikzioaren ondoriozko zitaziorik egin 1481. artikuluan agindutakoaren arabera.

1644. artikulua

Enfiteusipeko finkak kostu bidez besterentzen direnean, laudemioa zuzeneko ugazabari ordainduko zaio, enfiteusi- kontratuan beren beregi hala hizpatzen denean bakarrik.

Laudemioa ituntzean ez bada kopuru finkorik adierazi, hori besterentze-prezioaren 100eko 2 izango da.

Kode hau aldarrikatu baino lehenagoko enfiteusiak laudemioa ordaintzeari lotuta badaude, hori itundu ez arren, prestazioari eutsiko zaio ohiko moduan; baina prestazio horrek ez du gaindituko besterentze-prezioaren 100eko 2, ez denean prestazio handiagorik kontratatu beren beregi.

1645. artikulua

Laudemioa ordaintzeko betebeharra eskuratzailerari dagokio, aurkako itunik izan ezean.

1646. artikulua

Enfiteusidunak, zuzeneko ugazabaren eskutik, besterentzearen gaineko baimena lortzen duenean, edo zuzeneko ugazaba horri 1637. artikuluan agindutako aurretiazko abisua egiten dionean, zuzeneko ugazabak ezin izango du erreklamatu, hala denean, laudemioaren ordainketa, eskritura Jabetza Erregistroan inskribatu eta hurrengo urtean baino. Kasu horietatik kanpo, akzio hori preskripzio arruntaren menpe egongo da.

1647. artikulua

Hogeita bederatzi urterik behin, zuzeneko ugazabak bere eskubidearen aitortpena eskatu ahal dio enfiteusipeko finkaren

posesión de la finca enfitéutica.

Los gastos del reconocimiento serán de cuenta del enfitentea, sin que pueda exigírsele ninguna otra prestación por este concepto.

Artículo 1648

Caerá en comiso la finca, y el dueño directo podrá reclamar su devolución:

- 1) Por falta de pago de la pensión durante tres años consecutivos.
- 2) Si el enfitentea no cumple la condición estipulada en el contrato o deteriora gravemente la finca.

Artículo 1649

En el caso primero del artículo anterior, para que el dueño directo pueda pedir el comiso, deberá requerir de pago al enfitentea judicialmente o por medio de Notario; y, si no paga dentro de los treinta días siguientes al requerimiento, quedará expedito el derecho de aquél.

Artículo 1650

Podrá el enfitentea librarse del comiso en todo caso, redimiendo el censo y pagando las pensiones vencidas dentro de los treinta días siguientes al requerimiento de pago o al emplazamiento de la demanda.

Del mismo derecho podrán hacer uso los acreedores del enfitentea hasta los treinta días siguientes al en que el dueño directo haya recobrado el pleno dominio.

Artículo 1651

La redención del censo enfitéutico consistirá en la entrega en metálico; y de una vez, al dueño directo del capital que se

edukitza duenari.

Aitorpenaren gastuak enfiteusidunak ordaindu beharko ditu, eta ezin izango zaio beste prestaziorik eskatu kontzeptu horren ondorioz.

1648. artikulua

Finka konfiskatu egingo da, eta zuzeneko ugazabak finka itzultzeko eskatu ahal izango du:

- 1) Pentsioa ordaintzen ez bada, jarraikako hiru urtetan zehar.
- 2) Enfiteusidunak ez badu betetzen kontratuan hizpaturiko baldintza, edo finkari narriadura larriak eragiten badizkio.

1649. artikulua

Aurreko artikulua lehengo kasuan, zuzeneko ugazabak konfiskazioa eskatu ahal izateko, enfiteusidunari ordainketaren gaineko agindeia egin beharko dio epaile nahiz notarioaren bidez; eta, enfiteusidunak ez badu ordainketarik egiten agindeia egin eta hurrengo hogeita hamar egunetan, zuzeneko ugazabaren eskubideak aurrera egin ahal izango du.

1650. artikulua

Enfiteusiduna konfiskaziotik aske gera daiteke, edozein kasutan, zentsua luditu eta mugaeguneratutako pentsioak ordaintzen baditu, ordainketaren gaineko agindeia edo demandaren gaineko epatzea egin eta hurrengo hogeita hamar egunen barruan.

Eskubide berbera erabili ahal izango dute enfiteusidunaren hartzekodunek ere, zuzeneko ugazabak jabari osoa berreskuratu eta hurrengo hogeita hamar egunetan.

1651. artikulua

Enfiteu-si-zentsua luditzea izango da kapitalaren zuzeneko jabeari ematea, diruz eta dena batera, zentsua eratzean finkaren

hubiese fijado como valor de la finca al tiempo de constituirse el censo, sin que pueda exigirse ninguna otra prestación, a menos que haya sido estipulada.

Artículo 1652

En el caso de comiso, o en el de rescisión por cualquiera causa del contrato de enfiteusis, el dueño directo deberá abonar las mejoras que hayan aumentado el valor de la finca, siempre que este aumento subsista al tiempo de devolverla.

Si ésta tuviese deterioros por culpa o negligencia del enfiteuta, serán compensables con las mejoras, y en lo que no basten quedará el enfiteuta obligado personalmente a su pago, y lo mismo al de las pensiones vencidas y no prescritas.

Artículo 1653

A falta de herederos testamentarios descendientes, ascendientes, cónyuge supérstite y parientes dentro del sexto grado del último enfiteuta, volverá la finca al dueño directo en el estado en que se halle; si no dispuso de ella el enfiteuta en otra forma.

Artículo 1654

Queda suprimido para lo sucesivo el contrato de subenfiteusis.

SECCIÓN II De los foros y otros contratos análogos al de enfiteusis

Artículo 1655

Los foros y cualesquiera otros gravámenes de naturaleza análoga que se establezcan desde la promulgación de este Código, cuando sean por tiempo indefinido, se regirán por las disposiciones establecidas para el censo enfiteutico en la sección que precede.

Si fueren temporales o por tiempo limitado

balio gisa finkatutako kapitala; ezin da beste prestaziorik eskatu, hori hizpatu denean izan ezik.

1652. artikulua

Konfiskazioaren kasuan, edo enfiteusi-kontratua edozein arrazoiren ondorioz hutsaltzen denean, zuzeneko ugazabak ordaindu beharko ditu finkaren balioa gehitu duten hobekuntzak, baldin eta gehikuntza horrek bertan badirau finka itzultzean.

Finkak narriadurak baditu enfiteusidunaren erru edo zabarkeriaren ondorioz, narriadurok hobekuntzekin konpentsa daitezke; eta hobekuntzak ez badira nahiko, enfiteusidunak betebeharrak pertsonala izango du horiek ordaintzeko, baita mugaeguneratuta eta preskribatu gabe dauden pentsioak ordaintzeko ere.

1653. artikulua

Azken enfiteusidunaren testamentuzko jaraunsle diren ondorengo, aurreko, alargun eta seigarren gradurainoko ahaideak izan ezean, finka zuzeneko ugazabari itzuliko zaio dagoen moduan, baldin eta enfiteusidunak ez bazuen finka hori beste modu batera xedatu.

1654. artikulua

Aurrerantzean, azpienfiteusi-kontratua ezabatuta geratzen da.

II. ATALA Foroak eta enfiteusiaren antzeko beste kontratu batzuk

1655. artikulua

Kode hau aldarrikatu eta gero, foroak edo horien antzeko bestelako kargak ezartzen badira eperik gabe, horiek arautuko dituzte aurreko atalean enfiteusi- zentsurako ezarritako xedapenek.

Halakoak aldi baterako edo epe

se estimarán como arrendamientos y se registrarán por las disposiciones relativas a este contrato.

Artículo 1656

El contrato en cuya virtud el dueño del suelo cede su uso para plantar viñas por el tiempo que vivieren las primeras cepas, pagándole el cesionario una renta o pensión anual en frutos o en dinero, se registrará por las reglas siguientes:

- 1) Se tendrá por extinguido a los cincuenta años de la concesión, cuando en ésta no se hubiese fijado expresamente otro plazo.
- 2) También quedará extinguido por muerte de las primeras cepas, o por quedar infructíferas las dos terceras partes de las plantadas.
- 3) El cesionario o colono puede hacer renuevos y mugrones durante el tiempo del contrato.
- 4) No pierde su carácter este contrato por la facultad de hacer otras plantaciones en el terreno concedido, siempre que sea su principal objeto la plantación de viñas.
- 5) El cesionario puede transmitir libremente su derecho a título oneroso o gratuito, pero sin que pueda dividirse el uso de la finca, a no consentirlo expresamente su dueño.
- 6) En las enajenaciones a título oneroso, el cedente y el cesionario tendrán recíprocamente los derechos de tanteo y de retracto, conforme a lo prevenido para la enfiteusis, y con la obligación de darse el aviso previo que se ordena en el artículo 1637.

mugaturako eratzten badira, errentamendutzat joko dira, eta kontratu horri buruzko xedapenak aplikatuko dira.

1656. artikulua

Kontratuaren bidez, lurraren ugazabak horren erabilera lagatzen badu bertan mahastiak landa daitezzen, lehenengo anduiak bizirik dauden artean, eta lagapen-hartzaileak ugazaba horri urteko errenta edo pentsioa ordaintzen badio fruituz zein diruz, hurrengo erregelek arautuko dute kontratu hori:

- 1) Kontratua azkendutzat joko da, hori eman eta berrogeita hamar urte igaro eta gero, emate horretan ez denean beste eperik finkatu beren beregi.
- 2) Kontratua azkenduta geratuko da, orobat, lehenengo anduiak hiltzen badira, edo landatu direnen bi herenak fruiturik gabe geratu badira.
- 3) Lagapen-hartzaile edo kolonoak kimu eta murrioak egin ditzake, kontratua bitartean.
- 4) Kontratuak ez du bere izaera galtzen emandako lurrian bestelako landaketak egiteko ahalmena izateagatik, baldin eta kontratuaren helburu nagusia mahastiak landatzea bada.
- 5) Lagapen-hartzaileak askatasunez eskualda dezake bere eskubidea, kostu bidez nahiz dohainik; baina ezin da finkaren erabilera zatitu, ugazabak ez badu horretarako esanbidezko adostasuna ematen.
- 6) Kostu bidezko besterentzeetan, lagatzaileak eta lagapen-hartzaileak eroslehentasun- eskubidea eta atzera-eskuratze eskubidea izango dituzte elkarrekiko, enfiteusiari buruz ezarritakoarekin bat etorritik, eta 1637. artikuluan agindutako aurretiazko abisua egiteko betebeharrarekin.

7) El colono o cesionario puede dimitir o devolver la finca al cedente cuando le convenga, abonando los deterioros causados por su culpa.

8) El cesionario no tendrá derecho a las mejoras que existan en la finca al tiempo de la extinción del contrato, siempre que sean necesarias o hechas en cumplimiento de lo pactado.

En cuanto a las útiles y voluntarias, tampoco tendrá derecho a su abono, a no haberlas ejecutado con consentimiento por escrito del dueño del terreno, obligándose a abonarlas. En este caso se abonarán dichas mejoras por el valor que tengan al devolver la finca.

9) El cedente podrá hacer uso de la acción de desahucio por cumplimiento del término del contrato.

10) Cuando después de terminado el plazo de los cincuenta años o el fijado expresamente por los interesados, continuare el cesionario en el uso y aprovechamiento de la finca por consentimiento tácito del cedente, no podrá aquél ser desahuciado sin el aviso previo que éste deberá darle con un año de antelación para la conclusión del contrato.

CAPÍTULO III Del censo consignativo

Artículo 1657

Cuando se pacte el pago en frutos de la pensión del censo consignativo, deberá fijarse la especie, cantidad y calidad de los mismos, sin que pueda consistir en una parte alícuota de los que produzca la finca acensuada.

Artículo 1658

La redención del censo consignativo consistirá en la devolución al censalista,

7) Kolono edo lagapen-hartzaileak finka utz edo itzul diezaioke lagatzaileari, berari hori komeni zaionean, bere erruz eragindako narriadurak ordainduz.

8) Lagapen-hartzaileak ez du eskubiderik izango kontratua azkentzean finkan dauden hobekuntzen gainean, baldin eta hobekuntzok nahitaezkoak izan badira edo itundutakoa betetzeko egin badira.

Hobekuntza onuragarri eta borondatezkoei dagokienez, lagapen-hartzaileak ez du horien ordainketa jasotzeko eskubiderik, halakoak ez badira egin lurraren ugazabak idatziz emandako adostasunarekin eta horiek ordaintzeko betebeharra hartuz. Kasu horretan, hobekuntzok ordainduko dira, finka itzultzean horiek duten balioaren arabera.

9) Lagatzaileak lagapen-hartzailea botatzeko akzioa erabil dezake, kontratuaren epe-muga betetzen denean.

10) Berrogeita hamar urteko epea edo interesdunek beren beregi finkaturiko epea amaitu ondoren, lagapenhartzaileak finkaren erabilerari eta aprobetxamenduari eusten dienean lagatzailearen isilbidezko adostasunarekin, ezin izango da lagapen-hartzaile hori finkatik bota, baldin eta ez bazaio aurretiaz botatzearen abisua ematen, kontratua azkendu baino urtebete lehenago.

III. KAPITULUA Zainpeketa-zentsua

1657. artikulua

Zainpeketa-zentsuaren pentsioa fruituz ordaintzea itundu denean, fruitu horien mota, kopuru eta kalitatea finkatu beharko dira; pentsioa ezin da izan zentsupeko finkak ematen dituen fruituen zati alikuota.

1658. artikulua

Zainpeketa-zentsua luditzea izango da zentsu-emaileari itzultzea, dena batera eta

de una vez y en metálico, del capital que hubiese entregado para constituir el censo.

Artículo 1659

Cuando se proceda por acción real contra la finca acensuada para el pago de pensiones, si lo que reste del valor de la misma no fuera suficiente para cubrir el capital del censo y un 25 por 100 más del mismo, podrá el censalista obligar al censatario a que, a su elección, redima el censo o complete la garantía, o abandone el resto de la finca a favor de aquél.

Artículo 1660

También podrá el censalista hacer uso del derecho establecido en el artículo anterior en los demás casos en que el valor de la finca sea insuficiente para cubrir el capital del censo y un 25 por 100 más, si concurre alguna de las circunstancias siguientes:

1) Que haya disminuido el valor de la finca por culpa o negligencia del censatario.

En tal caso éste será además responsable de los daños y perjuicios.

2) Que haya dejado de pagar la pensión por dos años consecutivos.

3) Que el censatario haya sido declarado en quiebra, concurso o insolvencia.

CAPÍTULO IV Del censo reservativo

Artículo 1661

No puede constituirse válidamente el censo reservativo sin que preceda la valoración de la finca por estimación conforme de las partes o por justiprecio de peritos.

Artículo 1662

La redención de este censo se verificará entregando al censatario el censalista, de

diruz, zentsua eratzean berak emandako kapitala.

1659. artikulua

Zentsupeko finkaren aurka akzio erreala erabiltzen denean pentsioak ordain daitezen, finka horren baliotik geratzen dena ez bada nahiko zentsuaren kapitala gehi horren 100eko 25 estaltzeko, zentsu-emaileak zentsu-hartzailea behartu dezake, eta horrek aukeran du, zentsua ludituz, bermea osatu edo finkaren gerakina zentsu-emailearentzat bertan behera uztea.

1660. artikulua

Halaber, aurreko artikulua ezarritako eskubidea erabil dezake zentsu-emaileak gainerako kasuetan, baldin eta horietan finkaren balioa ez bada nahiko zentsuaren kapitala gehi horren 100eko 25 estaltzeko, eta hurrengo inguruabarretatik bat gertatzen bada:

1) Finkaren balioa txikiagotzea, zentsu-hartzailearen erruz edo zabarkeriaz.

Kasu horretan, zentsu-hartzaileak izango du kalte-galeren gaineko erantzukizuna ere bai.

2) Zentsu-hartzaileak pentsioa ordaintzeari uztea bi urte jarraian.

3) Zentsu-hartzailearen gaineko porrota, konkurtsoa edo kaudimengabezia adieraztea.

IV. KAPITULUA Erreserba-zentsua

1661. artikulua

Ezin da erreserba-zentsua baliozkotasunez eratu, aurretiaz ez bada finka balioesten, alderdien arteko adostasunarekin egindako zenbatespenaren bidez edo adituek finkaturiko balioespenaren bidez.

1662. artikulua

Zentsu horren luditzea gauzatuko da, zentsu-hartzaileak zentsu-emaileari, dena

una vez y en metálico, el capital que se hubiese fijado conforme al artículo anterior.

Artículo 1663

La disposición del artículo 1657 es aplicable al censo reservativo.

Artículo 1664

En los casos previstos en los artículos 1659 y 1660, el deudor del censo reservativo sólo podrá ser obligado a redimir el censo, o a que abandone la finca a favor del censalista.

TÍTULO VIII DE LA SOCIEDAD

CAPÍTULO I Disposiciones generales

Artículo 1665

La sociedad es un contrato por el cual dos o más personas se obligan a poner en común dinero, bienes o industria, con ánimo de partir entre sí las ganancias.

Artículo 1666

La sociedad debe tener un objeto lícito, y establecerse en interés común de los socios.

Cuando se declare la disolución de una sociedad ilícita, las ganancias se destinarán a los establecimientos de beneficencia del domicilio de la sociedad, y, en su defecto, a los de la provincia.

Artículo 1667

La sociedad civil se podrá constituir en cualquiera forma, salvo que se aportaren a ella bienes inmuebles o derechos reales, en cuyo caso será necesaria la escritura pública.

Artículo 1668

Es nulo el contrato de sociedad, siempre que se aporten bienes inmuebles, si no se hace un inventario de ellos, firmado por las partes, que deberá unirse a la escritura.

batera eta diruz, aurreko artikulua arabera finkatutako kapitala emanez.

1663. artikulua

Erreserba-zentsuari 1657. artikuluko xedapena aplika dakioke.

1664. artikulua

1659 eta 1600. artikuluek agindutako kasuetan, erreserba-zentsuaren zorduna behartua izan daiteke zentsua luditza edo finka zentsu-emailearentzat bertan behera uztera.

VIII. TITULUA SOZIETATEA

I. KAPITULUA Xedapen orokorrak

1665. artikulua

Sozietatea kontratua da, eta, horren bidez, bi pertsona edo gehiagok euren gain hartzen dute dirua, ondasunak edo industria erkidegoan jartzeko betebeharra, irabaziak euren artean banatzeko asmoarekin.

1666. artikulua

Sozietateak helburu zilegia izan behar du, eta bazkide guztien intereserako ezarri behar da.

Zilegi ez den sozietatearen desegitea adierazten denean, irabaziak destinatuko zaizkie sozietatearen egoitzako ongintza-etxeei, eta, halakorik izan ezean, probintziakoei.

1667. artikulua

Sozietate zibila edozein forma erabiliz era daiteke, sozietate horretara ondasun higiezinak edo eskubide errealak ekartzen direnean izan ezik; kasu horretan, beharrezkoa izango da eskritura publikoa.

1668. artikulua

Sozietate-kontratua deuseza da, baldin eta horretara ondasun higiezinak ekartzen badira, horien inbentarioa egin gabe; inbentarioa alderdiek izenpetu behar dute, eta eskriturari batu behar zaio.

Artículo 1669

No tendrán personalidad jurídica las sociedades cuyos pactos se mantengan secretos entre los socios, y en que cada uno de éstos contrate en su propio nombre con los terceros.

Esta clase de sociedades se registrará por las disposiciones relativas a la comunidad de bienes.

Artículo 1670

Las sociedades civiles, por el objeto a que se consagren, pueden revestir todas las formas reconocidas por el Código de comercio. En tal caso, les serán aplicables sus disposiciones en cuanto no se opongan a las del presente Código.

Artículo 1671

La sociedad es universal o particular.

Artículo 1672

La sociedad universal puede ser de todos los bienes presentes, o de todas las ganancias.

Artículo 1673

La sociedad de todos los bienes presentes es aquella por la cual las partes ponen en común todos los que actualmente les pertenecen, con ánimo de partirlos entre sí, como igualmente todas las ganancias que adquieran con ellos.

Artículo 1674

En la sociedad universal de todos los bienes presentes, pasan a ser propiedad común de los socios los bienes que pertenecían a cada uno, así como todas las ganancias que adquieran con ellos.

Puede también pactarse en ella la comunicación recíproca de cualesquiera otras ganancias; pero no pueden comprenderse los bienes que los socios adquieran posteriormente por herencia,

1669. artikulua

Sozietateek ez dute nortasun juridikorik izango, euren itunak isilpean gordetzen badira bazkideen artean, eta bazkide bakoitzak bere izenean kontratatzen badu hirugarrenekin.

Ondasun-erkidegoei buruzko xedapenek arautuko dituzte sozietate-mota horiek.

1670. artikulua

Sozietate zibilek, euren erdietsi nahi duten helburuarengatik, Merkataritza Kodean araututako forma guztiak izan ditzakete. Kasu horretan, sozietateoi aplika dakizkieke kode horretako xedapenak, horiek ez badira kode honen kontrakoak.

1671. artikulua

Sozietatea unibertsala edo banakakoa izan daiteke.

1672. artikulua

Sozietate unibertsala oraingo ondasun guztien gainekoa izan daiteke, edo irabazi guztien gainekoa.

1673. artikulua

Sozietatea oraingo ondasun guztien gainekoa da, alderdiek erkidegoan jartzen badituzte, bai orain dituzten ondasun guztiak, euren artean horiek banatzeko asmoarekin, bai eta halakoekin eskuratzen diren irabazi guztiak ere.

1674. artikulua

Oraingo ondasun guztien gaineko sozietate unibertsalean, bazkide guztien jabetza erkidearen menpe geratzen dira bakoitzari zegozkion ondasunak eta horiekin eskuratzen diren irabaziak ere bai.

Sozietate horretan, halaber, itun daiteke bestelako irabaziak ere elkarrekin komunikatzea; baina ezin dira sozietatearen baitara bildu bazkideek gero garrenean jarauntsi, legatu edo

legado o donación, aunque si sus frutos.

Artículo 1675

La sociedad universal de ganancias comprende todo lo que adquieran los socios por su industria o trabajo mientras dure la sociedad.

Los bienes muebles o inmuebles que cada socio posee al tiempo de la celebración del contrato, continúan siendo de dominio particular, pasando sólo a la sociedad el usufructo.

Artículo 1676

El contrato de sociedad universal, celebrado sin determinar su especie, sólo constituye la sociedad universal de ganancias.

Artículo 1677

No pueden contraer sociedad universal entre sí las personas a quienes está prohibido otorgarse recíprocamente alguna donación o ventaja.

Artículo 1678

La sociedad particular tiene únicamente por objeto cosas determinadas, su uso, o sus frutos, o una empresa señalada, o el ejercicio de una profesión o arte.

CAPÍTULO II De las obligaciones de los socios

SECCIÓN I De las obligaciones de los socios entre sí

Artículo 1679

La sociedad comienza desde el momento mismo de la celebración del contrato, si no se ha pactado otra cosa.

Artículo 1680

La sociedad dura por el tiempo convenido; a falta de convenio, por el tiempo que dure el negocio que haya servido exclusivamente de objeto a la sociedad, si aquél por su naturaleza tiene una duración

dohaintza bidez eskuratzen dituzten ondasunak, bai, ordea, horien fruituak.

1675. artikulua

Irabazi guztien gaineko sozietateak bere barruan hartzen du sozietatea bitartean bazkideek euren industria edo lanaren ondorioz eskuratzen duten gutzia.

Bazkide bakoitzak, kontratua egitean, ondasun higigarri edo higiezinak baditu, ondasunok jabari pribatukoak izateari eusten diote, eta sozietateari horien gozamina bakarrik eskualdatzen zaio.

1676. artikulua

Sozietate unibertsalaren kontratua egin bada horren mota zehaztu gabe, irabazien gaineko sozietate unibertsala bakarrik erutzen da.

1677. artikulua

Gizabanakoek ezin dute elkarrekin sozietate unibertsalik egin, baldin eta haien zati debekatuta badago elkarri dohaintza edo abantaila bat egitea.

1678. artikulua

Banakako sozietatearen objektu izan daitezke gauza zehatzak, horien erabilera edo euren fruituak, enpresa jakin bat, edo lanbidean nahiz artean aritzea.

II. KAPITULUA Bazkideen betebeharrak

I. ATALA Bazkideek euren artean dituzten betebeharrak

1679. artikulua

Sozietatea hasten da, kontratua egiten den unetik bertatik, besterik itundu ez bada.

1680. artikulua

Sozietateak indarrean dirau hitzarturiko epean zehar; eta, hitzarmenik izan ezean, negozioak dirauen bitartean, negozio hori aldi baterakoa izanik, modu eskusiboan erabili izan bada sozietatearen

limitada; y en cualquier otro caso, por toda la vida de los asociados, salvo la facultad que se les reserva en el artículo 1700 y lo dispuesto en el artículo 1704.

Artículo 1681

Cada uno es deudor a la sociedad de lo que ha prometido aportar a ella.

Queda también sujeto a la evicción en cuanto a las cosas ciertas y determinadas que haya aportado a la sociedad, en los mismos casos y de igual modo que lo está el vendedor respecto al comprador.

Artículo 1682

El socio que se ha obligado a aportar una suma en dinero y no la ha aportado, es de derecho deudor de los intereses desde el día en que debió aportarla, sin perjuicio de indemnizar además los daños que hubiese causado.

Lo mismo tiene lugar respecto, a las sumas que hubiese tomado de la caja social, principiando a contarse los intereses desde el día en que las tomó para su beneficio particular.

Artículo 1683

El socio industrial debe a la sociedad las ganancias que durante ella haya obtenido en el ramo de industria que sirve de objeto a la misma.

Artículo 1684

Cuando un socio autorizado para administrar cobra una cantidad exigible, que le era debida en su propio nombre, de una persona que debía a la sociedad otra cantidad también exigible, debe imputarse lo cobrado en los dos créditos a proporción de su importe, aunque hubiese dado el recibo por cuenta de sólo su haber; pero, si lo hubiere dado por cuenta del haber social, se imputará todo en éste.

helbururako; eta, beste edozein kasutan, bazkideak bizirik dauden bitartean, 1700. artikuluan eurei erreserbatutako ahalmena eta 1704. artikuluan xedatutakoa salbu.

1681. artikulua

Bazkideak sozietateari zor dio bertara ekarriko duela hitzeman duen guztia.

Era berean, bazkidea ebikzioaren menpe geratzen da, sozietatera ekarri dituen gauza jakin eta zehatzei begira, saltzailea erosleri begira ebikzioaren menpe dagoen kasu eta modu berean.

1682. artikulua

Bazkideak bere gain hartu badu diru-kopuru bat ekartzeko betebeharra, eta ez badu hori egin, zuzenbidez korrituak zor izango ditu, diru-kopurua ekarri behar zuen egunetik zenbatuta; eta, kalteak eragin baditu, horien ordaina emateko beharrari kalterik egin gabe.

Gauza bera gertatzen da, bazkideak diru-kopuru batzuk hartu baditu sozietatearen kutxatik; korrituen zenbaketa hasten da, bazkideak kopuru horiek bere onura hutserako hartu izan dituen egunetik.

1683. artikulua

Industria-bazkideak sozietateari zor dizkio sozietatearen helburua industriako zein arlo izan eta arlo horretan sozietatea bitartean lortu dituen irabaziak.

1684. artikulua

Bazkideak administraziorako baimena izan, eta, bere izenean, berari zor zaion eta eskatzeko modukoa den kopurua kobratzen duenean, eskatzeko moduko beste kopuru bat sozietateari zor dion pertsonaren eskutik, kobratutakoa bi kredituoi egotzi behar zaie euren zenbatekoen arabera, nahiz eta bazkideak, bere hartzekoaren kontura bakarrik, jasoagiria eman; alabaina, sozietatearen hartzekoaren kontura eman badu

Lo dispuesto en este artículo se entiende sin perjuicio de que el deudor pueda usar de la facultad que se le concede en el artículo 1172, en el solo caso de que el crédito personal del socio le sea más oneroso.

Artículo 1685

El socio que ha recibido por entero su parte en un crédito social sin que hayan cobrado la suya los demás socios, queda obligado, si el deudor cae después en insolvencia, a traer a la masa social lo que recibió, aunque hubiera dado el recibo por sola su parte.

Artículo 1686

Todo socio debe responder a la sociedad de los daños y perjuicios que esta haya sufrido por culpa del mismo y no puede compensarlos con los beneficios que por su industria le haya proporcionado.

Artículo 1687

El riesgo de las cosas ciertas y determinadas, no fungibles, que se aportan a la sociedad para que sólo sean comunes su uso y sus frutos, es del socio propietario.

Si las cosas aportadas son fungibles, o no pueden guardarse sin que se deterioren, o si se aportaron para ser vendidas, el riesgo es de la sociedad.

También lo será, a falta de pacto especial, el de las cosas aportadas con estimación hecha en el inventario, y en este caso la reclamación se limitará al precio en que fueron tasadas.

Artículo 1688

La sociedad responde a todo socio de las

jasoagiria, kobratutakoa osorik egotziko zaio hartzeko horri.

Artikulu honetan xedatutakoari kalterik egin gabe, zordunak erabil dezake 1172. artikulua ematen dion ahalmena, baldin eta bazkidearen kreditu pertsonalak berari karga handiagoa badakarkio.

1685. artikulua

Bazkideak osorik jaso badu sozietate-kredituan dagokion zatia, eta gainerako bazkideek ez badute eurena jaso, bazkide horrek betebeharra du, geroago zorduna kaudimengabe bilakatzen bada, berak jaso duena sozietatearen masara ekartzeko, nahiz eta bazkide horrek bere zatiari bakarrik dagokion jasoagiria eman.

1686. artikulua

Bazkide orok erantzukizuna du, sozietateari begira, bere erruz sozietate horrek izan dituen kalte-galerengatik, eta ezin ditu kalte-galerok konpentsatu bere industriaren ondorioz sozietateari eman dizkion etekinekin.

1687. artikulua

Gauza jakin eta zehatzak, suntsikor ez direnak, sozietatera ekartzen badira horien erabilera eta fruituak bakarrik izan daitezen erkide, bazkide-jabeak du gauza horien gaineko arriskua.

Ekarritako gauzak suntsikorrak badira, edo ezin badira gorde eurok narriatu gabe, edo halakoak ekartzen badira salduak izan daitezen, arriskua sozietatearena da.

Horrela izango da, orobat, itun berezirik izan ezean, gauzak ekartzen badira inbentarioan egindako zenbatespenaren arabera; kasu horretan, erreklamazioa mugatuko da gauzok izan duten tasazio-preziora.

1688. artikulua

Sozietateak erantzukizuna du, bazkide

cantidades que haya desembolsado por ella y del interés correspondiente; también le responde de las obligaciones que con buena fe haya contraído para los negocios sociales y de los riesgos inseparables de su dirección.

Artículo 1689

Las pérdidas y ganancias se repartirán en conformidad a lo pactado. Si sólo se hubiera pactado la parte de cada uno en las ganancias, será igual su parte en las pérdidas.

A falta de pacto, la parte de cada socio en las ganancias y pérdidas debe ser proporcionada a lo que haya aportado.

El socio que lo fuere sólo de industria tendrá una parte igual a la del que menos haya aportado. Si además de su industria hubiere aportado capital, recibirá también la parte proporcional que por él le corresponda.

Artículo 1690

Si los socios se han convenido en confiar a un tercero la designación de la parte de cada uno en las ganancias y pérdidas, solamente podrá ser impugnada la designación hecha por él cuando evidentemente haya faltado a la equidad. En ningún caso podrá reclamar el socio que haya principiado a ejecutar la decisión del tercero, o que no la haya impugnado en el término de tres meses, contados desde que le fue conocida.

La designación de pérdidas y ganancias no puede ser encomendada a uno de los socios.

Artículo 1691

Es nulo el pacto que excluye a uno o más socios de toda parte en las ganancias o en

orori begira, sozietatearentzat bazkide horrek ordaindu dituen kopuruengatik eta kopuru horiei dagozkien korrituengatik; sozietateak erantzukizuna du, halaber, bazkideak onustez eta sozietate-negozioentzat hartu dituen betebeharrangatik eta sozietatearen zuzendaritzari modu banaezinean dagozkion arriskuengatik.

1689. artikulua

Galerak eta irabaziak itundutakoarekin bat etorri banatuko dira. Irabazien gainean bakoitzak izango duen zatia bakarrik itundu bada, galeren gaineko zatia ere berbera izango da.

Itunik egin ezean, bazkide bakoitzak irabazietan eta galeretan zati bat izango du, berak egindako ekarpenaren arabera.

Bazkidea industria-bazkide bakarrik bada, horren zatia ekarpenik txikiena egin duen bazkidearen bestekoa izango da.

Bazkideak, industriaz gain, kapitala ekartzen badu, kapital horren ondorioz dagozkion proportziozko zatia ere jasoko du.

1690. artikulua

Bazkideek hitzartzen badute hirugarren batek izendatuko duela bakoitzak zein zati izango duen irabazi eta galeretan, hirugarrenak egindako izendapena aurkara daiteke, ageri-agerian ekitatea urratzen denean bakarrik. Edozein kasutan ere, ezin du erreklamaziorik egin hirugarrenaren erabakia betearazten hasi den bazkideak, edo, erabaki horren berri izan eta hiru hilabeteko epe-mugan, berori aurkaratu ez duen bazkideak.

Galera eta irabazien izendapena ezin da bazkide baten ardurapean utzi.

1691. artikulua

Ituna deuseza da, itun horrek bazkide bat edo gehiago baztertzen baditu irabazi

las pérdidas.

Sólo el socio de industria puede ser eximido de toda responsabilidad en las pérdidas.

Artículo 1692

El socio, nombrado administrador en el contrato social, puede ejercer todos los actos administrativos sin embargo de la oposición de sus compañeros, a no ser que proceda de mala fe; y su poder es irrevocable sin causa legítima.

El poder otorgado después del contrato, sin que en éste se hubiera acordado conferirlo, puede revocarse en cualquier tiempo.

Artículo 1693

Cuando dos o más socios han sido encargados de la administración social sin determinarse sus funciones, o sin haberse expresado que no podrán obrar los unos sin el consentimiento de los otros, cada uno puede ejercer todos los actos de administración separadamente; pero cualquiera de ellos puede oponerse a las operaciones del otro antes de que éstas hayan producido efecto legal.

Artículo 1694

En el caso de haberse estipulado que los socios administradores no hayan de funcionar los unos sin el consentimiento de los otros, se necesita el concurso de todos para la validez de los actos, sin que pueda alegarse la ausencia o imposibilidad de alguno de ellos, salvo si hubiere peligro inminente de un daño grave o irreparable para la sociedad.

Artículo 1695

Cuando no se haya estipulado el modo de administrar, se observarán las reglas siguientes:

nahiz galera guztietatik.

Industria-bazkidea bakarrik aska daiteke galeren gaineko erantzukizun orotatik.

1692. artikulua

Sozietate-kontratuan bazkidea izendatzen bada administratzaile, bazkide horrek administratzeko egintza guztiak gauza ditzake, nahiz eta bere kideak horren aurka jarri, salbu eta bazkideak gaitzuzteztz jarduten duenean; bazkidearen ahalordea ezeztazina da bidezko arrazoirik izan ezean.

Ahalordea kontratuaren ostean ematen bada, kontratuan bertan berori emateko erabakirik hartu gabe, ahalorde hori edozein unetan ezeztatu daiteke.

1693. artikulua

Bi bazkide edo gehiagoren esku uzten denean sozietatearen administrazioa, euren eginkizunak zehaztu gabe edo batzuek besteen adostasunik gabe ezin dutela jardun adierazi gabe, bakoitzak bere kantuan gauza ditzake administratze-egintza guztiak; baina euretatik edozein bestearen eragiketen aurka jar daiteke, eragiketok legezko ondoreak sortu baino lehen.

1694. artikulua

Hizpatzen bada bazkide administratzaile batzuek ezin izango dutela besteen adostasunik gabe jardun, guztien esku-hartzea beharrezkoa da egintzak baliozkoak izan daitezen; eta ezin da alegatu euretatik edozeinen absentzia edo ezintasuna, salbu eta kalte larri edo konponezinaren hur-hurreko arriskua dagoenean sozietatearentzat.

1695. artikulua

Hizpakerarik egin ez denean administratzeko moduari buruz, hurrengo erregelak beteko dira:

1) Todos los socios se considerarán apoderados, y lo que cualquiera de ellos hiciera por sí solo, obligará a la sociedad; pero cada uno podrá oponerse a las operaciones de los demás antes que hayan producido efecto legal.

2) Cada socio puede servirse de las cosas que componen el fondo social según costumbre de la tierra, con tal que no lo haga contra el interés de la sociedad, o de tal modo que impida el uso a que tienen derecho sus compañeros.

3) Todo socio puede obligar a los demás a costear con él los gastos necesarios para la conservación de las cosas comunes.

4) Ninguno de los socios puede, sin el consentimiento de los otros, hacer novedad en los bienes inmuebles sociales, aunque alegue que es útil a la sociedad.

Artículo 1696

Cada socio puede por sí solo asociarse un tercero en su parte; pero el asociado no ingresará en la sociedad sin el consentimiento unánime de los socios, aunque aquél sea administrador.

SECCIÓN II *De las obligaciones de los socios para con un tercero*

Artículo 1697

Para que la sociedad quede obligada con un tercero por los actos de uno de los socios, se requiere:

1) Que el socio haya obrado en su carácter de tal, por cuenta de la sociedad.

2) Que tenga poder para obligar a la sociedad en virtud de un mandato expreso o tácito.

1) Bazkide guztiak ahalduz hartuko dira, eta euretako edozeinek bere kautan egiten duena bete beharrekoa izango da sozietatearentzat; baina bakoitza gainerakoen eragiketen aurka jar daiteke, eragiketok legezko ondoreak sortu baino lehen.

2) Bazkide bakoitza balia daiteke sozietate-funtsa osatzen duten gauzez, lurraldeko ohituraren arabera, baldin eta ez badu hori egiten sozietatearen interesaren aurka, edo horrekin ez badu eragozten bere kideek gauzak erabiltzeko duten eskubidea.

3) Bazkide orok gainerakoak behartu ditzake berarekin batera gauza erkideen artapenerako beharrezkoak diren gastuak ordaintzera.

4) Bazkide batek ere ezin du, gainerakoen adostasunik gabe, sozietatearen ondasun higiezinetan berrikuntzarik egin, nahiz eta berrikuntza hori sozietatearentzat onuragarria dela alegatu.

1696. artikulua

Los créditos que no gocen de preferencia con relación a determinados bienes, y los que la gozaren, por la cantidad no

zehatzei begira, hurrengo erregelak beteko dira, euren arteko hurrenkerari dagokionez:

- 1) Lehenespena izango dute, hurrenkeraren arabera, 1923. artikuluko 1 eta 2. zenbakietan aipaturiko kredituek, artikuluko bereko gainerako zenbakietan jasotako kredituen aurretik.
- 2) Hipoteka-kredituak eta errefakzio kredituak, idatzohar edo inskripzioaren bidez jasota egonik, 1923. artikuluko 3. zenbakian aipatzen badira, kreditu horiek eta artikuluko bereko 4. zenbakian jasotakoek euren artean lehenespena izango dute antzintasun-hurrenkeraren arabera, Jabetza Erregistroan kasuan- kasuan egindako inskripzio edo idatzoharrak kontuan izanik.
- 3) Erregistroan idatzohar edo inskripziorik gabeko errefakzio-kredituak 1923. artikuluko 5. zenbakian aipatutakoak badira, lehenespena izango dute, elkarren artean, euren antzintasunaren alderantzizko hurrenkeraren arabera.

1928. artikulua

Ondasun higigarri edo higiezin zehatzei begira lehenespena duten kredituak ordaindu eta gero, zordunaren ondasunetatik geratzen dena metatu egingo zaie zordunak bestelako kredituak ordaintzeko dituen ondasun askeei.

Norbaitzuek, ondasun higigarri edo higiezin zehatzei begira lehenespena izanik, ez badute osorik kobratzen horien zenbatekoa, kobratuko dute, mentsari dagokionez, bakoitzaren izaeraren arabera hurrenkerara eta tokian.

1929. artikulua

Kredituek ez badute lehenespenik ondasun zehatzei begira, edo, lehenespena izan arren, ez badira osorik kobratzen, edo

realizada, o cuando hubiese prescrito el derecho a la preferencia, se satisfarán conforme a las reglas siguientes:

1) Por el orden establecido en el artículo 1924.

2) Los preferentes por fechas, por el orden de éstas, y los que la tuviesen común, a prorrata.

3) Los créditos comunes a que se refiere el artículo 1925, sin consideración a sus fechas.

TÍTULO XVIII DE LA PRESCRIPCIÓN CAPÍTULO I Disposiciones generales

Artículo 1930

Por la prescripción se adquieren, de la manera y con las condiciones determinadas en la ley, el dominio y demás derechos reales.

También se extinguen del propio modo por la prescripción los derechos y las acciones, de cualquier clase que sean.

Artículo 1931

Pueden adquirir bienes o derechos por medio de la prescripción las personas capaces para adquirirlos por los demás modos legítimos.

Artículo 1932

Los derechos y acciones se extinguen por la prescripción en perjuicio de toda clase de personas, incluidas las jurídicas, en los términos prevenidos por la ley.

Queda siempre a salvo a las personas impedidas de administrar sus bienes el derecho para reclamar contra sus representantes legítimos, cuya negligencia hubiese sido causa de la prescripción.

Artículo 1933

lehenespen-eskubidea preskribatu denean, kredituok hurrengo erregelaren arabera ordainduko dira:

1) 1924. artikuluan ezarritako hurrenkeraren arabera.

2) Lehenespeneko kredituak, daten arabera, data horien arteko hurrenkera kontuan izanik, eta, data bereko kredituetan, lainean.

3) 1925. artikulua aipatzen dituen kreditu arruntak, euren data kontuan izan gabe.

XVIII. TITULUA PRESKRIPZIOA

I. KAPITULUA Xedapen orokorrak

1930. artikulua

Preskripzioaren bidez eskuratzen dira, legean zehaztutako modu eta baldintzetan, jabaria eta gainerako eskubide errealak.

Halaber, eta modu berean, preskripzioaren bidez azkentzen dira eskubide eta akzioak, horiek edozein motatakoak izanik.

1931. artikulua

Ondasun edo eskubideak eskura ditzakete, preskripzioaren bidez, zuzenbideko beste moduen bitartez halakoak eskuratzeko gai direnek.

1932. artikulua

Eskubideak eta akzioak preskripzioaren bidez azkentzen dira edozein pertsonaren kalterako, bai eta pertsona juridikoen kalterako ere, legeak ezarritakoaren arabera.

Gizabanakoek ezin badituzte euren ondasunak administratu, eskubidea dute, beren ordezkari legitimoen aurka erreklamazioa egiteko, baldin eta ordezkariaren zabarkeria izan bada preskripzioaren arrazoia; eskubide horri ezin zaio inoiz kalterik egin.

1933. artikulua

La prescripción ganada por un copropietario o comunero aprovecha a los demás.

Artículo 1934

La prescripción produce sus efectos jurídicos a favor y en contra de la herencia antes de haber sido aceptada y durante el tiempo concedido para hacer inventario y para deliberar.

Artículo 1935

Las personas con capacidad para enajenar pueden renunciar la prescripción ganada; pero no el derecho de prescribir para lo sucesivo.

Entiéndese tácitamente renunciada la prescripción cuando la renuncia resulta de actos que hacen suponer el abandono del derecho adquirido.

Artículo 1936

Son susceptibles de prescripción todas las cosas que están en el comercio de los hombres.

Artículo 1937

Los acreedores, y cualquiera otra persona interesada en hacer valer la prescripción, podrán utilizarla a pesar de la renuncia expresa o tácita del deudor o propietario.

Artículo 1938

Las disposiciones del presente título se entienden sin perjuicio de lo que en este Código o en leyes especiales se establezca respecto a determinados casos de prescripción.

Artículo 1939

La prescripción comenzada antes de la publicación de este código se regirá por las leyes anteriores al mismo; pero si desde que fuere puesto en observancia transcurriese todo el tiempo en él exigido

Jabekide edo erkide batek preskripzioa irabazi badu, preskripzio hori probetxugarria da besteentzat ere bai.

1934. artikulua

Preskripzioak bere ondore juridikoak sortzen ditu jarauntsiaren alde zein aurka, jarauntsi hori onartu aurretik, eta inbentarioa eta hausnarketa egiteko epean zehar ere bai.

1935. artikulua

Besterentze-gaitasuna dutenek uko egin diezaiokete irabazitako preskripzioari; baina ez aurrerantzean preskribatzeko eskubideari.

Preskripzioari isilbidez uko egiten zaiola ulertzen da, uko-egitea egintza batzuek eratorri dutenean, egintzotatik atera badaiteke eskuratutako eskubidea bertan behera utzi dela.

1936. artikulua

Preskribatzeko modukoak dira gizakien arteko merkataritzan dauden gauza guztiak.

1937. artikulua

Hartzekodunek eta preskripzioaz baliarazi nahi diren pertsonetatik edozeinek ere hori erabil dezakete, nahiz eta zordunak edo jabeak preskripzioari esanbidez edo isilbidez uko egin.

1938. artikulua

Titulu honetako xedapenak ulertzen dira, kode honetan edo lege berezietan preskripzio-kasu zehatzen inguruan ezarritakoari kalterik egin gabe.

1939. artikulua

Kode hau argitaratu aurretik hasitako preskripzioa arautuko dute kodearen aurreko legeek; baina, kodearen indarraldia hasi denetik, igaro bada kodean bertan preskripzioarentzat ezarritako epe osoa,

para la prescripción, surtirá ésta su efecto, aunque por dichas leyes anteriores se requiriese mayor lapso de tiempo.

CAPÍTULO II De la prescripción del dominio y demás derechos reales

Artículo 1940

Para la prescripción ordinaria del dominio y de más derechos reales se necesita poseer las cosas con buena fe y justo título por el tiempo determinado en la ley.

Artículo 1941

La posesión ha de ser en concepto de dueño, pública, pacífica y no interrumpida.

Artículo 1942

No aprovechan para la posesión los actos de carácter posesorio, ejecutados en virtud de licencia o por mera tolerancia del dueño.

Artículo 1943

La posesión se interrumpe, para los efectos de la prescripción, natural o civilmente.

Artículo 1944

Se interrumpe naturalmente la posesión cuando por cualquier causa se cesa en ella por más de un año.

Artículo 1945

La interrupción civil se produce por la citación judicial hecha al poseedor, aunque sea por mandato de Juez incompetente.

Artículo 1946

Se considerará no hecha y dejará de producir interrupción la citación judicial:

- 1) Si fuere nula por falta de solemnidades legales.
- 2) Si el actor desistiere de la demanda o

preskripzio horrek bere ondore guztiak sortuko ditu, nahiz eta aurreko legeen arabera epea luzeagoa izan.

II. KAPITULUA Jabariaren eta gainerako eskubide errealeen preskripzioa

1940. artikulua

Jabariaren eta gainerako eskubide errealeen preskripzio arrunterako, beharrezkoa da gauzen edukitza onustez eta titulu zuzenarekin izatea, legean zehazturiko epean zehar.

1941. artikulua

Edukitza izan behar da ugazaba moduan, jendaurrean, modu baketsuan eta geldiarazpenik gabe.

1942. artikulua

Edukitzaren ondorioetarako, edukitza-egintzak ez dira probetxugarriak, ugazabaren baimenarekin edo horren jasamen hutsarekin burutzen badira.

1943. artikulua

Edukitzaren geldiarazpena, preskripzioaren ondoreetarako, naturala edo zibila izan daiteke.

1944. artikulua

Edukitzaren geldiarazpen naturala gertatzen da, urtebete baino gehiago edukitzeari utzi zaionean.

1945. artikulua

Geldiarazpen zibila gertatzen da epaileak edukitzaileari egindako zitazioaren ondorioz, nahiz eta hori epaile eskugabearen aginduz gertatu.

1946. artikulua

Zitazio judiziala egingabekotzat hartuko da, eta zitazio horrek ez du geldiarazpenik sortuko:

- 1) Zitazioa deuseza bada, legezko solemnitateak ez izateagatik.
- 2) Auzi-jartzaileak demandari amore

dejare caducar la instancia.

3) Si el poseedor fuere absuelto de la demanda.

Artículo 1947

También se produce interrupción civil por el acto de conciliación, siempre que dentro de dos meses de celebrado se presente ante el Juez la demanda sobre posesión o dominio de la cosa cuestionada.

Artículo 1948

Cualquier reconocimiento expreso o tácito que el poseedor hiciera del derecho del dueño, interrumpe asimismo la posesión.

Artículo 1949

Contra un título inscrito en el Registro de la propiedad no tendrá lugar la prescripción ordinaria del dominio o derechos reales en perjuicio de tercero, sino en virtud de otro título igualmente inscrito, debiendo empezar a correr el tiempo desde la inscripción del segundo.

Artículo 1950

La buena fe del poseedor consiste en la creencia de que la persona de quien recibió la cosa era dueño de ella, y podía transmitir su dominio.

Artículo 1951

Las condiciones de la buena fe exigidas para la posesión en los artículos 433, 434, 435 y 436 de este Código, son igualmente necesarias para la determinación de aquel requisito en la prescripción del dominio y demás derechos reales.

Artículo 1952

Entiéndese por justo título el que legalmente baste para transferir el dominio o derecho real de cuya prescripción se trate.

ematen badio, edo auzialdia iraungi dadin uzten badu.

3) Edukitzailea demandatik absolbitzen bada.

1947. artikulua

Geldiarazpen zibila gertatzen da, halaber, adiskidetzeko ekitaldiaren ondorioz, baldin eta, ekitaldi hori egin eta bi hilabeteko epean, epaileari demanda aurkezten bazaio auzipeko gauzaren edukitza edo jabariari buruz.

1948. artikulua

Era berean, edukitzaileak esanbidez edo isilbidez ugazabaren eskubidea aitortzen badu, edukitza geldiarazi egiten da.

1949. artikulua

Jabetza Erregistroan inskribaturiko tituluaren aurka, ez da gertatuko jabariaren edo eskubide errearen preskripzio arrunta, hirugarrenaren kalterako, salbu eta hori gertatzen denean inskribatuta dagoen beste titulu baten ondorioz; kasu horretan, epearen zenbaketa hasten da bigarrena inskribatzen denetik.

1950. artikulua

Edukitzailearen onustea da horrek uste izatea gauza zein pertsonaren eskutik jaso eta pertsona hori gauzaren ugazaba zela eta horren jabaria eskualda zezakeela.

1951. artikulua

Kode honen 433, 434, 435 eta 436. artikuluetan edukitzari buruz onuste-baldintzak ezarri, eta baldintza horiek beharrezkoak dira, orobat, jabariaren eta gainerako eskubide errearen preskripzioan, harako betekizuna zehazteko.

1952. artikulua

Titulua zuzena dela ulertzen da, legearen arabera nahiko bada preskripziopeko jabari edo eskubide erreala eskualdatzeko.

Artículo 1953

El título para la prescripción ha de ser verdadero y válido.

Artículo 1954

El justo título debe probarse; no se presume nunca.

Artículo 1955

El dominio de los bienes muebles se prescribe por la posesión no interrumpida de tres años con buena fe.

También se prescribe el dominio de las cosas muebles por la posesión no interrumpida de seis años, sin necesidad de ninguna otra condición.

En cuanto al derecho del dueño para reivindicar la cosa mueble perdida o de que hubiese sido privado ilegalmente, así como respecto a las adquiridas en venta pública, en Bolsa, feria o mercado, o de comerciante legalmente establecido y dedicado habitualmente al tráfico de objetos análogos, se estará a lo dispuesto en el artículo 464 de este Código.

Artículo 1956

Las cosas muebles hurtadas o robadas no podrán ser prescritas por los que las hurtaron o robaron, ni por los cómplices o encubridores, a no haber prescrito el delito o falta, o su pena, y la acción para exigir la responsabilidad civil, nacida del delito o falta.

Artículo 1957

El dominio y demás derechos reales sobre bienes inmuebles se prescriben por la posesión durante diez años entre presentes y veinte entre ausentes, con buena fe y justo título.

1953. artikulua

Titulua, preskripzioaren ondoretarako, benetako eta baliozkoa izan behar da.

1954. artikulua

Titulu zuzena frogatu behar da; ez dago inoiz horren inguruko presuntziorik.

1955. artikulua

Ondasun higigarrien gaineko jabariaren preskripzioa gertatzen da, edukitza geldiarazpenik gabe hiru urtean izanez gero, onustez.

Ondasun higigarrien gaineko jabariaren preskripzioa gertatzen da, berebat, edukitza geldiarazpenik gabe sei urtean izanez gero, bestelako baldintzarik gabe.

Ugazabak gauza higigarria galtzen badu edo hori legearen aurka kentzen bazaio, gauza erreibindikatzeko eskubidea du, eta hori berori gertatzen da, jendaurreko salmentan, burtsan, azokan nahiz merkatuan eskuratutako gauza higigarriekin, edo legez behar den moduan jardun eta antzeko objektuak salerosten dituen merkatariaren eskutik eskuraturikoekin ere bai; horiei dagokienez, kode honen 464. artikuluan xedatutakoa beteko da.

1956. artikulua

Gauza higigarriak ebatsi edo lapurtzen dituztenek, eta sopikunek eta estaltzaileek, ezin dituzte horiek preskribatu, baldin eta ez bada gertatu delitu edo faltaren preskripzioa, edo haren zigorrarena, eta delitu edo falta horretatik sortutako erantzukizun zibila eskatzeko akzioarena.

1957. artikulua

Ondasun higiezinaren gaineko jabariaren eta gainerako eskubide errealeen preskripzioa gertatzen da, edukitza hamar urtean izanez gero, bertan daudenen artean, eta hogeitun urtean, absenteen artean, onustez eta titulu zuzenarekin.

Artículo 1958

Para los efectos de la prescripción se considera ausente al que reside en el extranjero o en Ultramar.

Si parte del tiempo estuvo presente y parte ausente, cada dos años de ausencia se reputarán como uno para completar los diez de presente.

La ausencia que no fuere de un año entero y continuo, no se tomará en cuenta para el cómputo.

Artículo 1959

Se prescriben también el dominio y demás derechos reales sobre los bienes inmuebles por su posesión no interrumpida durante treinta años, sin necesidad de título ni de buena fe, y sin distinción entre presentes y ausentes, salvo la excepción determinada en el artículo 539.

Artículo 1960

En la computación del tiempo necesario para la prescripción se observarán las reglas siguientes:

- 1) El poseedor actual puede completar el tiempo necesario para la prescripción, uniendo al suyo el de su causante.
- 2) Se presume que el poseedor actual, que lo hubiera sido en época anterior, ha continuado siéndolo durante el tiempo intermedio, salvo prueba en contrario.
- 3) El día en que comienza a contarse el tiempo se tiene por entero; pero el último debe cumplirse en su totalidad.

CAPÍTULO III De la prescripción de las acciones

Artículo 1961

Las acciones prescriben por el mero lapso del tiempo fijado por la ley.

1958. artikulua

Preskripzioaren ondoretarako, absentetzat hartzen da atzerrian edo itsasoz bestaldean bizilekua duena.

Epearen zati batean, bertan, eta beste zatian absente egonez gero, absentziako bi urte urtebetetzat hartuko dira, bertan daudenen arteko hamarrak bete arte.

Absentzia ez bada urtebetekoa jarraian, ez da kontuan hartuko zenbaketarako.

1959. artikulua

Era berean, ondasun higiezinaren gaineko jabariaren eta gainerako eskubide errealeen preskripzioa gertatzen da, horien edukitza geldiarazpenik gabe hogeita hamar urtean izanez gero; ez da titulurik ez onusterik behar, eta ez da bereizketarik egiten bertan daudenen eta absenteen artean, 539. artikuluan agindutako salbuespenari kalterik egin gabe.

1960. artikulua

Preskripziorako behar den epea zenbatzeko, hurrengo erregelak beteko dira:

- 1) Oraingo edukitzaileak osa dezake preskripziorako behar den epea, bere epea eta beraren kausatzailearena batuz.
- 2) Oraingo edukitzailea iraganean edukitzaile izan bada, uste da bitarteko denboran ere hala izan dela, aurkako frogarik izan ezean.
- 3) Epearen zenbaketa zein egunetan hasi eta egun hori osoa dela ulertzen da; baina azken eguna oso-osorik bete behar da.

III. KAPITULUA Akzioen preskripzioa

1961. artikulua

Akzioen preskripzioa gertatzen da, legeak finkaturiko epea igarotze hutsaren ondorioz.

Artículo 1962

Las acciones reales sobre bienes muebles prescriben a los seis años de perdida la posesión, salvo que el poseedor haya ganado por menos término el dominio, conforme al artículo 1955, y excepto los casos de extravío y venta pública, y los de hurto o robo, en que se estará a lo dispuesto en el párrafo tercero del mismo artículo citado.

Artículo 1963

Las acciones reales sobre bienes inmuebles prescriben a los treinta años.

Entiéndese esta disposición sin perjuicio de lo establecido para la adquisición del dominio o derechos reales por prescripción.

Artículo 1964

La acción hipotecaria prescribe a los veinte años, y las personales que no tengan señalado término especial de prescripción a los quince.

Artículo 1965

No prescribe entre coherederos, condueños o propietarios de fincas colindantes la acción para pedir la partición de la herencia, la división de la cosa común o el deslinde de las propiedades contiguas.

Artículo 1966

Por el transcurso de cinco años prescriben las acciones para exigir el cumplimiento de las obligaciones siguientes:

- 1) La de pagar pensiones alimenticias.
- 2) La de satisfacer el precio de los arriendos, sean éstos de fincas rústicas o de fincas urbanas.

1962. artikulua

Ondasun higigarrien gaineko akzio errealean preskripzioa gertatzen da, edukitza galdu denetik sei urte igaro ondoren, salbu eta edukitzaileak epe laburragoan jabaria irabazten duenean 1955. artikuluekin bat etorriz; galeraren eta jendaurreko salmentaren kasuetan, eta ebasketa- edo lapurreta-kasuetan ere, artikulua berberaren hirugarren lerrokadan xedatutakoa beteko da.

1963. artikulua

Ondasun higiezinen gaineko akzio errealean preskripzioa gertatzen da, hogeita hamar urte igaro eta gero.

Xedapen hori ulertzen da, jabaria edo eskubide errealak preskripzioaren bidez eskuratzeko ezarri denari kalterik egin gabe.

1964. artikulua

Hipoteka-akzioaren preskripzioa gertatzen da, hogeitaz urte igaro ondoren; eta preskripziorako epe-muga berezirik ez duten akzio pertsonalena, hamabost urte igaro eta gero.

1965. artikulua

Jaraunskideen artean, ugazabakideen artean edo finka mugakideetako jabeen artean, ez da preskribatzen jarauntsiaren banaketa, gauza erkidearen zatiketa edo lur mugakideen mugaketa eskatzeko akzioa.

1966. artikulua

Bost urte igaro ondoren preskribatzen dira hurrengo betebeharren betetzea eskatzeko akzioak:

- 1) Mantenu-pentsioak ordaintzeko betebeharrarena.
- 2) Errentamenduen prezioa ordaintzeko betebeharrarena, errentamenduok hiri-finketakoak izan zein landa-finketakoak

3) La de cualesquiera otros pagos que deban hacerse por años o en plazos más breves.

Artículo 1967

Por el transcurso de tres años prescriben las acciones para el cumplimiento de las obligaciones siguientes:

1) La de pagar a los Jueces, Abogados, Registradores, Notarios, Escribanos, peritos, agentes y curiales sus honorarios y derechos, y los gastos y desembolsos que hubiesen realizado en el desempeño de sus cargos u oficios en los asuntos a que las obligaciones se refieran.

2) La de satisfacer a los Farmacéuticos las medicinas que suministraron; a los Profesores y Maestros sus honorarios y estipendios por la enseñanza que dieron, o por el ejercicio de su profesión, arte u oficio.

3) La de pagar a los menestrales, criados y jornaleros el importe de sus servicios, y el de los suministros o desembolsos que hubiesen hecho concernientes a los mismos.

4) La de abonar a los posaderos la comida y habitación, y a los mercaderes el precio de los géneros vendidos a

otros que no lo sean, o que siéndolo se dediquen a distinto tráfico.

El tiempo para la prescripción de las acciones a que se refieren los tres párrafos anteriores se contará desde que dejaron de prestarse los respectivos servicios.

Artículo 1968

izan.

3) Beste edozein ordainketarena, ordainketa hori egin behar bada urteka edo epe laburragoetan.

1967. artikulua

Hiru arte igaro ondoren preskribatzen dira hurrengo betebeharren betetzea eskatzeko akzioak:

1) Epaile, abokatu, erregistratzaile, notario, eskribau, aditu, agente eta kuriakoei, euren zerbitzu-sariak eta eskubideak, eta euren kargu nahiz ogibideetan aritzean egindako gastu eta ordainketak ordaintzeko betebeharrarena, betiere betebeharrak horrek ukitzen dituen gaietan.

2) Farmazialariei euren emandako sendagaiak ordaintzeko betebeharrarena; eta irakasle eta maisu-maistrei, euren emandako irakaskuntzaren ondoriozko zerbitzu-sari eta behar-sariak, edo euren lanbide, erti nahiz ogibidean aritzearen ondoriozkoak ordaintzeko betebeharrarena.

3) Eskulangileei, morroiei eta jornaleko langileei euren zerbitzuak ordaintzeko betebeharrarena; eta zerbitzu horien ondorioz egindako hornidura edo ordainketak emateko betebeharrarena ere bai.

4) Ostalariei janaria eta gela ordaintzeko betebeharrarena; eta merkatari

erositako gaien prezioa emateko betebeharrarena ere bai, halakoak saldu bazaizkie merkatari ez direnei, edo, merkatari izanik, beste trafikoko batean dihardutenei.

Aurreko hiru lerroek akzioak aipatu, eta akzio horien preskripzio-epea zenbatuko da, kasuan kasuko zerbitzuak egiteari utzi zitzaionetik.

1968. artikulua

Prescriben por el transcurso de un año:

- 1) La acción para recobrar o retener la posesión.
- 2) La acción para exigir la responsabilidad civil por injuria o calumnia, y por las obligaciones derivadas de la culpa o negligencia de que se trata en el artículo 1902, desde que lo supo el agraviado.

Artículo 1969

El tiempo para la prescripción de toda clase de acciones, cuando no haya disposición especial que otra cosa determine, se contará desde el día en que pudieron ejercitarse.

Artículo 1970

El tiempo para la prescripción de las acciones que tienen por objeto reclamar el cumplimiento de obligaciones de capital con interés o renta, corre desde el último pago de la renta o del interés.

Lo mismo se entiende respecto al capital del censo consignativo.

En los censos enfiteútico y reservativo se cuenta asimismo el tiempo de la prescripción desde el último pago de la pensión o renta.

Artículo 1971

El tiempo de la prescripción de las acciones para exigir el cumplimiento de obligaciones declaradas por sentencia, comienza desde que la sentencia quedó firme.

Artículo 1972

El término de la prescripción de las acciones para exigir rendición de cuentas corre desde el día en que cesaron en sus cargos los que debían rendirlas.

El correspondiente a la acción por el resultado de las cuentas, desde la fecha en que fue éste reconocido por conformidad

Urtebete igaro eta gero preskribatzen dira:

- 1) Edukitza berreskuratu edo atxikitzeko akzioa.
- 2) Erantzukizun zibila eskatzeko akzioa, erantzukizun hori sortzen bada irain edo kalumniaren ondorioz, eta 1902. artikuluan erru edo zabarkeria arautu eta horrek erartortzen dituen betebeharren ondorioz, betiere laidotuak hori jakin duenetik.

1969. artikulua

Mota guztietako akzioen preskripzio- epea zenbatuko da, bestelakoa ezartzen duen xedapen berezirik izan ezean, akzio horiek egikaritu ahal izan diren egunetik.

1970. artikulua

Akzioen helburua bada betebeharren betetzea erreklamatzeari, eta betebeharrak horiek korritudun nahiz errentadun kapitalaren gainekoak badira, akzioen preskripzio-epea hasten da errenta edo korrituaren azken ordainketatik.

Gauza bera ulertzen da, zainpeketa-zentsuaren kapitalari dagokionez.

Enfiteusi- eta erreserba-zentsuetan, preskripzio-epea zenbatzen da, halaber, pensio nahiz errentaren azken ordainketatik.

1971. artikulua

Epai bidez adierazitako betebeharren betetzea eskatzeko akzioen preskripzio-epea hasten da epaia irmo bihurtu denetik.

1972. artikulua

Kontuen ematea eskatzeko akzioen preskripzio epe-muga hasten da kontuak eman behar zituztenek euren karguak utzi zituzten egunetik.

Kontu-arrazoien emaitza eskatzeko akzioari dagokionez, epe-muga hasten da, alderdi interesdunek, elkarren arteko

de las partes interesadas.

Artículo 1973

La prescripción de las acciones se interrumpe por su ejercicio ante los Tribunales, por reclamación extrajudicial del acreedor y por cualquier acto de reconocimiento de la deuda por el deudor.

Artículo 1974

La interrupción de la prescripción de acciones en las obligaciones solidarias aprovecha o perjudica por igual a todos los acreedores y deudores. Esta disposición rige igualmente respecto a

los herederos del deudor en toda clase de obligaciones. En las obligaciones mancomunadas, cuando el acreedor no reclame de uno de los deudores más que la parte que le corresponda, no se interrumpe por ello la prescripción respecto a los otros codeudores.

Artículo 1975

La interrupción de la prescripción contra el deudor principal por reclamación judicial de la deuda, surte efecto también contra su fiador; pero no perjudicará a éste la que se produzca por reclamaciones extrajudiciales del acreedor o reconocimientos privados del deudor.

DISPOSICIÓN FINAL

Artículo 1976

Quedan derogados todos los cuerpos legales, usos y costumbres que constituyen el Derecho civil común en todas las materias que son objeto de este Código, y quedarán sin fuerza y vigor, así en su concepto de leyes directamente obligatorias, como en el de derecho supletorio. Esta disposición no es aplicable

adostasunez, emaitza hori aitortu duten datatik.

1973. artikulua

Akzioen preskripzioa geldiarazi egiten da, akzio horiek auzitegietan egikaritzearen ondorioz, hartzekodunak epaiketatik kanpoko erreklamazioa egitearen ondorioz eta zordunak zorra aitortzeko burututako edozein egintzaren ondorioz.

1974. artikulua

Akzioen preskripzioa geldiarazten bada betebeharrak solidarioetan, geldiarazpen horrek onura eta kalte berberak dakarzik hartzekodun eta zordun guztiei. Xedapen hori zordunaren jaraunsleei

begira ere aplikatzen da edozein motatako betebeharrak. Betebeharrak mankomunatueta, hartzekodunak ez dionean zordun bati erreklamatzeko horri dagokion zatia baino gehiago, horren ondorioz ez da preskripzioa geldiarazten gainerako zordunkideei dagokienez.

1975. artikulua

Preskripzioa geldiarazten bada zordun nagusiaren aurka, zorra epaiketatik kanpo erreklamatzeko ondorioz, geldiarazpen horrek ondorea sortzen du fidatzailearen aurka ere bai; baina geldiarazpenak ez dio fidatzaileari kalterik egingo, hori gertatzen bada epaiketatik kanpoko erreklamazioen ondorioz edo zordunak modu pribatuan egindako aitortpenen ondorioz.

AZKEN XEDAPENA

1976. artikulua

Indarrak gabe geratzen dira legetestu, usadio eta ohiturak, horiek zuzenbide zibil erkidea osatzen badute kode honek arautzen dituen gai guztietan; eta indarrak gabe geratuko dira, zuzenean bete beharreko lege-izaera duten heinean, eta zuzenbide osagarri diren neurrian ere bai. Xedapen hori ezin zaie aplikatu kode

a las leyes que en este Código se declaran subsistentes.

DISPOSICIONES TRANSITORIAS

Las variaciones introducidas por este Código, que perjudiquen derechos adquiridos según la legislación civil anterior, no tendrán efecto retroactivo.

Para aplicar la legislación que corresponda, en los casos que no están expresamente determinados en el Código se observarán las reglas siguientes:

Primera

Se regirán por la legislación anterior al Código los derechos nacidos, según ella, de hechos realizados bajo su régimen, aunque el Código los regule de otro modo o no los reconozca. Pero si el derecho apareciere declarado por primera vez en el Código, tendrá efecto desde luego, aunque el hecho que lo origine se verificara bajo la legislación anterior, siempre que no perjudique a otro derecho adquirido, de igual origen.

Segunda

Los actos y contratos celebrados bajo el régimen de la legislación anterior, y que sean válidos con arreglo a ella, surtirán todos sus efectos según la misma, con las limitaciones establecidas en estas reglas. En su consecuencia, serán válidos los testamentos aunque sean mancomunados, los poderes para testar y las memorias testamentarias que se hubiesen otorgado o escrito antes de regir el Código, y producirán su efecto las cláusulas ad cautelam, los fideicomisos para aplicar los bienes según instrucciones reservadas del testador, y cualesquiera otros actos permitidos por la legislación precedente; pero la revocación o modificación de estos

honen arabera indarrean dirauten legeei.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Kode honek aldaketak egin eta aldaketa horiek kalte egiten badiete aurreko legeria zibilaren arabera eskuratutako es kubideei, aldaketok ez dute atzeraeraginezko ondorerik izango.

Kodean beren beregi zehazturik ez dauden kasuetan legeria egokia aplikatzeko, hurrengo erregelak beteko dira:

Lehenengoa

Kodearen aurreko legeriak arautuko ditu legeria horren araubidepeko egintzek eratorri eta haren arabera sortutako eskubideak, nahiz eta kodeak eskubide horiek beste modu batera arautu, edo halakorik aitortu ez. Dena den, eskubidea lehenengoz adierazten bada kodean, eskubide horrek ondorea izango du behingoan, nahiz eta berori eratorri duen egintza aurreko legeriaren menpe gauzatu, baldin eta eskubide horrek ez badio kalterik egiten jatorri beretik eskuratutako beste eskubide bati.

Bigarrena

Aurreko legeriaren araubidepean egintza eta kontratuak egin eta baliozkoak badira legeria horren arabera, euren ondore guztiak sortuko dituzte legeria horren arabera, erregela hauetan ezarritako mugapenekin. Ondorenez, baliozkoak izango dira testamentuak, mankomunatuak izan arren, eta kode honen indarraldia hasi baino lehen egiletsi edo idatzitako testamentu-ahalordeak edo testamentu-oroitidazkiak ere bai; ondore guztiak sortuko dituzte ad cautelam klausulek, testamentugilearen isilpeko jarraibideen arabera ondasunak aplikatzeko fideikomisoek eta aurreko legerian onarturiko bestelako egintzek. Hala ere,

actos o de cualquiera de las cláusulas contenidas en ellos no podrá verificarse, después de regir el Código, sino testando con arreglo al mismo.

Tercera

Las disposiciones del Código que sancionan con penalidad civil o privación de derechos actos u omisiones que carecían de sanción en las leyes anteriores, no son aplicables al que, cuando éstas se hallaban vigentes, hubiese incurrido en la omisión o ejecutado el acto prohibido por el Código.

Cuando la falta esté también penada por la legislación anterior, se aplicará la disposición más benigna.

Cuarta

Las acciones y los derechos nacidos y no ejercitados antes de regir el Código subsistirán con la extensión y en los términos que les reconociera la legislación precedente; pero sujetándose, en cuanto a su ejercicio, duración y procedimientos para hacerlos valer, a lo dispuesto en el Código. Si el ejercicio del derecho o de la acción se hallara pendiente de procedimientos oficiales empezados bajo la legislación anterior, y éstos fuesen diferentes de los establecidos por el Código, podrán optar los interesados por unos o por otros.

Quinta

Quedan emancipados y fuera de la patria potestad los hijos que hubiesen cumplido veintitrés años al empezar a regir el Código; pero si continuaren viviendo en la casa y a expensas de sus padres, podrán éstos conservar el usufructo, la administración y los demás derechos que estén disfrutando sobre los bienes de su

egintza horiek edo horietan jasotako klausulak ezin izango dira ezeztatu edo aldarazi, kodea indarrean jarri eta gero, testamentua kodearen arabera egiten ez bada.

Hirugarrena

Kodearen xedapenek zigor zibilarekin edo eskubide-gabetzearekin zehatzen badituzte aurreko legeetan zehapenik ez zuten egite eta ez-egiteak, xedapenok ezin zaizkio aplikatu aurreko legeak indarrean zeuden bitartean kodeak debekatutako ez-egitea edo egitea gauzatu duenari.

Aurreko legeriak ere falta zigortzen duenean, xedapenik onuragarriena aplikatuko da.

Laugarrena

Kodearen indarraldia hasi baino lehen sorturiko akzio eta eskubideak egikaritu gabe badaude, horiek indarrean iraungo dute, aurreko legeriak halakoei aitortzen zizkien norainoko eta mugekin; baina, akzio eta eskubide horien egikaritzari, iraupenari eta horiek baliarazteko prozedurei dagokienez, akzio eta eskubideok kodean xedatutakoaren menpe geratzen dira. Eskubidea edo akzioa egikaritzeko, aurreko legeriaren menpe prozedurak hasi badira eta bukatzeke badaude, eta prozedura horiek eta kodean ezarritakoak desberdinak badira, interesdunek batzuk zein besteak aukeratu ahal dituzte.

Bosgarrena

Seme-alabak emantzipatuta eta guraso-ahalpetik kanpo geratzen dira, hogeita hiru urte bete badituzte kode honen indarraldia hastean; baina seme-alabok gurasoen etxean eta horien kontura bizi badira, gurasoek euts diezaiekete seme-alaben ondareen gain dituzten gozamen, administrazio eta gainerako eskubideei,

peculio, hasta el tiempo en que los hijos deberían salir de la patria potestad según la legislación anterior.

Sexta

El padre que voluntariamente hubiese emancipado a un hijo, reservándose algún derecho sobre sus bienes adventicios, podrá continuar disfrutándolo hasta el tiempo en que el hijo debería salir de la patria potestad con arreglo a la legislación anterior.

Séptima

Los padres, las madres y los abuelos que se hallen ejerciendo la curatela de sus descendientes, no podrán retirar las fianzas que tengan constituidas, ni ser obligados a constituir las si no las hubieran prestado, ni a completarlas si resultaren insuficientes las prestadas.

Octava

Los tutores y curadores nombrados bajo el régimen de la legislación anterior y con sujeción a ella, conservarán su cargo, pero sometiéndose, en cuanto a su ejercicio, a las disposiciones del Código. Esta regla es también aplicable a los poseedores y a los administradores interinos de bienes ajenos, en los casos en que la ley los establece.

Novena

Las tutelas y curatelas, cuya constitución definitiva esté pendiente de la resolución de los Tribunales al empezar a regir el Código, se constituirán con arreglo a la legislación anterior, sin perjuicio de lo dispuesto en la regla que precede.

Décima

Los Jueces y los Fiscales municipales no procederán de oficio al nombramiento de los consejos de familia sino respecto a los menores cuya tutela no estuviere aún

harik eta aurreko legeriaren arabera seme-alabak guraso-ahalpetik kanpo geratzeko epea bete arte.

Seigarrena

Gurasoak bere borondatez emantzipatu badu semea edo alaba, bere buruarentzat eskubideen bat erreserbatuz, haren ondasun adbertizioen gain, guraso horrek eskubidearen luperketari euts diezaioke, harik eta aurreko legeriaren arabera seme edo alaba hori guraso-ahalpetik kanpo geratzeko epea bete arte.

Zazpigarrena

Euren ondorengoen gaineko kuradoretza betetzen ari diren aitek, amek eta aitona-amonek ezin izango dituzte kendu eurek eraturako fidantzak; ez badute fidantzarik eman, ezin dira behartu hori ematera, eta, emandakoa nahiko izan ez arren, ezin dira behartu emandakoa osatzera.

Zortzigarrena

Aurreko legeriaren araubidepean eta horren arabera izendatu diren tutore eta kuradoreek euren karguei eutsiko diete; baina, karguotan aritzeari dagokionez, kodearen xedapenen menpe geratuko dira. Erregela hori aplikatu dakieke inoren ondasunen edukitzaileei eta bitarteko administratzaileei ere bai, legeak halakoak ezartzen dituen kasuetan.

Bederatzigarrena

Tutoretza eta kuradoretzen behin betiko eraketa auzitegien ebazpenaren zain badago kodearen indarraldia hastean, halakoak eraturako dira aurreko legeriaren arabera, aurretiko erregelaren xedatutakoari kalterik egin gabe.

Hamargarrena

Udal epaile eta fiskalek ez dituzte ofizioz izendatuko familia-kontseiluak, kodearen indarraldia hastean, oraindik adingabeen gaineko tutoretza behin betiko eratzeke

definitivamente constituida al empezar a regir el Código.

Cuando el tutor o curador hubiere comenzado ya a ejercer su cargo, no se procederá al nombramiento del consejo hasta que lo solicite alguna de las personas que deban formar parte de él, o el mismo tutor o curador existente; y entretanto quedará en suspenso el nombramiento del protutor.

Undécima

Los expedientes de adopción, los de emancipación voluntaria y los de dispensa de ley pendientes ante el Gobierno o los Tribunales, seguirán su curso con arreglo a la legislación anterior, a menos que los padres o solicitantes de la gracia desistan de seguir este procedimiento y prefieran el establecido en el Código.

Duodécima

Los derechos a la herencia del que hubiese fallecido, con testamento o sin él, antes de hallarse en vigor el Código, se regirán por la legislación anterior.

La herencia de los fallecidos después, sea o no con testamento, se adjudicará y repartirá con arreglo al Código; pero cumpliendo, en cuanto éste lo permita, las disposiciones testamentarias. Se respetarán, por lo tanto, las legítimas, las mejoras y los legados; pero reduciendo su cuantía, si de otro modo no se pudiera dar a cada partícipe en la herencia lo que le corresponda según el Código.

Decimotercera

Los casos no comprendidos directamente en las disposiciones anteriores, se resolverán aplicando los principios que les sirven de fundamento.

dagoenean baino.

Tutorea edo kuradorea jadanik hasi denean bere kargua betetzen, ez da kontseilua izendatuko, harik eta horren kide izan behar diren pertsonetatik edozeinek edo tutoreak nahiz kuradoreak hala eskatu arte; bien bitartean, protutorearen izendapena etenda geratuko da.

Hamaikagarrena

Adopzio-espeditteak, borondatezko emantzipazioari buruzkoak eta legezko barkatzearen ingurukoak bukatzeko badaude Gobernuan edo auzitegietan, euren bideari ekingo diote aurreko legeriaren arabera, salbu eta gurasoek edo grazia eskatzen dutenek prozedura horretan amore eman eta kodeak ezarritakoa hobesten dutenean.

Hamabigarrena

Norbait hiltzen bada, testamentuarekin nahiz testamenturik gabe, kodea indarrean jarri baino lehen, aurreko legeak arautuko ditu hildako horren jarauntsiaren gaineko eskubideak.

Geroago, testamentuarekin nahiz testamenturik gabe, hiltzen direnen jarauntsia kode honen arabera adjudikatu eta banatuko da; baina beteko dira, kodeak hala ahalbidetzen duen neurrian, testamentuko xedapenak. Errespetatuko dira, ondorenez, seniparteak, hobekuntzak eta legatuak; baina horien zenbatekoa urrituko da, jarauntsiko partaide bakoitzari ezin bazaio beste modu batera eman kode honen arabera dagokiona.

Hamahirugarrena

Aurreko xedapenetan zuzenean jaso ez diren kasuak konponduko dira, xedapenon oinarri diren printzipioak aplikatuz.

DISPOSICIONES ADICIONALES

Primera

El Presidente del Tribunal Supremo y los de las Audiencias territoriales elevarán al Ministerio de Gracia y Justicia, al fin de cada año, una Memoria, en la que, refiriéndose a los negocios de que hayan conocido durante el mismo las Salas de lo civil, señalen las deficiencias y dudas que hayan encontrado al aplicar este Código. En ella harán constar detalladamente las cuestiones y puntos de derecho controvertidos y los artículos u omisiones del Código que han dado ocasión a las dudas del Tribunal.

Segunda

El Ministro de Gracia y Justicia pasará estas Memorias y un ejemplar de la Estadística civil del mismo año a la Comisión general de Codificación.

Tercera

En vista de estos datos, de los progresos realizados en otros países que sean utilizables en el nuestro, y de la jurisprudencia del Tribunal Supremo, la Comisión de Codificación formulará y elevará al Gobierno cada diez años las reformas que convenga introducir.

Cuarta

La referencia que a personas con discapacidad se realiza en los artículos 756, 822 y 1041, se entenderá hace al concepto definido en la Ley de protección patrimonial de las personas con discapacidad y de Modificación del Código Civil, de la Ley de Enjuiciamiento Civil y de la Normativa Tributaria con esta finalidad.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa

Auzitegi Goreneko eta lurralde-entzutegetako buruek txostena aurkeztu behar diote Grazia eta Justizia Ministerioari, urte bakoitzaren bukaeran; txosten horretan adierazi behar dute, urte horretan areto zibilen eskumenekoak izan diren negozioetan, zer-nolako gabeziak eta zalantzak sortu diren kode hau aplikatzeko. Txosten horretan xehetasunez agerraraziko da zeintzuk izan diren zuzenbidearen inguruko arazo eta gai eztabaidagarriak, eta kode honen artikuluen ondorioz edo aipamen ezaren ondorioz auzitegiek izan dituzten zalantzak.

Bigarrena

Grazia- eta justizia-ministroak Kodegintzarako Batzorde Nagusiari bidaliko dizkio txosten horiek, eta urte bereko Estatistika Zibilaren ale bat ere bai.

Hirugarrena

Datu horiek guztiak, beste herri batzuetan gauzatu eta gurean erabilgarri izan daitezkeen aurrerapenak, eta Auzitegi Gorenaren jurisprudentzia ikusirik, Kodegintzarako Batzorde Nagusiak, hamar urterik behin, komenigarri diren eraldaketak aurkeztu eta helaraziko dizkio Gobernuari.

Laugarrena

756, 822 eta 1041. artikuluek desgai diren pertsonak aipatzen dituztenean, aipamen hori ulertuko da, Desgai diren Pertsonen Ondarea Babesteko Legeak definitu bezala, lege horrek Kode Zibila, Prozedura Zibilaren Legea eta tributuen arautegia aldarazi baititu helburu horrekin